


ararteko

Herriaren Defendatzailea · Defensoría del Pueblo

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2020

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena



ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

www.ararteko.eus



URTEKO TXOSTENAK

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2021

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena



Vitoria-Gasteiz 2021

Lan hau [Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoa \(CC BY 4.0\)](#) lizentziapean dago



Lan honen **bibliografia-erregistroa** [Arartekoko liburutegiaren katalogoan](#) kontsulta daiteke

Formatuak eta edizioak:

Paperean ere bai: Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena 2020 (ISSN 2255-484X)

Gaztelaniazko edizioa: [Informe de la Oficina de la Infancia y la Adolescencia 2020](#) (ISSN-e 2255-4947)

Honekin batera argitaratua: [Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2020](#) (ISSN-e 2255-4939)

Dibulgaziozko edizioa: [Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2020. Laburpena](#) (ISSN-e 2255-4912)

Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:

– [web](#) gunean

– [posta elektronikoz](#) eskatuz

– aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)


ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Diseinua, maketazioa eta inprimaketa: Editorial MIC

ISSN-e 2255-4947

Aurkibidea



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	11
-------------------------	----

I. ATALA

Arauzko testuingurua eta testuinguru sozial	13
--	----

1. Haur eta nerabeen eskubideak aitortu eta babestea nazioarteko, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko legerian..... 15
2. Haurren eta nerabeen eskubideak COVID-19aren testuinguruan..... 16

II. ATALA

Eskubideak urratzea? Kexak, kontsultak eta ekimen propioko jarduerak	21
---	----

1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espeditentak: gerturatzeko kuantitatiboa..... 23
2. Arriskuan dauden eskubideak..... 24
 - 2.1. Garatzeko behar duten bizi-maila izateko eskubidea..... 24
 - 2.2. Hezkuntzarako eskubidea..... 30
 - 2.3. Abandonu, tratatu txar edo indarkeriatik babestua izateko eskubidea..... 34
 - 2.4. Familia babeslea izateko eskubidea..... 38
 - 2.5. Osasunerako eskubidea..... 43
 - 2.6. Adingabe arau-hausleen eskubideak..... 45
 - 2.7. Jolaserako, atsedenerako eta arte eta kirol jardueretarako eskubidea..... 45
 - 2.8. Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea..... 47

III. ATALA

Entzuna izateko eta bere iritzia kontuan hartua izateko eskubidea: Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua	49
---	----

IV. ATALA

Haurren eskubideak sustatzea: gizartearekiko harremanak eta erakundeen lankidetzak	53
---	----

1. Haurren Defentsa-erakundearen Europako Sarea (ENOC)..... 55
2. Herriaren Defendatzaileen Nazioarteko Erakundearen baitan (International Ombudsman Institute) lankidetzaren aritza..... 56
3. Gizarte-eragileekiko lankidetzak..... 56
4. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetzak..... 57
5. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren onarpena ospatzea..... 57

V. ATALA

Haur eta nerabeen eskubideen egoera baloratzea	59
---	----

AURKEZPENA

Aurkeztera goazen agirian bilduta daude Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2020. urtean egindako jardueraren elementurik esanguratsuenak. Gogorazi nahi dugu, aurtan ere, erantsitako txostenaren formatua daukala, hau da, osotasun integratu baten (Arartekoak Legebiltzarrarentzako egin duen 2020. urteko txostena) zatia izanda ere, modu independentean irakur daitekeen agiria egin dugu. Horrela, erakundearen antolaketarekin eta funtzionaltasunarekin lotutako errealitatea islatzen du, talde bereziki ahul horri dagokionez: Ararteko erakundearen jardueraren zati bereizezina izanda, haien eskubideak bermatzeko kezka, interesa eta jarduerak zeharkako ikuspuntu batetik egiten dira. Ikuspuntu horrek neska-mutilen interes gorenari ematen dio lehentasuna, eragindako eremua edo bizitzaren alderdia edozein dela ere. Azaldutakoaren ildoan, testuan zehar txosten orokorreko zatiak eta atalak aipatu egiten dira eta, modu berean, txosten orokorrean Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenari erreferentzia egiten zaio, bai kasu batean, bai bestean, garrantzi edo zehaztasun handiagoko gogoetak egiten diren bakoitzean.

Informazioa bost kapitulutan egituratuta dago. Lehenengoan, haur eta nerabeen eskubideen gaineko gizarte- eta arau-testuingurua azaltzen da, horretan jarduten baitu bulegoak. 2020an, COVID-19ak sortutako osasun-krisiaren eta horren hedapena prebenitu eta kontrolatzeko hartu diren neurrien eraginak toki nagusia hartu du bulego honen jarduera gauzatu den testuinguruan.

II. kapituluan, guztien artean luzeena, Ararteko erakundearen berezko jardueratik abiatuta, ikusitako arazo nagusiak aipatzen dira, arriskuan ikusitako eskubideen inguruan bilduta. Abian jarritako jarduerak eta herritarrek aurkeztu dituzten kexen; egindako ikuskapen bisitaldien; ofiziozko ikerketen; arduradun publikoekin eta gizarte erakundeekin izandako bileren; foroetan, batzarretan eta profesionalen topaketetan parte hartu izanaren ondorioz lortutako ikaskuntzak erreparatzan dira.

III. kapituluan zehazki azaltzen da zer-nolako jarduera burutu duen haur eta nerabeentzako gure partaidetza-organoak: Haurren eta Nerabeen Kontseiluak.

IV. kapituluak haurren eskubideei dagokienez, errespetuan oinarritutako kultura sortzen laguntzeko zenbait jarduera bildu ditu.

Azkenik, V. kapituluak ixten du agiria. Bertan, haur eta nerabeen eskubideen egoeraren balorazioa egiten da, laburpen gisa.

Urte berezi honetan, ezinbestean, COVID-19aren aipamena egiten da atal hauetan guztietan, izan ere, pertsona eta erakunde guztien bizitza baldintzatu du, baita haur eta nerabeena ere, txosten honek aztergai duen aldian.





I.

Atala

Arauzko testuingurua eta testuinguru soziala

I. Atala

ARAUZKO TESTUINGURUA ETA TESTUINGURU SOZIALA

Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jarduera erakundearen ardatz estrategiko nagusiei jarraiki bideratu ohi da, gizarte- eta arau-testuinguru jakin batean. Testuinguru horri erantzuten ahalegintzen da eta, aldi berean, testuinguru horrexek mugatzen eta baldintzatzen du hori egiteko modu zehatza. Testuinguru hori, dudarik gabe, guztiz berezia izan da 2020an, COVID-19aren izurriaren eta agintari publikoek mundu osoan horren kontra borrokatzeko hartu dituzten neurrien ondorioz. Horregatik, egokia dirudi atal honetan idatz zati berezi bat eskaintzea giza eskubideen aldeko erakundeek haur eta nerabeen eskubideei buruz egin dituzten gomendio, adierazpen edo orientabide garrantzitsuenak aurkezteko.

1. Haur eta nerabeen eskubideak aitortu eta babestea nazioarteko, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko legerian

Haurren eta nerabeen eskubideak duela gutxi aitortu dira. Geroago hartu dira haurrak eta nerabeak eskubideak dituzten pertsonatzat, nazioarteko eskubide humanitarioak giza eskubideak aintzatestearekin eta estatuko ordenamendu juridikoetan babestearekin batera hain zuzen.

1990. urtean [Espainiak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena \(HEH\)](#) berretsi zuen, 1989ko azaroaren 20an [Nazio Batuen Erakundearen \(NBE\)](#) batzarrak hartu zuena. HEH modu unibertsalean onartu den haurren eskubideen katalogoa da; aldi berean, estatuak errespetatzeko, bermatzeko eta betearazteko dauzkaten betebeharrak ezartzen dituena.

Konbentzioak, lehenengo bi artikuluetan haurren arloan erakundearen ekintza guztiak bideratu behar dituzten funtsezko bi printzipioak ezarri zituen: bereizkeriarik ezaren printzipioa eta adingabearen interes gorena. 6. artikulutik aurrera, lau eskubide multzo handi zerrendatu dira: **Hornidura**, hau da, zenbait baliabide eta zerbitzu edukitzeko, jasotzeko edo eskuratzeko aukera izateko eskubidea, haurren eta helduen artean baliabideak banatzeko; **Sustapena**, alegia, erabat garatzeko eta osasun eta hezkuntza maila gorenak izateko eskubidea; **Babesa**, hots, gurasoen eta profesiona-

len zainketak jasotzeko eskubidea eta ekintza eta praktika neurrigabeak jasan behar ez izatea; eta **Parte-hartzea**, hau da, gauzak egiteko eskubidea, nork bere kabuz adierazpenak egiteko eta banaka zein taldean hitza izateko eskubidea.

Horrez gain, beste bi premisa hauek kontuan hartu behar dira: eskubideen zatiezintasuna eta euren arteko lotura eta haur guztien ongizatea zaintzeari dagokionez gurasoen, familia ingurunearen, erakundearen eta gizartearen ardura partekatua.

Aukerakoak (hautazkoak) baziren ere, Espainiak ere sinatu eta berretsi ditu Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko (HEH) hiru protokoloak. Protokolo horietan babes kontuak aipatzen dira: [HEHren Hautazko Protokoloa](#), [gatazka armatuetan haurren parte hartzeari buruzkoa](#); [HEHren Hautazko Protokoloa](#), [haurren salmenta](#), [haurren prostituzioa eta pornografian haurrak erabiltzearen gainekoa](#); eta [HEHren Hautazko Protokoloa](#), [komunikazio prozedura baten ingurukoa](#). Azken protokolo horrek mekanismo bat ezarri du haurrek edota euren ordezkariak salaketa jarri ahal izan diezaioten beren eskubideak babesten [espezializatutako](#) nazioarteko batzorde bati, eskubide horiek urratuak izan direla uste badute. Beraz, modu zabalago eta indartsuagoan onartu dute haurrak eta nerabeak eskubideen subjektu direla.

2020. urtean ez da onartu ohar orokorrik; jakina denez, tresna horixe erabiltzen du Haurren Eskubideen Batzordeak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena egoki interpretatzeko orientabideak eskaintzeko, hori gauzatu behar den arlo desberdinetan. Dagoeneko abiarazi dira haur eta nerabeen eskubideei buruzko hogeita bosgarren oharra egiteko lanak, inguru digitalaren gainean. Prozesu horretan, 2020ko abuztuan testuaren zirriborroari ekarpenak egiteko deia egin zen. Hari erantzuteko, [Haurren Defentsa-erakundearen Europako Sareak \(ENOC\)](#) non Ararteko parte hartzen baitu 2019ko bere biltzar orokorrean ateratako ondorioak bidali zituen, hain zuzen ere, gai horri dagozkionak.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da badirela Espainiak berretsitako nazioarteko beste tresna batzuk haurren eskubideei eragiten dietenak eta horiek bermatzen dituztenak, aztergai dituzten herritarren parte dira-eta (eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, emakumeen eskubideak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak...). Horrela, azpimarragarria da (Tongako Erresumak berretsi ostean) unibertsalki berretsi dela Lanaren Nazioarteko Erakundearen [182 zenbakiko Hitzarmena](#), haurren lan-modu txarrenei buruzkoa: besteak beste, esklabotasuna, sexu-esplotazioa eta haurrak gatazka armatuetan edo beraien osasuna, morala

edo ongizate psikologikoa kaltetu dezaketen legez kontrako lanak edo lan arriskutsuak.

Europa mailan, erreferentziarik berriena [Haurren eskubideetarako Europako Kontseiluaren estrategia \(2016-2021\)](#) da, Monakon, 2006an abian jarri zen Programa honetan oinarritu zena: “[Haurrekin eta haurrentzako Europa eraikitzea](#)”. Estrategia hori, Estatu kideekin, gizarte zibilarekin, haurrak aldeztu dituzten erakundeekin, nazioarteko beste erakunde batzuekin eta haur eta nerabeekin egindako kontsulta handiaren emaitza da. Datoren urteetan haurren eskubideetarako premia-koenak diren erronken ikuspegi orokorra jasotzen du. Ardatz hauek kontuan hartuz egiten dira:

1. Pobrezia, ekitaterik eza eta bazterkeria.
2. Indarkeria.
3. Helduentzat eginda dagoen sistema judiziala.
4. Familiak eta gurasoek aurre egiten dieten erronkak.
5. Arrazismoa, gorroto eta erradikalizazio hitzaldiak.
6. Mundu digitalean haztea.
7. Migrazioa.
8. Aukera-berdintasuna haur eta nerabe guztientzat.

Arauzo horiek aurre egiteko, lehentasunezko bost jardueraren arlo identifikatzen ditu:

1. Aukera berdintasuna.
2. Parte-hartzea.
3. Indarkeriarik gabeko bizitza.
4. Haurrekin lagunkoia den justizia.
5. Haurren eskubideak mundu digitalean.

Arlo horiek beste ekintza batzuen osagarri gisa garatzeko, dokumentu interesgarriak editatu dira Estatu kideei orientatzeko eta aholkatzeko jarraibideekin, sistema publikoak haur eta nerabeen eskubide, interes eta beharretara egokitu ditzaten. Horren kasuak ditugu: haur eta nerabeekin “lagunkoia” diren [gizarte-zerbitzu](#) batzuen, [osasun](#) sistema baten edo [justizia](#) baten gomendioa; [inguru behartsuetako haurrek gizarte-eskubideetara duten sarbideari](#) buruzko gomendioa, adierazle proposamena [haurren partaidetza ebaluatzeko](#), [Giza eskubideetako hezkuntzari buruzko gutuna](#) edo berriki ezarritako [gidalerroak](#), [haurrek ingurune digitalean duten eskubideak errespetatzeko](#), [babesteko eta gauzatzeko](#).

Europako Kontseiluaren Estrategiarekin batera, [Eskubide Sozialen Europako Zutabea](#) aipatu behar dugu berriz ere. Izan ere, haren hirugarren ardatzean, gizarte-babesari eta gizarteratzeari buruzkoan, haurrei laguntza eta babes ematea sartzen da, eta, horri lotuta, haurren hezkuntza eta laguntza eskuragarria eta kalitate onekoa izateko eskubidea eta pobrezia-aren aurkako babeserako eskubidea nabarmendu eta aukera-berdintasuna sustatzeko neurri espezifikoak biltzen dira.

Espainiako legediari dagokionez eta hauteskundeetarako bi deialdi eta gobernua osatzeko zailtasun handiak izan zituen 2019ak ekarri zuen parentesiaren ondoren, ekainaren 9an Ministroen Kontseiluak onartu zuen Gorte Nagusietara

bidaltzea Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Babes Integralerako [Lege Organikoaren Proiektua](#), eta, txosten hau idatzi zenean, parlamentuko izapidetze fasean zegoen. Arau berriaren xedea da Estatuko lurralde osoan ezartzea haurren eta nerabeen aurkako indarkeriak dakarren eskubide urratzeari lotutako prebentzio eta babes paradigma berri bat ezartzea, honako ezaugarri hauek izango dituen:

- Ikuspegi integral bat, dimentsio anitzeko arazoari irtenbidea emateko.
- Prebentzioari lehentasuna ematea, adingabeen aurkako indarkeria saihesteko bide gisa. Haurren eta nerabeen gaitasuna indartzea indarkeria egoerak goiz detektatzeko eta modu egokian erreakzionatzeko.
- Babes neurriak ezartzea bigarren biktimizazioa saihesteko.
- Egungo ereduaren zatikatzea gainditzea, autonomia erkidegoekin lankidetzan arituz.

Euskal Autonomia Erkidegoak, legegintzako ahalmena duenez, 2005ean onartu zuen haurrak eta nerabeen babes eta sustapenerako **autonomia erkidegoko legedia** nagusia, oraindik ere indarrean dagoena ([3/2005 Legea, otsailaren 18koa](#), Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko). 15 urte hauetan aldaketa handiak egon dira legeetan eta gizartearen, eta Eusko Jaurlaritzaren XII. legegintzaldiaren [Legegintza Programan](#), 2020ko irailean aurkeztutakoan jasota dago haurren eta nerabeen eskubideen lege berri bat bidaltzea Jaurlaritzaren Kontseilura, 2021eko bigarren seihilekorako.

2. Haurren eta nerabeen eskubideak COVID-19aren testuinguruan

Hasieran aipatu den moduan, aurtengo egoera baldintzatu egin du COVID-19ak, eta haurren eta gazteena da osasun krisiak eta autoritate publikoek gaixotasunari aurre egiteko hartutako neurriek gogorren jo dituen taldeetako bat, baita ikusezinetako bat ere. Egia da haurrak COVID-19 kasuen ehuneko txiki bat direla, eta infektatutako ehuneko handi batek ez duela sintomarik, edo sintoma arinak dituela. Horregatik, krisiaren lehen uneetan, haurrak kutsatzaile handizat jo ziren. Gaixotasunaren intzidentzia txikiak eta birusa hedatzeko arduraren handi hori egotzi izanak azal dezake, hein batean behintzat, haurrek eta nerabeek munduko larrialdia- ren kudeaketan izandako ikusgarritasun txikia.

Martxoaren hasieran kasuan era esponentzialean eta kontrolrik gabe ugartu zirenean, Espainiako Gobernuko presidentek [alarma egoera](#) ezarri zuen herrialde osoan, eta mugitzeko askatasuna gogor mugatu zen, baita herritar guztien eguneroko jardueren garapena ere. Herritarrei egoeraren berri eman zien diskurtsoan ez zen haurren aipamenik ere egin, nahiz eta kalte handienak jaso zituzten kolektiboeta-

ko bat izan. Debekatu egin zitzairen beren etxeetatik irtetea, eskolara joatea, espazio publikoetan edo beste edozein instalazio edo espazio partekatutan edonolako jarduerak egitea, lagunekin aurrez aurre biltzea eta jolastea eta abar. Haurrei ez zitzairen inolako mezurik helarazi, hizkera irisgarrian, haien ikuspegiari erreparatuz.

Halaber, haurrak eta nerabeak ez dira libratu birusaren hedapena geldiarazteko eta moteltzeko ezarritako neurrien ondorioez. Konfinamendu osoaz gain, hezkuntza arrakalak, familiako gatazkek edo gurasoek lana galtzeak haurrengan eragin du, oraindik ere ehunekorik ez badakigu ere, eragin horietako batzuk epe ertainean edo luzean soilik ikusi ahalko ditugu eta. Nolanahi ere, eragina handiagoa izaten da krisiaren hasieran zaurgarritasun handiagoko egoera batean daudenentzat.

Neurri murriztaileak orokortu zirenetik, nazioarteko instantziak, Europakoak, estatukoak eta autonomia erkidegokoak (tartean erakunde hau bera) txostenak, gomendioak, adierazpenak eta jarraibideak ematen hasi ziren, giza eskubideen hainbat alderdiren eta haiek ukitutakoei, tartean haurrei eta nerabeei, buruzko hainbat alderdiren ingurukoak.

Kasu gehienetan, eztabaida giza eskubideen titulartasunari eta haurrek horiek erabiltzeko ezarri beharreko bermeei buruzkoa izan da, haien ezaugarri bereziak direla-eta babes berezia merezi dutelako, konfinamendu garaian murriztu beharko ez litzatekeena. [Europako Kontseiluko](#) idazkari nagusiak adierazi zuen bezala, “haurrak konfinatuta daude, haien eskubideak ez”.

Haurren Eskubideen Batzordeak ere pandemiaren hasieran iritzia eman zuen birusaren hedapena mugatzeko neurri zorrotzenak hartzeari buruz, pandemiak haurrengan izango zuen eragin fisiko, emozional eta psikologiko larria nabarmenduz eta Haurren Eskubideen Gutunaren estatu sinatzaileei eskatuz beren haurrak babes zitzaten, bereziki kontuan hartzen zituzten neurriak hartuz. Honako gai hauek nabarmendu behar dira haren iritzitik.

- Aintzat hartzea pandemiak haurren eta nerabeen eskubideetan izandako eragin sanitarioak, sozialak, hezkuntzakoak, ekonomikoak eta aisiakoak.
- Beste aukera sortzaileak esploratzea haurrek eta nerabeek beren atsedenerako, aisiarako, jolaserako eta jarduera kultural eta artistikoetarako eskubideez gozatzeko.
- Bermatzea *online* ikaskuntzak ez duela dagoen ezberdinkeria handitzen eta ez duela ikasle-irakasle harremana ordezkatzen.
- Berehalako neurriak aktibatzea bermatzeko haurrek larrialdian, hondamenaldian edo itxialdian elikagai nutritiboak jasotzen dituztela, askok otordu nutritibo bakarria eskolako elikatze eskemen bitartez jasotzen baitute.
- Haurrentzako oinarriko zerbitzuen hornidurak mantentzea, tartean arreta medikoa, ura, saneamendua eta jaiotzen erregistroa.

- Haurrak babesteko oinarriko zerbitzuak funtsezko gisa definitzea, eta bermatzea abian eta eskuragarri jarraitzen dutela, etxetik etxeko bisitak barne, beharrezkoak direnean, eta konfinamenduan bizi diren haurrentzako buruko osasunaren zerbitzu profesionalak ematea.
- Pandemiak sortutako salbuespen egoerak zaurgarritasuna handitzen dien haurrak babestea. Tartean daude desgaitasunak dituzten haurrak; pobrezian bizi direnak; kalean bizi direnak; migratzaileak; asilo eskatzaileak; errefuxiatuak eta barruan lekualdatu behar izan direnak; gutxiengoetako haurrak eta indigenak; osasun arazoak dituztenak; askatasuna kendu zaienak edo polizia-aren atxilotze zentroetan, kartzeletan, arreta seguruko zentroetan, migratzaileak atxilotzeko zentro edo esparruetan daudenak eta instituzioetan bizi direnak.
- COVID-19ari buruz eta infekzioa saihesteko moduei buruz informazio zehatza ematea, haur guztientzako abegikorrek eta irisgarriak izango diren hizkuntza eta formatuetan, desgaitasunak dituzten haurrentzat, migratzaileentzat eta Internetetako sarbide mugatua dutenentzat ere bai.
- Aukerak ematea haurren iritzia entzun daitezen eta aintzat har daitezen pandemiaren inguruko neurriak hartzeko prozesuetan. Haurrek gertatzen ari dena ulertu behar dute, eta sentitu behar dute pandemiari erantzuteko erabakietan parte hartzen dutela.

Antzeko iritzia zuen [Nazio Batuen idazkariak](#) ere, eta hala adierazi zuen [Politiken txostena: COVID-19ak haurrengan dituen eraginak](#) dokumentuan. Bertan, zehazten zuen krisi honek haurrei hiru bidetatik eragin diela: birusaren beraren infekzioa, birusaren hedapena geldiarazteko eta pandemia amaitzeko neurrien berehalako ondorio sozioekonomikoak; eta Garapen Jasangarriko Helburuak aplikatzean berandutzearen epe luzeko ondorio posibleak. Halaber, horrek dakartzan arrisku nagusiez ohartarazi zuen: pobrezian erortzea, ikaskuntzaren krisia handitzea, haurrek irauteko eta haien osasunerako mehatxuak eta haien segurtasunerako arriskuak.

Epe luzeko eragina bereziki nabarmendu zen [UNICEFek](#) urte amaieran aurkeztutako txostenean, [COVID-19aren belaunaldi galdua saihestea](#) izenekoan. Bertan, eskatu zuen amaitzea gaixotasunak haurrei ia eragiten ez dienaren mitoa; izan ere, belaunaldi oso baten hezkuntzan, nutrizioan eta ongizatean izango duen epe luzeko eraginak haien bizitza marka dezake.

Estatuan, [Haurren Erakundearen Plataformak](#) osasun krisiaren lehen hilabeteetan adierazi zuen kezkatuta zegoela haurrei eta nerabeei krisiaren kudeaketan ezikusariena egin zitzaiela, eta Espainiako Gobernuari [haurrentzako 100 neurri](#) helarazi zizkion, plataformak berak eta haren kide diren 67 elkarteek egindako analisiaren eta hausnarketaren bidez lortutakoak. “*Osasun eta gizarte krisi honetan haurrek gobernuaren agenda politikoan garrantzia hartzea eta haurren, gehienbat zaurgarrienen, inguruko politika espezifikoak abian jartzea beharrezkoa dela*” sinetsita, hainbat proposamen egin zituzten, ustez eragin gogorra jasaten ari ziren haurren eskubideetan ardatzatuak: informazioerako eskubidea, bizi maila egokirakoa, hezkuntzarakoa, osasunerakoa,

edozein indarkeria motaren aurkako babes izatekoa eta familiek haurrak hazteko beharrezko babes guztia izatekoa. Aurretik aipatutako Haurren Eskubideen Batzordeak nabarmendutakoei jarraituz, proposamenak Espainiako egoerara hobeto egokitzen ziren.

Udaren atarian, deskonfinamendu prozesua hastean, Haurren Erakundearen Plataformak [proposamen berriak](#) egin zituzten gobernari, haren ustez une hori gako baitzen krisiaren eragina eta haurren konfinamenduarena txikiago-tzen hasteko.

Haurren erakunde batzuek, esaterako, [Save the Childrenek](#), ahaleginak bideratu zituzten, diagnosiaz eta estatuko eta autonomia erkidegoetako autoritateei proposamenak eginez eragin politikoa izateaz gain, testuinguru ezohiko horretan familiei hazkuntzan laguntzera. “Zure ondoan” gida saila editatu zuten, gurasoei jarraibideak ematen zizkieten [elikadura egokia](#) bermatzeko, seme-alabei [emozioekin](#) laguntzeko, [etxe segurua](#) bermatzeko, [aisia eta jolasa](#) etxean sustatzeko eta [partaidetza](#) bultzatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, [Hirugarren Sektore Sozialaren Behategiaren](#) bidez erakunde sozialek beren [diagnostikoa](#) egin zuten ere COVID-19aren eraginaren inguruan, apirilean, eta ondorioztatu zuten, haurrei eta nerabeei dagokien haurren arazo nagusiek hiru iturri ziztutela, diskurtso publikoan ikusezin gelditu izanaz gain: konfinamendutik eratorritakoak (sortutako edo larritutako arazo psikologikoak, arreta falta, erreferentzien galera eta abar), arrakala digitalari lotutakoak (Internetarako konexiorik edo ordenagailurik eza, tresnak erabiltzeko gaitasun mugatua, informaziorik eza, eskolako atzerapena eta abar) eta baliabide ekonomikorik eza (oinarizko beharrak asetzearagin).

Ikusezin uzteko egoera horretan, oso aukera gutxi egon da haurren ahotsak zuzenean entzunarazteko. Horieta bat, autonomia erkidegoan, [Euskal Herriko Unibertsitateko](#) profesional talde batek egindako [Haurren ahotsak COVID-19agatik konfinamendu egoeran](#) txostena izan zen, etxeko konfinamendu zorrotzaren garaian egindakoa. Azterlanaren xedea zen aztertzea haurrek nola integratzen zuten konfinamendu egoera beren eguneroko pentsamenduan, eta nola egiten ari zitzaizkion aurre alor akademikoko, fisikoko eta psikosozialeko eraginari. Bertan analizatzen da zer egiten zuten etxean ematen zituzten horrenbeste ordutan eta nola sentitzen ziren; gainera, koronabirusaren inguruan zuten irudi soziala ere definitzen da, gutxi gorabehera. Horrek guztiak argi egiten dio haurren ikuspegiari, zeina, irizpide onen arabera, kontuan hartu beharra zegoen ere antolamendu sozialerako erabakiak hartzeko.

Azterlanak ondorioztatu zuen haurrek argi eta garbi irudikatzen zutela COVID-19a garaitu beharrekotsai gisa, eta bataila horretan osasun langileak ziren heroiak. Bazekiten, gainera, gaixotasuna bereziki arriskutsua zela adineko pertsonentzat, eta, horregatik, kezkatuta zeuden haien aiton-amonengatik. Horri dagokionez, ikusi zen “gaixotasunaren hedatzaile handien” diskurtsoa sakon barneratua

zutela eta errudun sentitzen zirela hurbileko senideren bat kutsatuz gero. Datu horrek iradoki zuen berariak helarazi behar zitzaizela ez zela haur ez zela “errudun” izango senideren bat kutsatuz gero.

Etsaia, gaixotasuna, kanpoan zegoen, eta, horregatik, haur batzuek kalera irteteko beldurra zuten. Diskurtso publikorako eta konfinamenduko geroko etapetarako kontuan hartu beharrekotsa beste elementu bat agertu zen: kalearen eta gainerako pertsonen inguruan “arriskutsu” izatearen irudirik ez zabaltzea.

Konfinamendu egoerak emozio bikoitzak sortzen zituzten: pozik zeuden familiarekin denbora emateagatik eta plantatzen zitzaizkien proposamen guztiak egiteagatik; eta haserre ezin zutelako lagunekin eta beste senide batzuekin gehiago eta hobeto egon. Kalearen, korrika egitera irtetearan, naturarekin harremanean egotearen, parkera jolasera joatearen eta lagun taldearekin biltzearen falta sumatzen zuten. Harremanen alor hori zaila da teknologiek oso-osorik ordeztu, eta etorkizun hurbilerako nabarmendutako hirugarren elementua zen.

Horregatik guztiagatik, azterlanak ondorioztatzen zuen funtsezkoa zela haurren ongizatea holistikoki konpontzea, behar sozialak eta fisiko eta psikikoak jorratzea, eta bereziki saihestea soilik alderdi akademikoetan oinarritzea. Gainera, dei egiten zuen familien zeregin garrantzitsua aitor-tzera, ezin baitziren bakarrik utzi, eta, beraz, ezinbestekoa baitzen alor publikoen jarduketak.

Horrekin batera, batzuetan, adierazpen orokor eta integral horien osagarri gisa, instituzio eta erakunde batzuek beren azterketak edo gomendioak alderdi zehatzetara bideratzen zituzten, adibidez, hezkuntzarako eskubidera. Hori da, adibidez, Nazio Batuen Idazkaritza Nagusiaren [gomendioen](#) kasua, bereziki kezkatzen baitzuen lehendik ere hezkuntzaren alorrean zegoen ezberdinkeria COVID-19aren ondorioz larritzeak. Kezka hori jasota dago ere [Hezkuntza Eskubidearen aldeko kontalari bereziaren txosten](#)ean. Haren iritziz, ezinbestekoa da sakon eztabaidatzea urruneko [online](#) hezkuntzari etorkizunean eman behar zaion lekuaren inguruan (telebista eta irratiarekin batera), kontuan hartuta ez soilik aukera posibleak, baizik eta pantailek haurrengan duten eragin negatiboa ere bai, haien osasunerako eta hezkuntzarako eskubidea barne.

Estatuan, Save the Children bezalako erakunde sozialek ere eman zuten iritzia auzitan zegoen hezkuntzarako eskubidearen inguruan. Ia 4.000 haurri ordenagailuak eta Internet emateko larrialdiko esku hartze batekin batera, esku hartze publikorako proposamenak egin zituzten, bermatzeko krisiak ez zuela haur bat ere hezkuntza sistematik kanpo uzten. [COVID-19: arrakala itxi](#) txostenak osasun krisiari aurre egiteko hartutako neurrien hezkuntzako eragina aztertu zuen, eta proposamenak egin zituen deskonfinamendu faserako eta ikasturtea ekitatez hasteko; izan ere, haren begirada beti zaurgarritasun handiena duten haurrei eta nerabeei bideratuta dago.

Era guztietako indarkeriaren kontra babesteko eskubi-deari lotutako adierazpenak eta gomendioak ere egin dituzte nazioarteko erakundeek. [Europako Kontseiluak](#) eta, zehazkiago, [Lanzaroteko Batzordeak](#), dei egin zuen COVID-19aren garaian haurren sexu ustiapenaren eta abusuaren aurkako babesa indartzera. Nazio Batuetako haurren aurkako indarkeriari buruzko [Agentzia arteko Lantaldeak](#) deialdia egin zuen sektore anitzeko erantzun integratua emateko, gainera, haurren aurkako indarkeriaren prebalentziari buruz eskuragarri dagoen informazioa hobetzeko, adinaren eta generoaren arabera xehakaturata eta erabakiak hartzeko eskuragarri jarrita.

Azkenik, dagoeneko azaldu dugun ideia batera itzultzeko, haurrei eta nerabeei ere, herritarrak direnez, eragiten die krisiaren kolpeak eta askotariko alorretan, esaterako, etxebizitzarenean, osasunarenean, justiziarenean, datuen babesarenean hartutako neurriek, baita haien kolektibo espezifikoentzat hartutakoek ere, esaterako, desgaitasuna duten pertsonentzat, gutxiengo etnikoentzat, migratzaileentzat eta abar. Txosten honetan hori guztia azaldu ezin izango litzatekeenez eta bere xederako gehiegizkoa izango litzatekeenez, Arartekoaren Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoak azken hilabeteotan egindako [bildumara](#) jo dugu. Eskuragarri dago erakundearen webgunean.



II.

Atala

Eskubideak urratzea?

Kexak, kontsultak eta ekimen propioko jarduerak

II. Atala

ESKUBIDEAK URRATZEA? KEXAK, KONTSULTAK ETA EKIMEN PROPIOKO JARDUERAK

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jardueraren zati handi bat, ez guztia ordea, kexa- eta kontsulta-espeditenteak bideratzen datza, hau da, espeditente horiek ikertu, aztertu eta baloratzean. Kexa- eta kontsulta-espeditenteen analisari hurbiltzeak batik bat helburu diagnostikoa du bulegoaren berriazko agiri honetan. Bere oinarritzko helburua, jarduera horren datuak adierazteaz gain, egoera kezkarriak haute-matea da, eta espeditente horietako bakoitza gure haurrak mugitzen diren errealitatearen sentso gisa ulertzea. Beraz, interesa izaera kualitatiboaren bidez gehiago zehaztuko da izaera kuantitatiboaren bidez baino, baina edonola ere, interes garrantzitsua du.

1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espeditenteak: gerturatze kuantitatiboa

2020an, 502 kexa-espeditentetan aipatu da argi eta garbi haurren eta nerabeen presentzia edo inplikazioa, alegia, Ararteko erakundeari egindako kexa guztietatik ia %19,8tan. Zenbaketa horretan sartuta daude, batetik, alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espeditenteak (498): norbanakoek edo elkarrekin azaldu dituzte, horretarako ezarritako bideren bat erabiliz (bulegoak, weba, posta elektronikoa); eta bestetik, erakundeak bere kabuz hasi dituen ofiziozko espeditenteak (4), haur eta nerabeen talde batzuk ahultasun egoeran daudela edo beraien premiei behar bezala erantzuten ez zaiela susmatzen denean, egoera horiek aztertze eta horien bilakaera ikusteko.

Alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espeditentetan, erakunde honek bi kasuok zenbatzen ditu:

- Nerabeek eta gazteek zuzenean egindako kexak.
- Neska-mutilen edota nerabeen ordezkariak egindako ke-

xak. Oso ehuneko handian, pertsona hori adingabearen aita edo ama izan ohi da, baina batzuetan senideak eta hezitzaileak ere bai.

Aurten, ordea, jasotako kexetatik bakar bat ere ez du egin adingabe batek. Aipatzen diren kexa guztiak helduek egin dituzte eta neska-mutilengan eragina duten egoerak azaldu dizkigute. Kexa horietatik 10 gizarte-erakundeek egin dituzte (norbanakoen egoerak azaldu dituzte) eta beste 13 kexa elkarrekin egin dituzte, baina pertsona-talde baten ordezkari gisa; horregatik, adingabe gehiagori eragiten diete.

Gaikako esparruen arabera espeditenteen sailkapena (horren azterketa xehatua txosten honetako 2.2. ataleko muin nagusia osatzen du), ondorengo taulan islatutakoa da:

1. Taula. Alde batek eskatuta bideratu diren kexen banaketa, gai-esparruaren arabera

Gai-esparrua	Kopurua	%
Bizi-maila egokia: diru-sarrerak eta etxebizitza	192	%38,6
Hezkuntza	167	%33,6
Familia	28	%5,6
Jolasa, kirola eta kultura	24	%4,8
Babesa	23	%4,6
Osasuna eta alor soziosanitariarioa	23	%4,6
Beste alderdi batzuk	16	%3,2
Justizia	15	%3,0
Ingurumena	10	%2,0
GUZTIRA	498	%100

Iturria: guk geuk egina

Ofiziosko oso ikerketa gutxi egin dira hain berezia izan den urte honetan. Horietatik 3 babesik gabeko haurrentzako gizarte-zerbitzuen gainekoak izan dira, eta horietan babes-teko erakunde publikoek (foru aldundiak) tutoretzapean edo zaintzapean dituzten haur eta nerabeei emandako arretaren bilakaera aztertu da. Laugarren espediente Arartekoak berak eskatuta ireki da, haurren eskubideei dagokie eta hauxe du aztergai: familia batek etxebizitza desegokia duela eta, gainera, familia horretako hiru seme-alabetatik bik gaixotasun degeneratibo desgaitzailea dutela.

2. Arriskuan dauden eskubideak

2020. urtean, adingabeen arloan Ararteko erakundeak egindako jardueraren ikuspegi kuantitatiboa osatzeko, antzemandako arazoak eta kezak azaltzen dira, eta, zenbait kasutan, lortutako emaitzak edo ondorioak, zenbatutako kexen ehunekoak iradokitako hurrenkeran eta guztiak azaldutako egoeretan arriskuan dauden eskubideen inguruan bilduta.

2.1. Garatzeko behar duten bizi-maila izateko eskubidea

27. artikulua¹ (Haurren eskubideei buruzko Hitzarmenekoak)

1. Haur guztiek dute beren garapen fisikoa, mentala, izpirituala, morala eta soziala bultzatuko duen bizi-maila izateko eskubidea, eta estatu kideek hori onartzen dute.
2. Gurasoek edo haurra zaintzen dutenek haurrari bere garapenerako beharrezkoak diren baldintzak eman behar dizkiete, beti ere bere ahalbide eta diru-baliabideen arabera.
3. Estatu kideek, estatuko baldintzen eta dituzten baliabideen arabera, guraso edo haurren erantzukizuna dutenei laguntza emango diete eskubide hau bermatu dadin, eta beharrezkoa bada laguntza materiala eta laguntza-programak bideratuko dituzte, batez ere elikadura, jantzi eta etxebizitzaren arloan.

Nekez zehaztu daiteke zenbat haur eta nerabe bizi diren prekariotasun ekonomiko edo pobrezia egoeretan, eta nekez zehaztu daiteke, halaber, zenbat haur eta nerabe dauden oinarriko beharrak asetzeko zailtasunak dituztela dioten familien espedienteetan. Espediente horietako askotan, zehazki dakigu bizikidetzaren unitatean adingabe bat edo gehiago daudela, baina ez daukagu datu hori espediente guztietan. Horregatik, aurtan ere zenbatespenaren baliabidea erabiliz eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen

duten eta seme-alaba adingabeak dituzten bizikidetzaren unitateen ehunekoak (%30,26) erakunde honek prestazio ekonomiko horri buruz izapidetu dituen espedientei aplikatuta, ondorio hau atera dugu: 136 familia (horietan ez da harriztekoa adingabe bat baino gehiago egotea) estatusun ekonomiko larrian bizitzen ari direla. Kopuru horri etxebizitza arloko 56 espediente gehitu behar zaizkio; espediente horietan berariaz adierazten da haurrak daudela tartean, eta beraien bizitokiak gabezia handiak dituztela (hori beren bizimoduaren baldintza materialen funtsezko zatia da).

2.1.1. Arauzko testuingurua eta testuinguru soziala

Txosten honen 1.2. apartatuan azaltzen zen moduan, hala nazioarteko erakundeek nola haurren eta nerabeen estatu mailako erakunde sozialek adierazi dute COVID-19ak ekarritako krisiak haurren eta nerabeengan izandako egiazko eraginak direla pobrezian erortzea, prekaritate egoerak areagotzea eta haurren pobrezia arriskua edo baliabide ekonomikorik eza (oinarriko beharrak asetzeko eragina dutenak), txosten eta gomendioetan azaltzen diren esamoldeetako batzuk erabiltzearen. Gutxi dira, ordea, eragin horien hedapenaren eta intentsitatearen informazio zehatzago ematen duten azterlanak.

Txosten hau idatzi zen garai bertsuan Institut d'Economia de Barcelonak argitaratu zuen azken txostenean, "Pobrezia Espainian eta Europan. COVID-19aren eraginak" izenekoan, zenbait datu agertzen dira Espainiako testuinguru orokorraren inguruan, eta horien artean, hain zuzen, nabarmentzekoa da krisi honek haurrek dituzten etxeetan sortutako eragina.

"Gainera, bi ezaugarri kezagarri daude pobrezia biltzailearen, pandemiak handitu egin ditzaizkion eta hura murrizteko asmo handiagoko neurriak ezartzera behar dutenak. Bat da pobrezia etengabeko hazkundera -hasi den urtean eta gutxienez aurreko hiru urtetatik bitan atalasearen azpitik egotea-, Espainiako etxe askotan. 2019an arazoak populazioaren %15i eragiten zion, 28en EBko batez bestekoa baino ia %40 gehiagori. Urte bat bestearren atzetik pobrezia egoeran egoten diren etxeetan zailtasun handiak izaten dituzte egoera horretatik irteteko. Hainbat ikerketak erakusten dutenez, gaur egun txiroa izateko probabilitatea ia bikoitza da aurreko urtean txiroa izan denarentzat (Vaalavuo, 2015). Ondorioak larriagoak dira pobrezia iragankorrena baino, bereziki adingabeen kasuan, haien etorkizuneko aukerak, laneko aukerei, soldatei, harreman sozialei edo, are gehiago, osasun egoerari, dagokienez, asko murrizten baitira haurtzaroen horrelako egoerak bizi izan badituzte.

Bigarren egoera da **hain zuzen, haurrak dituzten etxeak jo dituela gogorren pandemiak**. Aipatutako *Caritasen azterlanak (2020)* dioenez, pandemiak zama gehigarria ekarri die adingabeak dituzten familia zaurgarriei. Populazio aktiboaren inkestatik ere ondorioztatzen denez, diru sarrerarik gabeko etxeen ehunekoak %20 igo zen 2019ko azken hiruhi-

¹ II.2 kapituluaren atal bakoitzaren goiburuan aipatutako artikulua Haurren eskubideei buruzko Hitzarmenekoak dira (Nazio Batuek, 1989).

lekoan eta 2020ko bigarrenean, baina adingabeak dituzten etxebizitzetan bikoitza izan zen igoera. COVID-19aren kolpe ekonomikoaren eragina haurrak dituzten etxeetan bereziki negatiboa izatea kezkarria da, epe ertaineko eta luzeko ondorioak direla eta, etorkizuneko ongizatea mugatzen baitu txikitako aldi horretan, garapenerako hain garrantzitsua denean, pobrezia bizitzeak” (23. orrialdea²)

Horrek Euskadin izandako eragina kuantifikatzeko eta islatzeko, Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak emandako datuetara jo da, diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten bizikidetzaren unitateen ingurukoetara. Nahiz eta dauden [azterlanek](#) dagoeneko adierazten duten Euskadin pobrezia egoeran edo pobrezia arriskuan daudenen heren batek askotariko arazoiengatik ez duela sistemako prestazio ekonomikorik jasotzen, adierazle interesgarria da, batez ere txosten diagnostiko osoago eta eguneratuagorik ez dagoen artean.

Eusko Jaurlaritzaren [Lan eta Enplegu Sailak](#) emandako informazioaren arabera, 2020ko abenduaren 31n diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zuten bizikidetzaren unitateen %30,26k adingabeak zituzten beren kargu. Datu hori bat dator aurreko txostenetan sakonago edo azalago argudiatutako baieztapenarekin, hau da, pobrezia egoerak haurrak eta nerabeak dauden familietan larriagoak direla dioenarekin³. Familia horiek kasuen erdiak baino gehiago dira Bizkaian (%56,35), ia laurden bat Gipuzkoan (%24,40) eta %20 inguru Araban.

Hala ere, alertak alerta, datuek ez dute igoera berezirik azaltzen 2020an. Egia da diru sarrerak bermatzeko errentaren hartzaileen kopuruaren joera beheranzkoa zela (baita haurrak beren kargu dituzten bizikidetzaren unitateetan ere) 2019tik aurrera, eta 2020an eten egin dela, datuek gora egin dutelako (2018: 55.380 bizikidetzaren unitate, 16.335 adingabeekin; 2019: 52.455, horietatik 15.495 adingabeekin; 2020: 54.747, 16.567 adingabeekin). Dena den, igoera ez da oso deigarria. Hain justu, 2020an diru sarrerak bermatzeko errenta jaso zuten bizikidetzaren unitateen kopurua ez da oraindik 2018ko mailara itzuli, baina ñabardura bat egin beharra dago, 2018ko zifrak gaituzte baituzte, hain zuzen, haurrak eta nerabeak dituzten bizikidetzaren unitateek. Beste behin, datu kezkarria da: haurren pobrezia beti pobrezia orokorraren tasetatik gora dago, eta proportzio handiagoan hazten da.

Bizikidetzaren unitate horietan dauden haurren eta nerabeen kopurua 28.180koa da, hau da, Euskadin erroldatutako 19 urtetik gorako 400.000 pertsonen %7. Egiatzat joko bagenu diru sarrerak bermatzeko sistemak kanpoan uzten dituela pobrezia egoeran dauden familien heren bat inguru, zenbatetsi ahalko genuke Euskadiko 37.463 haur eta nerabe (%9,33) bizi dela prekarietate ekonomiko eta materialeko egoeran, eta arrisku handian dagoela beren garapenerako bizitza maila egoki bat izateko eskubidea.

² Testuan azpimarratutako zatiak Arartekoak nabarmendu ditu.

³ 2020ko urtarrilaren 1ean, Euskadiko 0-19 urte arteko populazioa %18,25ekoa zen. [EUSTAT](#)en jaso. Biztanleen udal estatistika.

Interesgarria da, baina ez berria delako, datu baten arabera emakume bat buru duten bizikidetzaren unitateen ehunekoa handiagoa dela adingabeak beren kargu dituztenen artean. Beraz, emakumeak dira diru sarrerak bermatzeko errentaren titularrak kasuen %58tan, baina haur eta nerabe bat edo gehiago dituzten bizikidetzaren unitateen %76ko buruak dira. Unitate horietako %50 ingurutan, gainera, adingabeak bat baino gehiago dira (sarritan bi eta hiru, baina lautik zazpita ere bai).

Kontuan hartuta oraindik ere orain daukagun testuinguru ezohiko eta salbuespenekoa, bereziki interesgarria izango da arretaz jarraitzea haurren ongizate materialaren baldintzetan ekarritako eraginari buruzko informazio guztiari. Adituek diotenez, oraindik ere ez ditugu bete-betean sentitu osasun krisiaren eraginak (pandemiaren hedapena prebenitzeko eta saihesteko hartutako neurrien eragina barne), eta ziur izango duela eragina haurrentzat. Diru sarrerak bermatzeko sistemaren prestazio ekonomikoaren inguruko datuek islatzen duten egoeraren kasuan, gainera, ez da zehatz-mehatz ezagutzen zein eragin duen arrakala digitalak administrazio publikoek ematen duten arretak muga handiak dituen egoera honetan, Arartekoak aurrerago aipatuko den bere azaroaren 9ko gomendio orokorrean ohartarazi duen moduan.

Legegintzako testuinguruari dagokionez, 2020an zehar arau ugari argitaratu dira zaugarritasun sozial eta ekonomiko egoerei aurre egiteko, eragina duena autonomoengan, enpresa txiki eta ertainetan eta abarretan. Horien artean, azpimarratzekoak dira [bizitzeko gutxieneko diru sarrera](#) eta COVID-19ari aurre egiteko gizarte eta ekonomia arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen [martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua](#).

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeari dagokionez, oraindik ere egiteko dago aurreikusitako araudi aldaketa, baita diru sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak arautzeko dekretuaren araudi egokitzapena ere. Horrek age-rian uzten du arlo juridikoan ziurtasun juridiko falta dagoela, ez dagoelako prestazio ekonomikoaren kudeaketara egokitutako arauzko esparrurik.

Etxebizitzaren eta [hipoteka betearaztearen eta etxebizitzaren](#) alorretan, Arartekoarentzat urtero kezka iturri zaizkionetan, adierazi beharra dago COVID-19aren krisiak larritu egin dituela neurri horiek dakartzaten egoerak.

Egia da martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua onestean, Euskadiko Autonomia Erkidegoan guztiz betearazleak ziren neurriak ezarri zirela, besteak beste, egoitzazko irtenbiderik ez zuten etxebizitza zaugarrietako botatzeak etetea eta ohiko etxebizitzetako alokairu kontratuak salbuespenez luzatzea. Hala ere, babes horrekin bermatu zen gauza bakarra izan zen kaleratze prozesuak eta ondorengo botatzeak gelditzea, betiere, zaugarritasun egoera, COVID-19aren ondoriozko laneko salbuespen egoeren ondorioz sortu baldin bazen.

Horri dagokionez, orduko [Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak](#) hasiera batean onetsi zuten Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuaren [2020ko](#)

[martxoaren 31ko Agindua](#); horren bidez, alokairu araubideko etxebizitza babestuen arloan COVID-19 birusaren inpaktu ekonomikoari erantzuna emateko hartu beharreko neurriak arautu ziren. Ondorioz, babes publikoko etxebizitza baten edo asimilatutako etxebizitza baten kontratu guztietako titularrei aplikatu zitzaizkien alokairuko eta komunitateko gastuak ordaintzeko salbuespena, betiere, egiaztatzen bazuten, beraien zaurgarritasun ekonomikoa pandemiak zuzenean sortutakoa zela eta horren ondorioz, lan kontratua etenda baldin bazuten edo langabezia egoeran baldin bazeuden.

Era berean, ez-ohiko laguntza ekonomikoen lerro bat ezarri zen [Gaztelagun](#) laguntza programaren onuradunentzat.

Ondoren, COVID-19 birusak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko kalteberatasun ekonomiko eta sozialeko egoerei aurre egiteko etxebizitza libreak alokatzeko laguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten duen Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuaren [2020ko apirilaren 30eko Aginduaren bidez](#), merkatu libreko etxebizitzaren alokairuko errentak ordaintzeko laguntza ekonomikoak arautu ziren. Kasu horretan ere, laguntza horiek, pandemiaren ondorioz beraien lan kontratua edo langabezia egoera zela-eta, zaurgarritasuneko egoera ekonomikoan zeuden pertsonen zuzenduta zeuden.

Bukatzeko, Etxebizitzaren eta garraioen arloan gizarte zaurgarritasun eta zaurgarritasun ekonomikoko egoerei aurre egiteko berehalako neurriak buruzko [abenduaren 22ko 37/2020 Legegintza Errege Dekretua](#) aipatu behar da; horren bitartez, alarma egoeran, ekonomikoki zaurgarriak diren pertsonen kaleratze eta alokairu botatze prozesuak eten ziren. Neurri hori, era berean, titulurik gabe etxebizitzan bizi diren pertsonen aplikatuko zaie, betiere, higiezina, hamar urte baino gehiagoan pertsona fisiko edo juridiko batena izan bada.

Horri dagokionez, Arartekoak [Auzitegi Gorenaren 2020ko azaroaren 23ko Epaia](#) gogorarazi nahi du, garrantzitsua delako. Laburbilduz, epaian zehaztuta dago administrazio publikoek, etxegabetez eta ondorengo botatze prozesua hasien dutenean, babes neurriak ezarri behar dituztela bereziki zaurgarriak diren eta halaberrez kaleratuko diren pertsona horiek babesik gabe ez uzteko, baita higiezina legearen aurka okupatua izan denean ere. Bereziki, administrazioek zaurgarritasun egoeran dauden pertsonak babesteko neurrien inguruko aurreikuspen faltak zehaztu behar du etxebizitzan sartzeko eskaria ukatzen duen erabakia.

2.1.2. Arartekoaren jardunbidea herritarren eskarien aurrean

2.1.2.a) Diru-sarrerak bermatzeko sistemarekin zerikusia duten kexak

Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemak Euskadiko pobrezia eta prekariotasun ekonomikoari eusteko balio handia duela onartzen da. Hala ere, ezin da batera utzi Arartekoari esku hartzeko eskatzen dioten familiek azaldu dituzten

arazoetako batzuk: nekez ase ditzaketela oinarri-oinarrizko beharrak (horiek zehatz-mehatz irakur daitezke txosten orokorrean, gizarteratze arloari buruzko II.4. atalean.

Administrazio publikoen funtzionamenduari buruz aipatu behar da 2020an oso beharrezkotzat eta garrantzitsutzat jo dela **herritarrei emandako informazioa eta komunikazioa hobetzeko beharra**. Arartekoaren zuzeneko arretarako bulegoetan erabiltzaileek bete beharreko legezko betekizunak eta betebeharrak azaltzearen eta argitzearen ezinbesteko lana gauzatu da, izan ere, kasu batzuetan erabiltzaileak babesgabetasun egoeran zeuden eta zailtasunak zituzten zerbitzu publiko eskudunen arreta lortzeko. Alde batetik, araudi asko daude eta betekizunak eta betebeharrak ulertzea zaila da, eta, bestetik, herritar askorentzat ez daude eskuragarri eskubideak eta zerbitzu emateak arautzen dituzten irizpideak, eta, horren guztiaren ondorioz, langile publikoek jasotzen duten prestakuntza eta ematen duten arreta hobetu beharra dago, ez bakarrik kalteak eta erabiltzaileen zor posibleak sortzea ekiditeko, baizik eta erabiltzaileek oinarriko betebeharrak betetzeko ezinbesteko eskubideak erabili ahal izateko.

Hona hemen informazio falta horren adibide bat, kasu honean, prestazio ekonomikoak jasotzea galarazi zuena: euskal emigratzaile bat, 1996az geroztik Ameriketako Estatu Batuetan (AEB) bizi ondoren, Euskadira itzuli zen. Gipuzkoako bere jaioterrian bizitzen jarri bezain laster, bere familia unitatea udal erroldan inskribatzeko eskaria egin zuen. Unitate hori berak, bere emazteak eta bere adingabeko bi seme-alabek osatzen zuten. Diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeko lehen eskaria ere egin zuen. Lanbidek ez zion jakinarazi ez zuela egiaztatu behar eroldako eta benetako bizilekuko hiru urteko aldia (**euskal kolektibitateetako itzulitako kide izaera zuelako**), eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaria ukatu zion. Orobat, ez zion jakinarazi itzulitako euskal biztanlearen ziurtagiria eskatu behar zuela, Eusko Jaurlaritzako Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzan. Lanbideko langileek informazio hori eta orientabiderik ez ematearen ondorio zuzena hauxe izan zen, Arartekoaren ustez: nahiz eta eskubide hori izateko indarreko araudiak ezartzen dituen baldintzak bete eta, Euskadira itzuli ondoren, egoeraren arabera behar objektiboa izan, bi adingabe baitzuten bere ardurapean, kexagileak ez zuen inoiz DSBERik jaso, izan ere, hilabete batzuk igaro ostean, lana aurkitu zuen eta ez zen beharrezkoa izan eskubide hura aitortzea. Arartekoak Lanbideri gomendatu zion, alde batetik, berrazter zezala prestazioa ukatzeko ebazpena, eta bestetik, oro har, hobetu zezala prestazio eskatzaileei ematen dien informazioa DSBEa arautzen duten xedapenetan eskatzen diren betekizun juridikoei eta teknikoei buruz. [Arartekoaren Ebazpena, 2020ko otsailaren 25ekoa](#); ez da onartu.

Administrazio publikoek izapidetzen dituzten espedienteetan dokumentazioa aurkezteko epeak eta aurrez aurreko hitzorduen atzerapenak ere arazoak sortzen dituzte. Horren ondorioz, erabiltzaileek ez dute jakiten nola egin preklusio izaera duen izapidea. Aurten aurrez aurreko arreta eten eta mugatu denez, administrazioaren eta herritarren artean ezarritako komunikazio modu berria

ebalatu behar da eta administrazio publikoen koordinazioa hobetu behar da, horiek eragina baitute pertsonen eskubideetan. Hitzorduen atzerapenak Lanbideren bulegoetan eta udaletako gizarte zerbitzuetan gertatu ziren, eta, beraz, larriagotu egin dira pertsona zaugarrienen arazoak. Arazo horiek guztiak aztertu ziren [Arartekoaren 2020ko azaroaren 5eko 4/2020 Gomendio Orokorrean: Herritarrenganako arreta indartzeko beharra, administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak baliatzean kalteak saihesteko eta bazterkeria digitalaren kontra borrokatzeko neurriak hartzeko larrialdi egoeretan, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko egoeretan, besteak beste.](#)

Kexa askok zerikusia dute **DSBE/EPO jasotzeko eskubidea ukatu, eten edo amaitzearekin**. Erakundeak gai horretaz emandako ebazpenen artean, ez dira gutxi haurrei eragiten dietenak. Horietako batzuek, aurreko urteetan bezalaxe, bereizgarri berbera dute: **araudia** modu estentsiboan edo zorrotzegian **interpretatzen** dela, Arartekoaren ustez. Horrela, Lanbidek DSBEaren eskaera bat ukatu zion herritar bati, **modu estentsiboan interpretatu baitzuen** urtebetez prestazioa eskatzeko ezintasunari buruzko arauzko xedapena, izan ere, Lanbideren iritziz, bere amarekin batera bizikidetzaren unitatea osatzen zuenez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun izan zen eta prestazio hori iraungi egin zen, seme bat izan zuela jakinarazi ez zuelako. Kexagilea adingabea zenean eta bere amak azpierreantatutako logela batean amarekin bizi zenean, haurdun geratu zen. Une hartan, bere amak horren berri eman zion Lanbideri, eta prestazioa amaitzea erabaki zuten, aurretiaz ez zuelako jakinarazi bere alabaren eta umearen aita izango zenaren arteko ustezko harremana. Prestazioa amaitzeko ebazpen egunaren aurretik, kexagilea bere umearen aitaren etxera joan zen bizitzera, eta, ondoren izapidetu zuen kexaren hizpide den diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaria. Enpleguko erakunde autonomoak eskaria ukatu zuen, aurreko azkentzetik ez zelako urtebete igaro. Arartekoak zalantzan jarri zuen amaren prestazio azkentzea, eta azpimarratu zuen araudian aurreikusita dagoela prestazioa jasoko dutela ordura arte titularra zen pertsonari zegokion diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea iraungitzeak edo mantentzeak ageriko kalteak ekartzen badizkie bizikidetzaren unitateko gainontzeko kideei. [Arartekoaren ebazpena, 2020ko irailaren 28koa; onartu egin da.](#)

Bigarren jardueran, Lanbidek DSBE/EPO azkentzea erabaki zuen, interesdunak bere seme-alabentzako elikagaien pentsioa jasotzeko eskubidea baliatu ez zuelako eta bere baliabideak ez zituelako modu arduratsuan erabili. Horri dagokionez, Lanbidek uste zuen interesdunak DSBEaren dirua dohaintzan eman zuela.

Gai horri dagokionez, Arartekoak adierazi zuen espedienteetan jasotako dokumentazioa aztertuta zalantzarik zela interesdunak bere seme-alaben pentsio eskubidea baliatu ez izana, eta adierazi zuen pentsioa bi hilabetez ez ordaindu ondoren modu judizialean horren betearazpena eskatzea **Lanbideren interpretazio zorrotzgitik sortutako ondorioa zela** (erakunde horrek horren bitartez diru-sarrerak bermatzeko errentaren xedea hutsaltzen baitu). Era berean,

eta kexagileak bere baliabideak arduraz erabili ez izana aurpegiatzearen inguruan honakoak adierazi behar dira: Arartekoak Lanbideri gogorarazi zion Administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearen [urriaren 1eko 39/2015 Legearen 77.2 artikuluekin](#) bat eginez, probaldia ireki beharko lukeela susmo batean oinarritutako erabakia hartu ordez. Beste behin ere berretsi zuen kontuan hartu behar direla adingabeen interes gorenak erabakiok umeei eragin diezaieketenean. [Arartekoaren ebazpena, 2020ko ekainaren 5koa](#); ez da onartu.

Iaz [Arartekoaren 2020ko urtarrilaren 10eko Ebazpena](#) aipatu genuen, bereziki zaugarria den kolektibo bati buruzkoa: **indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak**. Arazo berdina Lanbideren beste ebazpen eta bileretan jorratu izan da. Azterketa horren ondorioz, Lanbideri proposatu zaio bere erabakian genero indarkeriako egoeretan ordaintzen ez den mantenu pentsioa betearazteko demandari lotutako arriskuaren eta efikaziaren arteko oreka zenbatzeko; ildo berean, mantenu pentsioa ez ordaintzea auzitegiaren behin eta berriz salatzen duen eskakizuna aztertzeko eskatu da. Gainera, proposatu da abian jar daitezkeen gizarte zerbitzuekin koordinatzeko beharrezkoak diren neurriak arretaren jarraitutasun printzipioa betetz, genero ikuspegia txertatuz eta, hala badagokio, ekintza positiboak sustatuz, zerbitzu publiko batek adostutako ekintzak ez daitezkeen eragingabeak izan beste batekin koordinatzeko zailtasunak direla-eta. Azkenik, Arartekoak araudia aldatzea iradokitzen du, baliabide nahikorik ez duten eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izateko baldintzak betetzen dituzten indarkeria matxistaren biktimak modu eraginkorrean babesteko. Hori guztia egin arren, ez dugu egoeraren larritasunarekin bat datorren eta sail eskudunari bidalitako gomendioak betetzen dituen erantzunik jaso.

Beste kasu batea, prestazioa amaitu zen, baina lortzerik ez zegoen agiri batzuk eskatu zirelako. Lanbidek DSBEa amaitu zion bere bi biloben jagoletza zuen 69 urteko emakume bati, ez baitzuen aurkeztu biloben ondasunen inventarioaren kopia zehatza, aurretik epaitegian aurkeztu zuena. Eskatutako ondasunen inventarioa egitatezko jagoletzaren espediente judizialean txertatuta zegoen, eta, ondorioz, kexagileak Lanbideri azken horren testigantza eman zion, edozein kasutan baliabiderik eza frogatzen zuena. Kasu honetan, Arartekoak Lanbideri gogorarazi zion **administrazioak ezin duela era arbitrarioan edozein agiri eskatu**; aitzitik, ebazpena emateko oinarritzat hartu behar diren datuak zehazteko ezinbestekoak direnak soilik eskatu ahal ditu. Halaber, gogorarazi zion adingabearen interes goren aintzat hartu behar dela haurrei eragiten dieten erabakiak hartzerakoan. [Arartekoaren Ebazpena, 2020ko uztailaren 14koa](#). Ez da onartu.

Beste kexa multzo bat ere prestazioak eten eta amaitzeak eragin du. **Zor handiak sortzearekin** dute zerikusia, eta zenbait kasutan, bizikidetzaren unitatearen ahalmen ekonomikorako egokitutako zatikatzea ez onartzearekin.

Kexetan adierazi da kopuru handia erreklamatzeko zietela, geroago egindako berrazterketan betekizunen bat betetzen ez zela egiaztatzen delako. Arazoa da prestazioak

itzultzeko betebeharrak duten pertsona horiek egoera oso zaurgarrian bizi direla, izan ere, espediente gehienetan itzulketak ez egitea kontu formalekin lotuta zegoen, ez baliabide ekonomikoak ezkutatzearekin (adibidez, pentsioak ez ordaintzeagatik betearazpeneko demanda judizialik egin ez delako, dirulaguntzarik eskatu ez delako, eta abar) edo betebeharrak ez betetzearekin. Arartekoak askotan proposatu du **berriaz azter dadila jarduera, alde handia baitago jokabidearen balio galtzearen eta zorraren artean, askotan gehiegizkoa.**

Alaba bat bere ardurapean duen banandutako emakume baten kasuan, iradokizun bat egin zaio [Bizkaiko Foru Aldundiari](#), zorra zatikatzeko eskaera dela eta. [Arartekoaren 2020ko uztailaren 20ko ebazpenaren](#) bidez, aipatutako administrazioari iradoki zaio aldatu ditzala bere Diru-bilketa Erregelamenduaren aurreikuspenak, zaurgarritasun-egoeran dauden familiek Foru Ogasun horrekin pilatzen dituen zorrak modu zatikatuan duintasunez ordaindu ahal izan ditzaten.

Aztertu diren espedienteetako kopuru handi batean eragin handia duenez gero, aipatu beharra daukagu **oso garrantzitsua dela diru-sarrerak bermatzeko sistemaren eta gizarte-zerbitzuen sistemaren arteko koordinazioa.**

[Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuan](#) aurreikusita dago gizarte txosten batzuk aurkeztu behar direla zaurgarritasun egoerak egiaztatzeko; txosten horiek ez dira sortzen ez interesatuak eskatuta ez ofizioz, Lanbidek dagokion udalari horiek idazteko eskatu ondoren. Baliteke arazoaren muinta Dekretua [azaroaren 24ko 4/2011 Legea](#) egokituta ez egotea izatea, baina Arartekoak berretsi du sistema bien arteko koordinazioa hobetu behar dela, izan ere, gizarteratzeko arazoak dituzten pertsona askorekin lan egiten baita; besteak beste, 2017an [diagnostiko-txostena](#) egin zuen Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren kudeaketari buruz.

Arartekoak gizarte-zerbitzuei ere egin die [gomendio orokor](#) bat, hain zuzen, udalaren gizarte-zerbitzuei, **erabilgai-leek gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) eskatzen dituztenean, udaletako gizarte zerbitzuek ematen ditzakien erantzunak aztertzeko**, izan ere, kasu batzuetan jakinarazi zitzaizkien gizarte larrialdietarako laguntzak ukatu egingo zitzaizkiela diru-sarrerak bermatzeko errenta edo diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko betekizunak betetzen zitzutelako, eta hori albo batera utzita horien kudeatzaileak, hau da, Lanbidek, prestazio horiek eten edo iraungi izana. Dirudienez, ez lirateke kontuan hartuko ezta ere inguruabar hauek: etenaldien iraupena, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskaerei beharrezko denboran ez erantzutea, ezta etete edo iraungitze ebazpen baten aurrean aukerako berraztertze errekurtsoa ebazteko zain egotea.

Arartekoak informazioa eskatu zuen 21 udaletan eta [Arabako Foru Aldundian](#), izan ere, Arabako udalerrri gehienek gizarte-larrialdietarako laguntzen kudeaketako eskumenak eta funtzioak foru administrazio horri eskuordetu baitzikiote.

Erakunde honetan egindako azterketan udalek azaldu-tako arazo horiei emandako erantzunak jasotzen dira eta udaletako gizarte zerbitzuek gizarte bazterketa egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden pertsonen eman beharreko arretan duten zereginaren inguruan eta aurrekontu kontsignazioa, gizarte-larrialdietarako laguntzen izaera edo Lanbideekin dagoen lankidetzak kontuan hartuz, gizarteratzea sustatzearen inguruan hausnartu da. Arartekoak ondorioetan honakoak azaldu ditu, besteak beste: gizarte-larrialdietarako laguntzen araubidea askotarikoa eta konplexua da, izan ere, kontzeptu zehatzak eta askotarikoak ezartzen ditu eta diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria/gizarte-larrialdietarako laguntzaren titularrentzako bateragarriak diren eta ez diren zenbaterakoak ezartzen ditu, urtero araubide espezifikoak argitaratzea eskatzen du, eta askotariko erakundeetako eta sailetako mailek esku-hartu behar dute, erakundeen artean eta barnean, urtero erabiltzen diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak handiak direlarik. Gomendioan azaltzen da garrantzitsua dela udaletako gizarte zerbitzuen eta Lanbideren artean koordinazioa eta lankidetzak egotea, hala bermatzeko kolektibo horri zuzendutako administrazio jarduketak eraginkorrak direla. Txostenaren bukaeran EAEko udalei gomendatzen zaie gizarte-larrialdietarako eskariak izapidetzean modu indibidualizatuan egiaztatzeke ea **beharraren egoera erreal eta larrialdikorik dagoen eta ea laguntza horiek egokiak diren egoera konpontzeko**, bestiere, adingabeen interes gorena kontuan hartuz. Arartekoak, gainera, udaleko gizarte zerbitzuek bizirauteko diru-sarrera ekonomikorik edo etxebizitzarik ez duten pertsonekin lan egitean dituzten zailtasunak azaltzen ditu, izan ere, egoera horretan zaila da gizarte zerbitzuek beraien benetako funtzioa den gizarte esku-hartzea gauzatzea, hau da, elkarrekintzarekin eta gizarteratzeko laguntzarekin zerikusi gehiago duena; are gehiago COVID-19 pandemiaren ondorioz sortutako osasun krisia dela-eta ezarritako neurrien inpaktua kontuan hartuz. Egoera horren guztiaren ondorioz, agerian geratu da garrantzitsua dela udaletako gizarte zerbitzuak sendoak, biziak eta hurbilekoak izatea familia eta pertsona zaurgarriei arreta egokia emateko.

2.1.2.b) *Etxebizitzari buruzko demandak*

Beste alde batetik, ezin zaio ekin pobrezia errealeko egoeran, pobrezia pairatzeko arriskuan edo ongizaterik gabeko egoeran dauden haur eta nerabeen errealtateari buruzko Arartekoaren jardunaren atal honi **etxebizitzaren** esparruan egindako esku-hartzeak aipatu gabe. Gainera, 2020an etxebizitzak funtsezko eginkizuna hartu du COVID-19aren birusaren kontra defendatzeko, izurria kontrolatzeko hartu diren murrizketa-neurriekin lotuta (herritarrek mugitzeko eta aske zirkulatzeko murrizketak). [Nazio Batuen Erakunde](#) orduko kontalari bereziak [etxebizitza egokiaz esan zuenaren arabera](#), etxebizitza “koronabirusaren kontrako lehenbiziko defentsa-lerroa” bihurtu zen.

Testuinguru berri horrek eztabaidan jarri du edo, nahiago bada, eztabaida biziagotu du etxebizitza egokiak izan behar dituen ezaugarri eta baldintzen gainean. Hala ere, 2020an ez da berrietasun handirik izan herritarrek kexen edo kontsulten bidez jakinarazi dituzten gai garrantzitsuenei dagokienez.

Babes publikoko etxebizitza eskuratzeari eta errentarien eta administrazio eta erakunde publiko errentatzaileen arteko eztabaidei buruzkoak dira erreklamazio gehienak.

Aurreko urteetan bezalaxe, herritarrek behin eta berriz egin dituzte gai honi buruzko kexak eta kontsultak: premiaz babes publikoko etxebizitza bat alokairu erregimenean behar dutela, eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ez diela behar bezala erantzuten beraien eskaerei. Ildo horretatik, Arartekoa arduratuta dago babes publikoko etxebizitzaren eskatzaile kopuruaren igoerarekin. Izan ere, [Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2020ko](#) abenduan egindako txostenaren arabera, 6.613 pertsona gehiagok eman dute izena aurten erregistro horretan eta, guztira, 76.792 inskripzio egin dira. Horietatik, 59.965ek alokairuko etxebizitza bat eskatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan. Beraz, eskaera guztien %78 dira babes publikoko etxebizitza alokatzeko eskaerak.

Hala eta guztiz ere, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2020ko irailean egindako txostenaren arabera, 2019an, alokairu parke babestua 23.594 etxebizitzek osatzen zuten. Datu horrek, aurten ere, agerian uzten du herritarrek behar dituztenak baino askoz etxebizitza gutxiago dauzkatala eskura administrazio publikoek.

Hori horrela, 2020an, Ararteko erakundeak hainbat erreklamazio jaso ditu, eta, egiaztatu diren kalteberatasun egoera bereziak direla eta, hainbat udaletako gizarte zerbitzuek etxebizitzaren ezohiko adjudikazioa proposatzea erabaki dute.

Atal jakin honetan, Arartekoak [Ortuellako Udalak](#) pandemia bete-betean egin duen jarduna azpimarratu nahi du. Zehazki, [Arartekoaren 2020ko ekainaren 29ko Ebazpenaren](#) hizpide izan zen erreklamazioan, erakundeak bi adingabek osaturiko familia baten premia larriko egoera aztertu zuen. Familia hori, udalerriko poligono batean aparkatuta zegoen bere jabetzako ibilgailu batean bizi behar izan zen.

Azaldutako egitateak ikusita eta Arartekoak hainbat jarduketara egin ondoren, Ortuellako Udalak, azkenean, babes publikoko etxebizitza bat adjudikatzeko prozedura arruntetik salbuetsi zuen familia eta etxebizitza duin eta egoki bat adjudikatu zion, horrelako etxebizitza bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa bermatze aldera.

Hala ere, udal gizarte zerbitzuek behin baino gehiagotan gomendatu izan diote [Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuordetzari](#) zuzenean adjudikatu dezala etxebizitza bat, baina kasu guztietan ez dute lortu.

Hain zuzen ere, [Arartekoaren 2020ko maiatzaren 7ko Ebazpenean](#) Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza sailburuordeak familia bat babes publikoko etxebizitza bat adjudikatzeko prozeduratik salbuetsi izana aztertu da. Familia horretan, bizikidetzaren unitatea osatzen zuten hiru adingabeetatik bik ibiltzea eragozten zien endekapenezko gaixotasun larri bat zuten.

Laburbilduz, Arartekora bidalitako kexa idazkiak agerian utzi zituen familiak oinarrizko egunerokotasuneko zereginak gauzatzeko zituen zailtasunak, besteak beste, seme-alaben garbitasuna egiteko. Izan ere, jakinarazi zuten, etxeko korridorearen eta komunaren tamaina zirela-eta, udal kiroldegian dutxatu behar zirela. Horregatik, kexagileak, [Gure Señeak](#) elkartearen aholkuei jarraituz eskari bat egin zuten, eta horren xedea da gaixotasun arraroak eta desgaitasun egoera bereziak dituzten umeen bizi kalitatea hobetzea, eta, horregatik joan zen udaleko gizarte zerbitzuetara laguntza bila. Era berean, oinarrizko gizarte zerbitzuek txostena egin zuten, eta bertan gomendatu zuten etxebizitza duin eta egoki bat adjudikatzeko familia horrentzat. Nolanahi ere, etxebizitza sailburuordeak eskaera ukatu zuten.

Ukapen hura berriz aztertzeko gomendatu zuen Arartekoak, baina ebazpen hura ere ez zuten onartu.

Betekizunak egiaztatzeari eta adjudikazio prozedurari buruz adierazitako gai zehatzei dagokienez, Arartekoak egitatez banandutako pertsonen edo dibortzio izapidetzeak egiten ari direnek [“Etxebide”](#) babes ofizialeko etxebizitzaren eskatzaileen erregistroan elkarbizitza unitate independente gisa izena emateko eta babes publikoko etxebizitza baten adjudikazioan parte hartu ahal izateko izan ohi dituzten zailtasunak azpimarratu nahi ditu. Inguruabar horietarako sarbide betekizunak [2020ko Arartekoaren ekainaren 3ko, ekainaren 12ko eta urriaren 27ko ebazpenetan](#) aztertu ziren.

Hain zuzen ere, Arartekoak egiaztatu du sailak banantzeari edo dibortzioari buruzko behin betiko ebazpena aurkezteko eskatzen duela, edo, adingabeak ardurapean izanez gero, dagokion hitzarmen arauemailea berresteko, erregistroan banakako inskripzioa errazte aldera. Hala ere, bikote lotura haustea erabakitzen denetik gauzaten denera arte, sailak banaka inskribatzea eragozten duen aldi bat igarotzen da, nahiz eta lotura hautsi dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu. Adibide gisa, Arartekoak egiaztatu du, sailak ez duela inskribatzeko baliozkotzat jotzen indarrean dagoen errentamendu kontratu bat entregatzea, erroldatze bereiziaz egiaztatzea edo ezkontza desegiteko izapide judizialak hasi direla egiaztatzea. Era berean, erakunde honek egiaztatu du sail honek ere ez dituela onartzen egoitza judizialean ezkontza eraginkorki desegin arte gerta daitezkeen luzamenduak.

Hala ere, bitartean, etxebizitza babestuen eskatzaileen erregistroak bertan inskribatutako pertsonen benetako etxebizitza premiekin bat ez datorren errealitate desberdina erakusten du. Horrez gain, banatzeko izapideak hasten direnetik behin betiko epaia edo gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak ezartzen diren arte, nahi ez diren egoerak gerta daitezke, eta gertatzen dira, etxebizitza babestuen eskatzaile gisa batera inskribatzea nahitaetzkoa delako, nahiz eta bi pertsonen artean lotura ziurrik ez egon.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak, aurretik aipatutako ebazpenen bitartez, sailari proposatu zion aldi baterako banakako inskripzioen egoera iragankorrek aplikatzea ezkontza-hausturen edo antzeko hausturen ondoren, lotura desegiteko jarduketak hasi izana behar bezala justifikatzen

den kasuetan eta gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak ezartzeko epaiak edo ebazpenak behin betiko lortu arte. Horrela, erregistroak kolektibo horren etxebizitza beharizan jakinen egiazko emaitza erakutsiko luke.

Arartekoak gogoetak egin arren, sailak ez du onartu Arartekoak egindako azterketa eta analisi proposamena.

Aurten ere zenbait pertsonaren kexak aipatu behar dira. Pertsona horiek errentan hartu zuten babes publikoko etxebizitza bat, baina etxebizitzak ez zuen betetzen familia unitateko kide bakoitzeko 15 m²-ko ratioa eta, beraz, bertan gehiegizko okupazioa zegoen; horrela bada, ez dute baliatzerik izan etxebizitza duin, egoki eta ekonomikoki eskuragarria izateko eskubide subjektiboa.

Kontu zehatz horri dagokionez, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du bai etxebizitza arloko lurralde ordezkariak, bai [Alokabide](#) sozietate publikoak eta [Bilboko Udaleko "Udal Etxebizitzak"](#) toki erakunde autonomoak, funtsean, banan-banan azter ditzaten gehiegizko okupazioaren zergatiak, eta beste etxebizitza bat esleitzen, ahalik eta lasterren.

Era berean, Arartekoa kezkatuta dago, izan ere, indarrean dagoen araudian jaso gabeko betekizun berriak gehitu dira. Zehazki, erakunde honek ikusi du, egoera kezkarri dela egiaztatu arren, Alokabide sozietate publikoak alokairu kontratua bukatzearen menpe jartzen duela birkokatzea. Gainera, zenbait inguruabarretan, alokairuaren bukaera ez da aurreikusten urte batzuk igaro arte.

Horri dagokionez, zenbait ebazpen bidali dira, baina sailak azkenean ez ditu onartu. Hala, [Arartekoaren 2020ko ekainaren 5eko](#) eta [ekainaren 29ko ebazpenetan](#) kezka larria egiaztatu arren, ez ziren onartu errentariak babes publikoko etxebizitzetan birkokatze eskariak.

Laburbilduz, etxebizitza babestuen parkeko etxebizitza aldatzeko eskatzen zuten errentarien kopurua geroz eta handiagoa dela ikusita, erakunde honek ohartarazi nahi du "etxebizitza-ibilbideei" buruzko araubide berria ezarri behar dela, Etxebizitzari buruzko [ekainaren 18ko 3/2015 Legearen](#) 39. artikuluan agindutakoaren babesean. Halaber, sumatzen denez, komenigarria izango litzateke administrazio publikoek, logela premiari lotutako beste egoera batzuei erantzuna ematea alde batera utzita, behar diren baliabideak jartzea, etxebizitza babestuaren ibilbideak gauzatu daitezten eta gizarte alokairuko etxebizitzak pertsona eta familia errentarien beharretara egokitu daitezten bizitzako etapa guztietan.

2.2. Hezkuntzarako eskubidea

28. artikulua

1. *Estatu kideek haurrak hezkuntzarako duen eskubidea onartzen dute (...).*

29. artikulua

1. *Estatu kideek haurraren hezkuntza honetarako bideratu behar delakoan daude:*

a) *Haurraren nortasuna, gaitasunak eta ahalmen fisiko eta mentala ahal den guztia garatzeko;*

b) *Giza-eskubideei eta oinarrizko askatasunei eta Nazio Batuetako Agirian azaltzen diren printzipioei buruzko errespetua irakasteko haurrari;*

c) *Bere gurasoenganako, bere kultura-nortasunarenganako, bere hizkuntza eta baloreenganako, bizi den estatuko baloreenganako, jatorrizkoa duen estatuko baloreenganako eta bere zibilizazioa ez diren zibilizazioarenganako errespetua irakasteko haurrari;*

d) *Haurra, gizarte aske batean, elkar ulertzeko izpirituarekin, bakearekin, tolerantziarekin, sexuen berdintasunarekin, eta herri, talde etniko, nazional, erlijioso eta indigena jatorria duten guztiekin adiskidetasunez eta zentzuz bizitzen prestatzeko;*

e) *Haurrari ingurugiro naturalarekiko errespetua irakasteko.*

2.2.1. Arau- eta gizarte-testuingurua

Baieztatu dezakegu hezkuntzaren arloa COVID-19aren pandemiaren urtean kalte gehien sufritu dutenen artean dagoela, izan ere, hezkuntza jardueraren, familien, ikasleen, irakasleen eta irakasleak ez diren langileen, zuzendaritza taldeen eta ikas-tetxe guztien egunerokotasunean askotariko ondorioak sortu dira. Horri dagokionez, 2020. pandemiaren urtean, COVID-19a izan da bi ikasturte akademikoen protagonista eta hala izaten jarraitzen du: 2019-2020 ikasturtearen bukaerakoa eta 2020-2021 ikasturtearen hasierakoa, hain zuzen ere.

Hezkuntzaren arloan egon diren gatazka nagusiak, paradoxikoa izan arren, hezkuntza administrazioek (EAEkoak barne) ezarritako bi kontrako neurrien ingurukoak izan dira: lehenengoa, 2019-2020 ikasturte amaieran ikasgele-tako aurrez aurreko jarduera etetearen erabakiena da eta bigarrena, 2019-2020 ikasturte hasieran ohiko hezkuntza jarduera berreskuratzearen erabakiarena, ikasleak orokorrean ikastetxeetan ikasiz, hain zuzen ere. Bi inguruabar horiek mugatutako espazio zabalean garatu behar izan da administrazio kudeaketa. Abiapuntu horrek agerian uzten du eta azaldu egiten du administrazioek krisiari aurre egiteko emandako erantzunen bestelakotasuna, eta aniztasun

hori kexagileek aurkeztutako askotariko idazkietan agertu da baita ere.

Testuinguru horren oinarrietako bat presentzialtasuna/ez presentzialtasuna da, eta esparru teorikoaren abiapuntutzat hartu behar da, izan ere, jakina den moduan, praktikan (eta bereziki ikasgelei buruzko neurrietan) ezarritako administrazio erabakiak malguak izan behar ziren egoera aldakorretara egokitu ahal izateko, osasun larrialdiaren bilakaera eta ikastetxe bakoitzeko ezaugarrien arabera horrek izandako bilakaera kontuan hartuz: hezkuntza mailak, eskuragarri zeuden espazioak, emandako zerbitzu osagarriak (garraioa eta jantokia) eta giza baliabideak eta baliabide materialak. Ziurtasun gutxiago eta zalantzagarritasun askoko aldia da.

Neurriak nagusiki Eusko Jaurlaritzako [Hezkuntza Sailak](#) sortutako protokoloen bitartez ezarri dira, zeintzuek pandemiaren ez-ohiko egoeragatik xedatutako araudiaren babesean, hezkuntza publikoaren zerbitzua ematen jarraitu ahal izatea ahalbidetu duten ekidin ezin daitezkeen eraginekin, betiere berrmatuz hezkuntza eskubideak urratzen ez zirela; ez dugu ahaztu behar aldaketa horiek direla-eta ondorioak sortu direla ez bakarrik eskola biztanlerian eta hezkuntza komunitateko kideetan, baizik eta alarmaren tamaina dela-eta, bizilagun guztietan.

2020an, bestalde, Hezkuntza Sailaren zuzendaritza taldeko kideak aldatu dira uztaileko hauteskundeen ondoren Eusko Jaurlaritza berria sortu eta gero.

Sailburu berriak, berak hala eskatuta, Hezkuntza Batzordearen aurrean hitz egin zuen legebiltzarrean urriaren 28an [XII. Legealdian Hezkuntza Sailaren jardun-ildo nagusien berri emateko](#). Horien artean nabarmentzekoa da hezkuntza lege berri bat onesteko asmoa adierazi zuela elkarriketa, konpromisoa eta erantzukizuna oinarri hartuz hezkuntza hitzarmen berria finkatzeko.

Estatuan, eztabaida sakona egon zen orain dela gutxi Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen [abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa](#) onetsi aurretik. Zioen azalpenean jasota dagoen moduan, lege horren xedea da Hezkuntza kalitatea hobetzeko [abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa](#)n sustatutako aldaketak lehengoratzeko eta derrigorrezkotzat jotzen diren aldaketak gehitzea hezkuntzaren egungo erronkei aurre egiteko, Europar Batasunak eta UNESCOk 2020/2030 urteetarako finkatutako helburuekin bat eginez.

2.2.2. Kexatzeko arrazoiak

2020an, COVID-19aren pandemia egoera dela-eta, erakunde hau zuhurra izan da jasotako kexen eraginpekoak ziren administrazioei laguntza eskatzerako orduan, bereziki alarma egoera deklaratu ondorengo hasierako asteetan, jakina den moduan, larriki baldintzatu baitzen erakunde publiko guztien ohiko jarduerak.

Horri dagokionez, Arartekoa izan da administrazio publikoekin zituen izapidetzeetan epeak malgutzeko ekimena ezarri duena eta modu paraleloan, kexak aztertzeke eta ebazteko hain formak ez diren bideak gaitu dituen.

Gainera, 2020an, aurreko apartatuan adierazi bezala, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko zuzendaritza lantaldea aldatu zen.

Inguruabar horiekin, kontu askoren izapidetzea gehiegi luzatu zen, ez bakarrik pandemiarekin zerikusia duten kontuengatik (ikastetxeetan ezarritako protokoloak, eta abar), baizik eta pandemiarekin loturarik ez duten bestelako kontuengatik baita ere (Bilboko Ikastetxe Alemanean gaztelania eta euskara eta espainiar eta euskal kultura ikasketak ezartzea, eta abar). Arartekoak espero du arazo horiek hurrengo hilabeteetan jorratzea.

Lehenengo gogoeta egin ondoren aitortu behar da arazoak arazo, administrazioaren ohiko jarduerak aldatu izan zen lehenengo hilabeteetan, zenbait kasutan ezarritako baliabide informalei esker erakunde honetako eskariak jorratu eta bete direla, besteak beste, **jantokietako bekei** buruzkoa. Hezkuntza arduradunek bereziki lankidetzan aritzeko prestatutasuna izan zuten gai horretan eta ez zuten zalantzarik izan neurriak ezartzeko. Neurri horien artean dago ikastetxetara bidalitako instrukzioa, berehala beken familia onuradunei jantokiko gastuen laguntzak ordain diezazkieketen.

Era berean, ohiko moduan izapidetu dira aurrez aurreko irakas-kuntza martxan jarri ondoren egindako kexa batzuk; kexa horiek, ardurak pertsonalak eta lanekoak bateratzeko ezinbestekoa bihurtzen ari den zerbitzu osagarri batekin lotutakoak izan dira, hau da, **eskola jantokiaren** zerbitzuarekin.

Illo berari jarraitu dio hezkuntza arloan oso ohikoak diren kexen izapideak, honakoei buruzkoak: **ikasleak onartzeko gaiak, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntzak** (horietako batzuk zehatz-mehatz aztertuko ditugu aurrerago) eta erakunde honek aurretiaz jardun duen gainerako kexak. Azken hori izan zen kexa baten hizpide, non anai-arreba bikiak ikasgela berean edo ezberdinetan eskolaratzearen gaia jorratzen zen. Beste kasu batzuetan bezala, familien ikuspegia eta hezkuntza administrazioaren kontrakoak ziren; familiak ohiko moduan bikiak ikasgela berean egotearen aldekoak izaten dira, eta, hezkuntza administrazioa espazio ezberdinetan egotearen aldekoa izan ohi da. Arartekoak, aurreko esku-hartzeak direla-eta, gai horri buruz duen iritzia eman du, modu laburtuan hauxe adieraziz: ikastetxeen eta familien artean desadostasunak dauden kasuetan, kontuan hartu behar dira, beste alderdi batzuen artean, familien nahiak. COVID-19ak izan duen eragina albo batera utzi gabe, biki biren kasuaren berri izan genuen; ikastetxeak hasieran ezarritako irizpidea albo batera utzi, azkenean ikasgela berean ikasten daude, familiak nahi bezala.

Beste kasu batzuk aipatu behar dira aldeko ebazpena izan dutelako, nahiz eta zuzenean Hezkuntza Saillarekin loturarik ez izan. Hala, pandemiak hezkuntza agindu askotan izan duen eragina **unibertsitateko ikasketak egin ahal izateko** kexa batzuen hizpide izan da. Zehazki, Batxilergo ikasketak bukatzen ari ziren ikasle batzuen kasua izan zen, zeintzuek Batxilergoa

bukatu ondoren, 2020-2021 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitatean ikasi nahi zuten, Haur Hezkuntzako Gradua eta Lehen Hezkuntzako Gradua, zehazki. Ikasketa horiek gauzatu ahal izateko baldintzetako bat egun jakin batean euskararen hizkuntza ezagutzak (B2 maila) egiaztatzeke ziurtagiriak izatea zen. Horretarako, betekizun hori betetzen ez zuten ikasleek, pandemiaren aurretik unibertsitatez kanpoko erakundeek antolatutako azterketak egiten zituzten, baina pandemiaren ondorioz azterketa horiek atzeratu behar izan zituzten, eta beraz, ikasleek ezin zuten egiaztatu edo arazoak izan zituzten epearen barne egiaztatzeke probak gainditu zituztela. Azkenean, unibertsitateak erabaki zuen 2021-2022 ikasturterako betekizun hori atzeratu egingo zuela, eta horrela konpondu zen arazoa.

Edonola ere, aitortu beharra dago hezkuntza arduradunek karga eta presio handia izan dutela COVID-19aren pandemiak hezkuntzan sortutako arazo larriak kudeatzeko, eta, behar bada horregatik ezin izan dira jorratu Arartekoak azken urteetan aipatutako beste gai batzuk; hala ere, sailburuak Eusko Legebiltzarrean egindako esku-hartzean onartu zuen pandemiak agerian utzi duela euskal hezkuntzaren eredia hobetzeko beharra dagoela testuinguru ekonomiko eta sozial berriari aurre egiteko.

Gai guztien artean nabarmendu nahi dugun beste bat **eskola segregazioari** aurre egiteko arazo larriari jorratzeko dauden erronken da.

Aurreko urteko txostenean bereziki aipatu genuen Ordizian gertatzen ari dena; udalari horretan desoreka argia dago Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleak eskolatzean. 2019ko azaroan, erakunde honek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari gomendatu zion ebaluatzeko hartutako plangintza erabakiak, eta hala bazegokion, zehazteko ikasleen banaketa orekatuagoa izateko neurri zuzentzaileak. Hezkuntza Sailak orduan adierazi zuen gomendioa beteko zuela, baina egia dena da erakunde honek jarraipen lana egin arren, dirudienez sailak orain arte ez duela aurrerapausorik eman. Ondorioz, Arartekoak jarduketa gehigarria hasi du 2020-2021 ikasturterako ezarritako ikasleen onarpen prozesua aztertzeke.

Eskola segregazioak sortutako hezkuntza eta gizarte desberdintasuneko egoera horiek bereziki kezkarriak dira orain dela gutxi sortutako ekimen batzuetarako, besteak beste *“Euskal Eskola Publikoaz Harro”* delakoarentzako; ekimen horretako ekarpenak eta sektoreko agenteek egiten dituzten gainerakoak elkarrizketa, konpromiso eta erantzukizun estrategian baloratu eta aztertu beharko lirakeke oso beharrezkotzat jotzen den hezkuntza hitzarmen berri bat sortzeko aurrerapausoak eman daitezten.

2.2.3. Kexarik aipagarrienak

2.2.3.a) Eskola mapa - Bilboko I. Barrutia

“Deustu Barria” izenez ezagutzen den eremuan bizi diren familia batzuk kexa bat aurkeztu zuten erakunde honetan hezkuntza plangintzan ezarritako aldaketa batzuk zirela-eta (Bilboko I. barrutiko eskola mapa), zeina erreferentzia gisa

erabiliko zen 2020-2021 eskola ikasturtean ikasleak hautatzeko prozesuan. Familia horiek uste zuten aldaketa horiek aukerak kentzen zizkietela baldintza berdinekin beraiek nahi zuten ikastetxeetan matrikulak egin ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ordezkariekin egin dako lehenengo esku-hartzean, erakunde honek jakin zuen aldaketa horiek egin zituztela Onarpen Bermeen Batzordeak CEIP Arangoitiko ordezkariak aurkeztutako alegazio bat onetsi ondoren, zeintzuek defendatu zuten I. barrutitik banatutako eragin eremu berezi bat mugatu behar zela ikastetxeak ohiko moduan funtzionatzen jarraitzen zuela ziurtatzeko.

Edonola ere, hezkuntza plangintzan edo programazioan ezarritako aldaketak sakontasun gehiagorekin aztertu ondoren, erakunde honek baloratu zuen honako oharra egitea beharrezkoa zela:

“(…) egia da legezkotasun hertsia ikuspegitik azkenean onartutako zonakatzek betetzen duela urtarilaren 9ko 1/2018 Dekretuaren (ikasleak onartzeari eta eskolatzeari buruzkoa) 9.1. artikuluan ezarritakoa. Hala ere, kexatu diren familien bizilekuak gutxienez ikastetxe jakin baten eragin-eremuan daude (Arangoiti HLHI), eta, beraz, aitortu beharra dago azken zonakatzek horrek gutxitu egin dituela Arangoiti aldeko balizko ikasleak onartzeko aukerak, argudio bakar bat oinarri izanik: familien bizilekuk hurbil dauden ikastetxeetan eskolatzea bultzatzea. Argudio hori benetan bultzatu nahi izanez gero, I. barrutiko beste eremu batzuetara zabal zitekeen (aurreko ikasturteetan hala egin zen), eta ez da hala egin; aitzitik, ikastetxe publikoetan zein itunpeko ikastetxe pribatuetan onartuak izateko aukera eman zaie barruti horretako beste eremu batzuetako ikasleei.

Izan ere, Arangoiti inguruko ikasleek ez bezala, barrutiko gainerako ikasleek aukera izan dute 5 puntu eskuratzeko familiarren bizilekua ikastetxetik hurbil egiteagatik, bai ikastetxe publikoetan sartzeko, bai itunpeko ikastetxe pribatuetan sartzeko. Txostenean bertan aitortzen denez, Arangoitin bizi diren ikasleei 5 puntu baino ez zaizkie eman Arangoiti HLHI-n sartzeko, eta barrutiko funts publikoekin sostengatutako gainerako ikastetxeetan sartzeko, berriz, 2 puntu.

Erakunde honen iritziz, hezkuntza-administrazio horrek beharrezkotzat jotzen badu ikasleak familiarren bizilekuk gertu dauden ikastetxeetan eskolatzea, estrategia hori ahalik eta eremu gehienetara zabaldu behar du, modu objektiboan, ikasleak onartzeko arauak berdintasunez aplikatzen direla bermatzeko.

Txostenean esaten denez, zonakatzek ezin da ikastetxea aukeratzeko askatasunerako eskubidearen mugatzat hartu, baizik eta, besteak beste, baremoaren ataletako bat, bizilekuaren hurbiltasunari buruzkoa, kudeatzeko aukera ematen duen tresnatzat. Baina, hori horrela izanik, tresna hori berdintasunez aplikatu behar da, disfuntzioak -hala nola Arangoiti inguruan sortutakoa— saihestuz. Han, berriz diogu, balizko ikasleek aukera gutxiago izan

dituzte Arangoiti HLHI ez den barrutiko beste ikastetxe batzuetan onartuak izateko, estrategia arrazoitu bati jarraituz, baina estrategia hori ez da modu berean aplikatu eremu guztietan.”

Jarduketa horri erantzunez, hezkuntza ordezkariak, erakunde honi jakinarazteaz gain kexak aurkeztu zituzten familien eskolatzeko eskariak bete zirela 2020-2021 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesuan lehenengo aukera gisa adierazitako ikastetxeak adjudikatzeari zegokionez, adierazi zuten ez zutela arazorik Onarpen Bermeen Batzordean Bilboko I. barrutiko eskola mapa aldatzean sortu ahal izan ziren arazoak aztertzeke eta horiei buruz berriz ere hausnartzeko. Hala, une horretan, familia interesdunek kexak baztertu zituzten.

2.2.3.b) Irakaskuntza modu telematikoan egiteko eskariak osasun arazo larriak direla-eta

Zenbait familiek, ahaideen artean bereziki zaurgarriak diren eta osasun arazo larriak dituzten pertsonak izatearekin lotutako askotariko egoerak azaldu dituzte baita ere, eta Arartekoari jarduteko eskatu zioten, hala, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikastetxeetan COVID-19aren aurkako neurri osagarriak hartu zitzaizkien eta horiei esker, beraien seme-alabek ikaskuntza programa modu telematikoan egiteko aukera izan zezaten eta aurrez aurreko irakaskuntzan birusarekin kutsatzeko dauden arriskuak ekidin zitzaizkien.

Familia horien kexak jaso ondoren eta esku-hartzeko aukerak aztertuta ondoren, Arartekoak beharrezkotzat jo zuen lehenengo jarduketa bat martxan jartzea. Hauxe izan zen planteamendua:

“Eskara horien bitartez, familiek honako alderdi hauek ziurtatu nahi dituzte: derrigorrezko hezkuntzako adinean dituzten seme-alabak ikastetxetara ez bidaltzea bezalako erabakiak ez direla hartuko absentismo-jokabidetzat, eta hortaz, jokabide horietatik ez daitezela eratorri guraso-ahalari datxekion betebeharrak ez betetzearekin lotutako lege-ondorioak. Aipaturiko familien ustez, familiako kide batzuen osasuna dela-eta oso arriskutsua da COVID-19aren eraginpean egotea, eta, horren ondorioz, uste dute ezin dituztela derrigortu beren seme-alabak ikastetxetara eramatera; azken horien osasuna baitago jokoan; izan ere, uste dute ikastetxeetan ezarritako protokoloek ezin dutela bermatu ez dagoela kutsatzeko arriskurik.

Zalantzarik gabe, kexa horien izapidetzean, kontuan hartu behar da alderdi hori, eta, nolahi ere, kasuz kasu aztertuta beharko litzateke, Estatuko Abokatzuzko Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako idazkariordearen eskariz egindako txostenean ondorioztatu duen bezala, zeinaren bidez justifikatzen baita kasu batzuetan onargarria dela ikasleak ikastetxetara ez bertaratzea.

Hala ere, lehen alderdi horretaz gain, egindako kexetan eskatzen dutena da hezkuntza-agintaritzek presaz eta erabakitasunez jardutea; izan ere, ikastetxetara ez-ber-

taratzea justifikatuta duten kasuak daudela ikusiz gero, familiek horretarako egin ditzaketan eskaera arrazoituak ikusita, azken batean eskatzen baitute irakaskuntza telematikoa gaitu dadila. Horregatik azpimarratzen dute behin eta berriz familia horiek orain arte onarturiko protokoloak neurri berriekin osatzeko beharra.

Jakin badakigu familia horietako batzuek hezkuntza-administrazio horretako hainbat instantziatara bideratu dituztela beren eskaerak, baina orain arte ez da argitu hezkuntza-administrazio horrek gai horri dagokionez izan dezakeen jarrera arrazoitua.”

Garrantzitsua da azaltzea lehenengo jarduketa hori urri hasieran egin zela, kexak jaso eta gutxira, eta espero zela kexak batera izapidetzea aukera onena izango zela horrela-ko gai garrantzitsu bat jorratzeko.

Bada, adierazi behar dugu txosten hau bukatu den unean erakunde honetan ez dugula inolako erantzun formalik jaso Hezkuntza Sailaren arduradunen aldetik. Hala ere, arduradunekin modu informalean harremanetan jarri ondoren egiaztatu dezakegu ikastetxeetako zuzendaritza taldeei jarraibide osagarriak proposatu zitzaizkiela eskola absentismoa kudeatzeko. Jarraibide horien artean zehazten da nola jardun behar den konfinamendua dela-eta aurrez aurreko eskola jarduerak eteten direnean eta ikasleen eta/edo beraien bizikideen osasunerako arriskutsuak diren egoerak ekiditeko zenbait ikasle eskolara joaten ez direnean, adieraziz, hezkuntza arreta ez presentziala bermatu behar dela ikastetxe bakoitzaren bitartekoen eta esperientziaren arabera.

2.2.3.c) Ikasle gorrei laguntzeko zeinu hizkuntzako interpretea izateko eskariak

Ikastetxe pribatu itundu batean lanbide heziketako goi-mailako ikasketak egin nahi zituen pertsona batek kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan hezkuntza administrazioak zeinu hizkuntzako interprete baten laguntza izatea ukatu ziolako, eta laguntza hori beharrezkoa zuelako bere gorreria dela-eta. Hezkuntza administrazioak ukatze hori justifikatzeko adierazi zuen ez dagoela deialdi espezifikorik zeinu hizkuntzako interpreteak kontratatzeke. Nolanahi ere, kexa horretan interesdunak berriz adierazi zuen jakin badakiela aurrekariak daudela, eta haietan ez dela izan orain dituenak bezalako eragozpenik.

Arartekoak esku hartzean ulertu zuen tratu ezberdinak (horrelakorik egonez gero) azalduko litzaketan arrazoiak ezagutzeaz gain, beharrezkoa dela jakitea hezkuntza administrazio horrek zergatik baztertu dituen hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzen dituzten itunpeko ikastetxetarako ezarritako dirulaguntzak gehitzea, bai eta zeinu hizkuntzako interpreteak kontratatzeke edo, hala badagokio, horretarako bestelako laguntzak ezartzeko ere.

Horri dagokionez, Arartekoak ikusi zuen dirulaguntzen jarduera honek, zeina normalean ikasturte bakoitzean iragarritzen den deialdi batean gauzatzen den, hezkuntza inklusiboa bermatzeko konpromisoari erantzuten diola, eta, zehazki,

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako hezkuntza erantzuna antolatzeko [ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuan](#) jasotako aurreikuspenari; izan ere, dekretu horrek, hasiera batean, ez du inolako erreserbarik egiten itunpeko ikastetxeetan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko baliabide espezifikoaren hornidurari dagokionez.

Lehenengo erantzunean, hezkuntza administrazioak erakunde honi azaldu zizkion kezagileak adierazitako aurrekarietan hartu zituzten erabakiak justifikatzen zituzten arrazoiak, eta kasu horiek bereziki ez-ohikotzat jotzen ziren. Hala ere, ez zuten ezer adierazi zeinu hizkuntzen interpreteak kontratatzeko dirulaguntzarik ez egoteari buruz.

Horrenbestez, Arartekoak bere jarduketarekin jarraitu zuen eta azpimarratu zuen aurreko esku-hartzean galdetu zuela zergatik ez zituen zabaldu hezkuntza administrazio horrek gaur egungo laguntzak zeinu hizkuntza interpreteen kontratazioetara, eta garrantzi handiko kontua zela hori adierazi zuen; izan ere, azken finean, jakin genuen zein zen hezkuntza administrazio horren iritzi arrazoitua ikasle horiei aukeratutako ikastetxean ikasketak egiteko eskubidea aitortzearen inguruan, beste hezkuntza premia berezi batzuk dituzten eta beste motatako laguntza behar duten ikasleek aitortua duten moduan.

Azken esku-hartzeari erantzunez, Hezkuntza Saileko ardura-dunek hauxe aitortu zuten hitzez hitz:

*“(..)
[Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak](#) jakin bada-ki Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan graduatzen diren eta gero Batxilergora zein erdi-mailako edo goi-mailako Lanbide Heziketara sartzen diren gero eta ikasle gehiago gorra direla edo hezkuntza-premia bereziak dituztela. Ikasle horiei ere irtenbideak eman behar zaizkie itunpeko irakaskuntzan aritzeko; izan ere, ikastetxea hautatzeko aukera izan dezakete eta, batzuetan, itunpeko ikastetxeak etxetik hurbilago izaten dituzte ikastetxe publikoekin alde-
ratuta.*

Hori horrela, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak ba-loratu egin du ikastetxe publikoetan keinu-hizkuntzako interprete lanetan dabilzan langileak itunpeko hezkuntzara igarotzea. Alabaina, aholkularitza juridikoaren txostenaren arabera, ezinezko da; izan ere, adierazitakoaren arabera, administrazio publikoko ikasleek ezin dute itunpeko ikastetxeetan lan egin. Horrenbestez, aukera hori baztertu dugu.

Kontuan hartu dugun beste aukera bat da keinu-hizkuntzako interpreteak kontratatzeko dirulaguntza gehitzea hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatzeko itunpeko ikastetxeen deialdian. Alabaina, arazoak daude epeekin; izan ere, Lanbide Heziketako matrikula-aldia derrigorrezko hezkuntzako eta Batxilergoko baina beranduago hasten da. Deialdi hori eraginkorra izan dadin (itunpeko ikastetxeetan hezkuntza-laguntzako espezialistak ikasturtearen lehenengo egunetik egoteko), eskaeren epea Lanbide Heziketako benetako matrikula-zioak jakin baino lehen amaitu behar da. Beraz, aukera hori baztertu dugu.

Epeen arazoa kontuan hartuz, bideragarriena litzateke irailerako ez-ohiko deialdi berri bat diseinatzea ikastetxe itunduetan zeinu hizkuntzako interpreteak kontratatzeko eta ondorioz, alor horretan planteatutako egoera ezberdinei erantzun ahal izateko, matrikulen eta eraginpeko ikastetxeen berri izan ondoren”.

Erakunde honek uste du sailak ez duela aurrerapauso berririk eman ez-ohiko deialdi berri bat diseinatzeko. Baina benetan kezagarria den kontua da (horregatik jaso da kexa hau atal honetan) jakitea zeintzuk diren Hezkuntza Sailaren planak itunpeko ikastetxe pribatueta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei arreta emate aldera baliabide espezifikoak hornitzeko.

Erakunde honek sailaren bitartez Aholkularitza Juridikoaren txostena eskuratu du, eta bertan zehazten da bidegabekoa dela langile publikoentzat gordetako lanpostu ibiltariak ezartzea (entzumen eta hizkuntza espezialitateko maisu-maistren kasuan bezala) lanpostu horiek hezkuntza administrazioaren menpe ez dauden itunpeko ikastetxe pribatueta lan egitea ahalbidetu dezaketenean; hala ere, hausnarketa horiek sailaren zerbitzura lan egiten duten eta Berritzeguneetara, lurralde ordezkarietara edo bestelako zuzendaritza zentroetara atxikita dauden langileei aplikatzen zaizkie, betiere, gauzatutako jardura edo funtzioak ikasleei hezkuntza zerbitzua zuzenean ematean oinarritzen direnean, kontuan hartuz zein den itunpeko ikastetxeek itunen bidez jasotzen duten finantzazioa.

Erakunde honen ustez, hausnarketa hori sakontasunez aztertu behar da, izan ere, itunpeko ikastetxe pribatueta ikasleen hezkuntza premiei erantzutearen alorrean laguntza asko kudeatzeko orain arte ezarritako irizpideak berrikusteko eta sailak kezagileak egin duenaren bezalako kasuetan duen iritzia zehazteko beharra ezarri dezakete.

2.3. Abandonu, tratu txar edo indarkeriatik babestua izateko eskubidea

19. artikulua

1. Haurra gurasoen, legezko ordezkarien edo bestelako norbaiten kustuapean dagoen bitartean, estatu kideek beharrezkoak diren legezko, administrazio, gizarteko eta hezkuntzako neurri guztiak hartuko dituzte haurrak honakoak jasan ez ditzan: edozein modutako kalte edo gehiegikeria fisiko nahiz mentalak, arduragabekeria edo tratu zabarra, tratu txarrak edo esplotazioa, sexu gehiegikeriak barne.

20. artikulua

1. Aldi baterako edo betirako bere familiarik atera diren haurrek edo beren interesen arabera ingurune horretan egon behar ez dutenek estatuaren babes eta laguntza bereziaren eskubidea izango dute.

2.3.1. Arau- eta gizarte-testuingurua

Estatuko lehen albiste horren denbora luzez iragarritako [Haur eta Nerabeentzako Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Lege Organikoaren](#) [Proiektuaren](#) ingurukoa da (bulego honetako txostenetan hainbatetan aipatutakoa), azkenik Gorte Nagusietara bidali baita, urgentziatzko prozeduraren bitartez izapidetzeko.

Prozesuan lanean diharduten euskal administrazioek emandako informazioagatik jakin ahal izan denez, Eskubide Sozialetako eta Agenda 2030eko Ministerioa lanean ari da aipatutako izapidetan sartzeko Adingabeen Babes Juridikorako [urtarrilaren 19ko 1/1996 Lege Organikoaren](#) 20.1. artikulua erreforatu, familia harrera profesionalizatuaren figuraren ingurukoa.

Horrez gain, jarraitu egiten dute bakarrik dauden adingabe atzeritarrei lotutako jarduketa batzuen inguruko [esparru protokoloa](#) berrikusteko eta hobetzeko lanak; izan ere, 2019an proposamen tekniko baten akordioa lortu ondoren, egun estatuko [Haurren Behatokiaren](#) osoko bilkurak onartzeko fasean dago.

Euskadin aurrera jarraitzen dute Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko [otsailaren 18ko 3/2005 Legea](#) aldatzeko prestaketa lan teknikoek, XII. legegintzaldiko Legegintza Programan “Haurren eta Nerabeen Eskubideen Lege” gisa aurkeztutakoa, zeinaren arabera Jaurlaritzaren Kontseilura bidaliko den, onartzeko, 2021eko bigarren seihilekoan.

Hona hemen apartatu honetako hirugarren erreferentzia garrantzitsua, ez dagokiona zorrotz erakundeak jarduten duen testuinguruari, baina esparru etiko eta prozedurako gisa balio duena haurrak edo nerabeak tartean dituen Arartekoaren edozein jarduketatarako. [Haurrak eta Nerabeak Babesteko Politikaz](#) ari gara. Tresna horrek antolakuntzaren barruan hezurramitzen du Arartekoak haurren eta nerabeen eskubideak sustatzearekin eta defendatzearekin duen konpromisoa eta, zehazkiago, edozein tratu txarren edo abusuren aurka babesa edukitzekoarekin duena.

Haurrak eta Nerabeak Babesteko Politikak hainbat neurri ezartzen ditu Arartekoaren ekimen edo jardueretan pate hartzen duen edozein haur edo nerabek babesa eta tratu onazateko duen eskubidea bermatzeko. Horretako zenbait jarduketa jasotzen ditu, bai prebentzioaren alorrean bai erantzun sistematiko, bizkor eta eraginkorrenean ere, tratu txar edo desegokia dagoela susmatzen bada edo zalantza badago.

2.3.2. Pozik ez egoteko arrazoiak

Ohikoa denez, Arartekoak alor horretan jasotako erreklamazio guztiak gizarte zerbitzuek artatutako haurren eta nerabeen gurasoek aurkeztu dituzte.

Izapidetutako espedienteen ia erdietan, kexa Gipuzkoako Foru Aldundiaren [Gizarte Politikako Departamentuaren](#) aur-

kakoa izan da. Gainerakoa berdin banatuta dago Arabako Foru Aldundiaren [Gizarte Politikako Sailaren](#), eta Bizkaiko Foru Aldundiaren [Gizarte Ekintza Sailaren](#) artean.

Ixte balorazioari dagokionez, 2019an hasitako eta dagoneko amaitutako jarduketak ez dira gomendatu, ez eta iradoki ere. Horrenbestez, ukitako administrazioak “jarduerak okerrik ez” balorazioa eman du, eta kexagileari, ordea, “aholkua eta informazioa” balioespene eman dio.

Gaiei dagokionez, aurreko urteetan iruzkindutakoen antzekoak dira. Kexen arrazoi nagusietako bat da, oraindik ere, **desadostasuna beren seme-alaben babesgabetasuna aitortzearekin**, guraso-ahala etetearekin eta foru erakundeak tutoretza onartzearekin. Kasu horietan guztietan, kexagileek neurriaren kontra egiteko lege egoitzara jo edo horren asmoa ageri zuten, beraz, Arartekoaren jardura saihesten zen eske nagusiarri zegokionez. Bestalde, erakunde honek ez du iritzirik ematen gai teknikoari buruz, hala nola, guraso aginpidea edo adingabearen babesgabetasun maila handiagoa edo txikiagoa. Horiek Arartekoak berezkoak dituen ezagutza eremuetatik, hau da, zuzenbidearekin bat al datozen zehaztetik at egiten dira.

Familia batek, bere seme-alabetako baten babesgabetasun egoera aitortzean bitarteko esperientzia dela eta, azaldu zuten ez zegoela ados Administrazioak adingabeen babesgabetasun egoera baloratzeko erabilitako prozeduraren zenbait konturekin, zehazki, uste zuelako ez zela nahikoa familien partaidetza eta babesgabetasun neurriak hartzea arrazoitzen duten balorazioa egiteaz eta txosten sozialak idazteaz arduratzen direnak ez beste profesional batzuen. Arartekoak iritzi zion, kasu honetan, foru jarduketa zuzenbidearen araberkoa izan dela, hain erabaki garrantzitsua hartzeko prozesu hori irizpide teknikoekin egin zela, profesional taldearekin eta balorazio zerbitzuko koordinatzailearekin adostuta, hainbat alorretako profesionalak bildutako informazioarekin eta gurasoen eta adingabearen iritziarekin eta ikuspegiarekin. Hain zuzen, pertsona bakarrik sinatzen du balorazio prozesuaren emaitza jasotzen duen eta hartutako erabakia arrazoitzen duen txostena, kasuko erreferentziatzko profesionalak, baina txostena egiteko lanean ukitutako alderdi guztien begirada eta ikuspegia hartu da aintzat.

Aurten kexa batzuk jaso dira ere bi urtetik gorako familia banaketako babes neurriak dituzten adingabeen familiek egindakoak, seme-alabak jatorrizko familiara itzultzea nahi dutenena. Kasu batzuetan adierazi dute, gainera, ez daudela seme-alabek jasotako esku hartzearekin eta arretarekin, dela egoitza harreraren dela familiakoan, baina azpian dagoena eta gailentzen dena beti da ez daudela ados babes neurriarekin berarekin, eta seme-alabekin bizi nahi dutela berriz.

Halaber, hainbat familiak kontsultak egin dituzte, haurrentzako foru zerbitzuek babesgabetasun balorazioa amaitutakoan familietatik bereizteko babes neurriak hartuko zituztela jakinarazi zietenean atsekabetuta. Familia horietako batzuek Arartekora jo dute, erakunde honen aholkularitza eta esku hartzea eskatzeko eta neurri horiek saihesteko, edo iragarritako neurriek legezkotasunaren berri edukitze-

ko. Arartekoak, arestian esan denez, ez du ebatziko emango babes neurriak adingabe horien beharretara egokitzen zaizkien edo ez, eta haren esku hartzea prozedura kontuetara mugatzen da. Beraz, jasotako kontsultetan familiak bideratu dira ahal beste laguntzera haurrentzako zerbitzuekin, neurria modu egokian gara dadin; informazioa eskatzera, ados ez daudela adieraztera eta hobetzeko proposamenak egitera; eta, hala badagokio, hartutako ebazpenaren edo ebazpenen aurka egitera epaitegietan. Horrek aukera ematen du epaitegietako talde psikosozialetako profesionalak beste balorazio bat egiteko.

Aurtengo kexen beste arrazoietakoa bat da udaletako eta foru aldundietako **gizarte zerbitzuak esku hartzeko edo hasitako balorazioak amaitzeko atzeratu izana.**

Familia bateko aitak, auzitan dagoen dibortzio prozesuan dagoenak, Arartekoari adierazi zion kalte emozionalak eragiten ari zitzaizkien bere seme-alabei gizarte zerbitzuek dibortzioa auzitegietan ebatzi bitartean seme-alabak gurasoen gatazkatik babesteko esku hartzean berandutzeak. Behin udaleko eta foru aldundiko gizarte zerbitzuen esku hartzea aztertuta –haurren babesgabetasun egoera posiblea baloratu zuten, baina artean ez zuten inolako babes neurririk hartu–, ondorioztatu zen familiako egoeraren diagnostikoa zenbatetsitako epeen barruan egin zela, eta familiari eskuragarri jarri zitzaizkiola eskuragarri zeuden baliabideak eta laguntzak. Azken urteotako antzeko kasuak aztertuta ondorioztatu dezakegu batzuetan gurasoentzat zaila dela onartzea haurrak egiaz kaltetzen dituen edo dela Administrazioaren esku hartzea edo abian jarritako esku hartzeko programak berandutzea, baizik eta gurasoek duten gatazka, gehienbat haiek gatazkatik kanpo mantentzeko gai ez badira.

Hain justu, azken urteotan hazi egin dira babeseko gizarte zerbitzuen alorreko kontsultak eta kexak, atzean gurasoen banaketa gatazkatsua dutenak. Tarteka, gurasoetako batek Arartekora jotzen du adierazteko gizarte zerbitzuak, foru aldundikoak edo udalekoak, ez direla esku hartzen ari beren seme-alaben kaltea saihesteko, edo haiek eskuragarri dituzten tresnak (famiako esku hartzeen programak, laguntza terapeutikoa eta abar) ez direla nahikoa gurasoek duten gatazkatik babesteko.

Batzuetan, ikusten da gurasoetako batek gizarte zerbitzuera jotzeko beharra duela, banaketa gatazkatsu baten bizipen gogorretan, gizarte zerbitzuek esku har dezaten eta seme-alabak babesteko erabakiak har ditzaten saiatzeko. Dena den, gurasoak beren seme-alabei eman beharreko arreta eta zaintza motarekin ados ez egote hutsak ez du esan nahi horiek babesgabetasun egoeran daudenik. Beraz, Administrazioak babesgabetasun egoera baloratu ondoren babes neurriren bat hartu arte, gurasoei dagokie erabakitzea zein arreta eta zaintza ematen dieten seme-alabei.

Aurten jasotako beste kexa batean, Administrazioak bere garaian, amaren kargu zeudenean, tutoretzapean izandako hiru haurren aitak adierazi zuen ez zegoela ados bere seme-alabek arduratzeko guraso gaitasunak baloratzean erabilitako denborarekin. Foru aldundiak 2020ko urtarrilean hasi zuen balorazioa, baina martxoko alarma egoerak ekarritako konfinamenduetatik bertan behera utzi behar izan zen. Zailtasun

gehigarri bat zuen: aita beste autonomia erkidego batean bizi da, eta horregatik ezin izan zen balorazioa epe barruan amaitu. Ahal bezain laster ekin zitzaion berriz.

Aurten ez da jaso **famiako harrerari** buruzko kexarik, eta ia ez da jaso **egoitza harrerari** buruzkorik. Familia batek adierazi zuen ez zegoela ados beren alaba nerabeak, jokabide arazoak dituenak, egoitza harreran jasotako arretarekin, ezta emandako zerbitzuagatik familiak ordaindu behar izan zuen prezio publikoarekin –jagoletza Administrazioari lagatzeko eskaera bat baitzen, eta ez tutoretza hartzekoa– eta eman zitzaizkien informazioarekin ere.

Adoptatutako haurrei eta nerabeei dagokienez, kexaren bat jaso zen adin nagusira heldu arte adopzioen ondorengo jarraipenen foru zerbitzuen errekerimenduekin desadostasuna adierazten zuena. Txosten hauetan gehiagotan azaldu denez, Arartekoak jakinarazi zien familiei haurren jatorrizko herrialdeak ezartzen duela jarraipenak egiteko maiztasuna, horien kopurua eta haurren adina, eta foru-aldundien gizarte-zerbitzuen esku dagoela jarraipen-txosten horiek egitearen eta bidaltzearen kudeaketa, horrela, haur horien beharrei eta eskubideei beharrezko arreta ematen zaiela bermatzea.

Herritarrek aurkeztutako kexekin amaitzeko, haurren zaintza ez duen aita baten kexa apatu beharra dago, adierazten zuena ez zegoela ados foru aldundiak emandako informazioarekin. Zehazki, adierazi zuen bere seme nerabearekin egindako gizarte eta hezkuntza alorreko esku hartzearen hasieran –garai hartan amaren jagoletzapean– semea artatzen zuten profesionalengandik informazioa eta deiak sarri jasotzen zituela, haren bilakaeraren berri emateko, baina, geroago, informazioa jasotzeko maiztasuna txikitu egin zela. Uste zuen amarekin alderatuta diskriminatu egin zutela, nahiz eta biek zuten guraso ahala. Foru aldundiaren esku hartzea aztertu ondoren, Arartekoak ondorioztatu zuen jarduketa zuzenbidearen araberkoa izan zela. Foru aldundiaren haurren zerbitzuak onartu zuen posible zela uneren batean –familia bereizteko neurria hartu aurretik– aitak eta amak jasotako informazioa berdina izan ez izana, zaintza zuen amarekin bere etxean egiten ari ziren guraso gaitasunaren esku hartzeko intentsiboa tarteko. Nolanahi ere, behin mutikoaren tutoretza bere gain eta jagoletza egoitza harreran hartutakoan, bi gurasoei informazio bera eman zitzaizkien, eta kexagileari adierazi zitzaizkien haien eskura zeudela, harrera zentroarekin harremanetan jarri eta semearen bilakaez informatuta egon nahi bazuten ere.

2.3.3. Foru aldundien gizarte-zerbitzuen egoera babesgabetasun-egoeran diren haurrei dagokienez

COVID-19ren ondorek markatu duten urte honetan, babesgabetasun-egoeran diren haurrei dagokienez foru aldundien gizarte-zerbitzuetan egin diren aldarazpen nagusiek zerikusia izan dute gaixotasunari arreta emateko eta haren hedapena saihesteko antolamendu-neurriak abian jartzearekin.

Une oro, zerbitzuen atazen eta funtzioen jarraitutasuna bermatzea izan zen helburu nagusia, haurren eta nerabeen, haien familien eta talde profesionalen segurtasunarekin eta osasunarekin uztartuz. Hala, lan egiteko moduak egokitzen joan ziren, osasunaren arloko agintariek une bakoitzean ezarri zituzten jarraibideen arabera.

Lehenengo erabakiek programa eta baliabide guztien aurrez aurreko jarduera guztiak aldi baterako etetea ekarri zuten, artatutako haurren interesa bermatzeko ezinbestekoak eta premiazkoak direnak izan ezik. Aldi berean, formula alternatiboak artikulatu ziren, bitarteko telefoniko eta telematikoen bidez, jarduketarik gehienak mantentzen ziren. Horrela, honako hauek burutu ziren:

- Familia biologikoekiko bisitak eta harremanak.
- Familia babesteko programetan sartuta dauden familiei laguntza eta jarraipena ematea.
- Adopzio ondoko jarraipenak.
- Familia harreragileetako egokitasunaren balorazioak.
- Informazio-baliabideetan eta informazio-ekintzetan prebentzio-ekintzak abian jartzeko prestakuntza-ekintzak (berbarako, larrialdiko harrera-familia erakartzeko kanpainarako).

Egoitza-baliabideetan, oro har, isolamendua eta kontaktuen murrizketa bermatu dira; kontaktuak minimizatzen zentzuzko sektoretan dira, segurtasun-materiala baliatu da eskuragarri egon den neurrian eta laneko ohiturak berrantolatu dira. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak jakinarazi duenez, hasiera batean, kasu bakoitzaren azterketa xehatua egin ondorik, egoitza-baliabideetan dauden adingabeetako batzuek beren familia biologikoekin edo beste aukera batzuekin (familia zabala, lizea) konfinamendu-aldia igaro ahal izateko aukera aktibatu zen, eta neurri hori 54 haurrekin erabili zen. Horrez gain, behin-behineko eta aldi baterako larrialdi-zentro bat prestatu zen (martxoa eta uztaila bitartean funtzionatu zuen), *Etxegorria* izeneko, birusaren eragin handieneko hilabeteetan izan ziren larrialdi guztiei erantzuteko eta gainerako egoitza-baliabideetan kanpotik ez ospitaleratzen. Bertan, gurasoen osasun-ospitaleratzean aurrean babesik gabe geratu ziren haurrei eta bizikidetzako zailtasunen edo konfinamenduan tratatu diren ondoriozko diru-sarrerari eman zitzaizkien arreta. Aldi horretan, eta larrialdi-egoera horiekin zerkusua duena salbu, ez zen inolako baxerik eragin – ez eta adin nagusitasunaren ondorioz ere –, ezta programa edo erreferente profesionalik aldatu ere.

Nolanahi ere, COVID-19ren eraginpeko programa eta zerbitzuetako adingabeei eta profesionaleri buruz emandako datuek intzidentzia txikia adierazten dute, baina datu horiek tentuz irakurri behar dira, lehen asteetan egindako proben kopurua txikia baita.

Programen eta zerbitzuen funtzionamendua COVID-19k sortutako baldintzetara egokitzeko jarduketak horiez guztiez gain, hiru jarduera nabarmentzen ditugu egoitza-baliabideen sarean:

- Araban, orain arte Sansoheta etxea izenez ezagutzen zena Gasteizko Hezkuntza Zentro Terapeutiko izatera igaro da, eta, garrantzitsuen dena, hezkuntza eta terapiako esku-hartzea eskaintzera pasa da.
- Araban, halaber, egoitza-arretako baliabide berri bat irekitzeko lan teknikoak hasi dira jokabide-arazo larriak dituzten nerabeen programarako, bai eta bakarrik dauden adingabe atzerritarren bizileku berriak ezartzeko ere.
- Gipuzkoan, Segurako aterpetxeak 8 plazako 4 talde hartzen ditu maiatzaz geroztik, emantzipazio-programako 16 urtetik gorako adingabe atzerritarrentzat. Gazte horiek Hondarribiko eta Donostiako baliabideetan ostatu hartu zuten behin-behinean.

2.3.4. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako arreta berezia

2020ko hasieran pandemia etorri izanak eragin handia izan du txostenaren apartatu honetan jaso ohi diren gaietan ere. Batetik, herrialde askotan birusaren hedapena geldiarazteko hartu diren neurriek hein handian murriztu dute mugikortasuna, eta horrek asko mugatu du mutil eta neska (gutxiago) horiek Espainiako eta Euskadiko lurraldera iristea. 2019an antzeman zen gutxiago heldu zirela aurreko urteekin alderatuta, eta 2020ko abenduaren 31n, datuek diotenez, gizarte zerbitzuek artatutako nerabe atzerritarrek erdira murriztu dira. Halaber, erakundearen bereizgarri den jarraipen jarduera baliabideetarako bisitetan eta erakunde sozialekin egindako topaketetan hezurramitu da, baina hori ere izugarri mugatu dute hartutako prebentzio eta babes neurriek.

Jorrazten jarraitu ahal izan duen gaitetako bat da gazte horien emantzipazio prozesuetan laguntzekoa; gogoan izan Arartekoaren egungo kezka handiena dela.

lax aipatu genituen familia erreferenterik gabeko (adin nagusiko) gazte migratzaile atzerritarrei emandako arretagatik jarritako kexak. Aurreko urteetan haurrak babesteko zerbitzuek artatu zituzten bakarrik dauden adingabe atzerritarren kopuruak gora egin zuenez, horiek adin nagusiko bihurtzean, gazteen kopurua handitu egin zen hiru lurraldeetan, bereziki Bizkaian. Arartekoak haien egoeraren eta beharren inguruko azterlan bat egin du, eta, bertan, gainera, administrazio publikoetatik jasotzen ari diren erantzunak aztertu ditu. Gazteak direnez eta familiaren laguntzarik ez dutenez, are zaugarriagoak dira, eta arreta publiko koordinatua eta lerrotatua behar dute; horregatik, azterlanean hobetzeko proposamenak egin dira eta dagokien administrazio publikoei gomendioak egin zaizkie. Aurreikusitako 2021eko lehen hilabeteetan argitaratzea eta hedatzea.

Helburu berarekin, Arartekoak babestu egin du autonomia erkidegoetako defendatzaileen bulegoen adierazpena, Espainiako Herriaren Defendatzaileak Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioari orain gutxi helarazitako gomendioen aldekoa, tutoretzapean egon ziren gazteen bizileku baimena berritzeko betekizunak egokitzeko. Defendatzaileak bat datoz, uste baitute aldatu egin

behar direla Atzerritarren Legearen Erregelamendua onartzen duen [557/2011 Errege Dekretuaren](#) 196., 197. eta 198. artikulua, Adingabeen Babes Juridikorako Legeari eta Nazio Batuen Haurren Eskubideen Batzordearen 14. Ohar Orokorren irizpideetara egokitzea.

Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioak onartu egin ditu Herriaren Defendatzailearen gomendioak, eta adierazi du bat datorrela bulego horrekin, mekanismoak ezarri behar direla 18 urtera heltzen den adingabea lan merkatura sartu ahal izateko, Espainiako gazteen edo beren familiekin bizi diren atzerritarren baldintza berberetan.

2020an amaitu zen ere [International Ombudsman Institute](#)ren (IOI) mandatuz bakarrik dauden adingabe horien Europako harreraren jardunbide egokien inguruan egindako **txostena**, dokumentu honen IV.2. puntuan ere aipatutakoa. Ingelesean idatzitako, hura egitea erabaki zuen organoan aurkeztuta dago, eta laster aurkeztuko da gaztelaniazko eta euskarazko bertsioa.

2020an aurkeztutako hirugarren azterlanak, UNICEF Espainiak eta UNICEF Frantziak egindakoak, nazioarteko mintegi batean egindako lan kolaboratiboaren emaitzak jasotzen ditu. Bertan, Arartekoa parte hartzera gonbidatu zuten, 9 herrialdetako 50 aditurekin batera. Txostenaren izenburua **“Irauteaz harago”** da, eta familiarik gabe datozen haur eta nerabe atzerritarren inguruko narratiba berri bat eskaintzen du, baita esku hartzeko “eredu integratibo” berri bat eta hainbat herrialdetako praktika positiboaren sorta bat ere.

2.3.5. Genero-indarkeria jasan dezaketen haurrak eta nerabeak

Nahiz eta osasun krisiaren eta hari aurre egiteko hartutako neurrien eraginei buruzko txosten askotan aipatzen den, konfinamenduko asteetarako eta mugimenduak mugatuta egon direnako emakumeen aurkako indarkeriaren iguera iragarria ez da islatu erakunde honetan arrazoi horrengatik aurkeztutako kexetan, aurreko urteetako antzeko kopurutan mantendu baitira.

Genero indarkeria jasaten duten haur eta nerabeen ikuspegiaren oinarrituta, esku hartzen jarraitu dugu, bulegoaren 2019ko txostenean aurkeztutako egoera horretan, ama eta amona lehenaren bikotekide eta haurren aitak hil ondoren bi umezurtzen egoera, alegia. Orduan esan zen moduan, haurren egungo tutoreak Arartekora jo zuten, adieraziz haur horiek ez zutela nahikoa laguntzarik; izan ere, genero indarkeriaren biktima zuzentzat jotzen diren arren, ez diete nahikoa balio izan oraindik biktima gisa merezi duten laguntza hezuramaitzen duten neurriek. 2019an hobetu egin ziren jasotzen dituzten umezurtz pentsioak eta, hain zuzen, arre- ta psikologikoari dagokionez gizarte zerbitzuen eskaintak erantzun egokia aipatua genuen. Esku hartzeak, baina, jarraitu egin du 2020an, beste esparru batzuetan, adibidez, zerga alorrean eta familientzako laguntzen alorrean. Horiek, baina, ez dute horrelako inguruabarrik aurreikusten, ezta salbuespen gisa ere, hain bereziak izaki. Hori dela eta, kontua ez da araudiaren interpretazioa eztabaidatzea edo salbuespen

bat aitortzea, baizik eta horrelako egoera bati beharrezko segurtasun juridikoaz erantzuteko beharrezko arau aldaketak iradokitzea.

Hori lortzeko, lagungarria izan beharko litzateke, 2019ko txostenean jaso zen moduan, Jaurilaritzaren Kontseiluak Eusko Legebiltzarrerara bidaltzea Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako [otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bigarren aldaketaren Lege Proiektua](#), genero indarkeria jasan duten haurrak biktimatzat jotzen dituen (adjektibo osagarri behar izan gabe), eta neurri publiko jakin batzuen hartzailetzat jotzen dituen. Legearen aldaketa horren bidez, asmoa da lortzea **“herrialdeko politika eta hitzarmen bat, letra larriz”**, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka, legea indartuz eta gure testuinguru sozial eta arauzotik eratorritako behar eta erronka berriei egokitzuz. Erantzuna eman beharreko behar berri horietakoak dira, ezbairik gabe, genero indarkeria bizi izan duten seme-alabak zuzeneko biktimatzat jotzea.

2.3.6. Sexu abusua

Euskadin haurren kontrako sexu abusu kasuetan jarduteko protokoloaren proposamen tekniko bat egiteko prozesua, bulego honen 2019ko txostenean zehatz-mehatz deskribatutakoa, esan bezala, urte horren amaieran burutu zen, eta 2020an eztabaida politikoaren fasea ekarri zuen. Pandemia heltzean eta uztailan egindako hauteskunde onorioz Eusko Jaurilaritzan erantzukizunak aldatzean, kudeaketa horien bukaera urtearen azken hiruhilekora atzeratu zituen. Txosten hau egin zen unean, protokolo proposamena publikoki aurkezteko zorian zegoen, Arartekoaren gomendio orokor gisa.

Urtean zehar Save the Children Euskadik zuzendutako lan taldean parte hartu da, Barnahaus ereduaren edo “haurren etxea”ren diagnostikoa egiteko eta gure lurraldean ezartzea proposatzeko. Lan horren emaitzak ere atzeratu egin dira, COVID-19aren salbuespen egoera dela medio.

2.4. Familia babeslea izateko eskubidea

18. artikulua

1. *Bi gurasoek dituzte betebeharrak haurra hazi eta hezteko garaian, eta estatu kideek indar guztiak jarriko dituzte printzipio horren onespina bermatzeko. Gurasoei edo, hala dagokionean, legezko ordezkariari dagokie haurra hazi eta garatzearen erantzukizuna. Estatuaren ardura garrantzitsuena haurraren interesa izango da.*
2. *Hitzarmen honetan jasotako eskubideak bermatu eta sustatzeko, estatu kideek laguntza egokia emango die gurasoei eta legezko ordezkariari, haurra hazteko betebeharrean behar bezala joka dezaten; halaber, haurrak zaintzeko erakunde, instalazio eta zerbitzuen sorrera bultzatuko dute.*

Arartekoak, arlo honetan, familiak babesteko politika publikoak bultzatu eta indartu daitezkeen sustatzen du,

familia-eredu askotarikoen garrantzia kontuan hartuta. Zuzenbideak aintzatetsiak ditu familia-ereduok, eta zenbait kasutan arreta berezia behar izango dute, beren funtzioak betetzeko behar dituzten prestazio guztiak erabateko berdintasunez eskuratzeko.

2.4.1. Arau- eta gizarte-testuingurua

2.4.1.a) Estatuan egindako aldaketarik aipagarrienak

Estatuan, berrikuntza nagusia familiei haurrak hazteko kostuekin laguntzeko prestazio ekonomikoek dagokie. Seme-alabak zaintzeko Gizarte Segurantzaren laguntza errenta oso baxuak dituzten familiek eskatu ahal izan dute, eta laguntza hori bizitzeko gutxieneko diru-sarreran integratuta geratu da; laguntza abantailatsuagoa da, kopuruari zein maiztasunari dagokionez. Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezartzen duen [maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuak](#) honako hau jasotzen du zioen azalpenean: “(C) *con el objetivo de evitar duplicidades de cara al ciudadano y en aras de una mayor efectividad de la política, la puesta en marcha del ingreso mínimo vital exigirá también una progresiva reordenación del conjunto de ayudas estatales cuyos objetivos se solapan con los de esta nueva política. Este proceso de reajuste se iniciará con la eliminación de la actual prestación de la Seguridad Social por hijo o menor acogido a cargo sin discapacidad o con discapacidad inferior al 33 por ciento*”. Integrazio hori Errege Dekretuaren zazpigarren xedapen iragankorrean jasotzen da:

“Disposición transitoria séptima. Integración de la asignación por hijo o menor a cargo en el ingreso mínimo vital.

A partir de la entrada en vigor de este real decreto-ley no podrán presentarse nuevas solicitudes para la asignación económica por hijo o menor a cargo sin discapacidad o con discapacidad inferior al 33 por ciento del sistema de la Seguridad Social, que quedará a extinguir, sin perjuicio de lo previsto en el párrafo tercero. No obstante, los beneficiarios de la prestación económica transitoria de ingreso mínimo vital que a 31 de diciembre de 2020 no cumplan los requisitos para ser beneficiarios del ingreso mínimo vital podrán ejercer el derecho de opción para volver a la asignación económica por hijo o menor a cargo del sistema de la Seguridad Social.

A la fecha de entrada en vigor de este real decreto-ley, los beneficiarios de la asignación económica por cada hijo o menor a cargo sin discapacidad o con discapacidad inferior al 33 por ciento continuarán percibiendo dicha prestación hasta que deje de concurrir los requisitos y proceda su extinción.”

Izan ere, 2020ko ekainaren 1etik soilik onartzen dira harreraren hartutako 18 urtetik beherako adingabe edo seme-alabengatik aurkeztutako eskaerak %33tik gorako ezgaitasuna badute, edo 18 urtetik gorako seme-alabengatik, ezgaitasuna %65etik gorakoa bada.

Errege dekretua onartu zenean zaindu beharreko seme-alabengatik laguntza jasotzen ari ziren pertsonentzat 2020ko abenduaren 31ra arte aldi baterako laguntza aurreikusita bada ere, [Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak](#) ekainean jakinarazi zuen bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ofizioz aitortu zitzaizela ia 75.000 familiari, ordurako zaindu beharreko adingabea zela medio kopuru bat jasotzen baitzuten eta legean ezarritako betekizunak betetzen zitzutelako. Horrez gain, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren lehen ordainketa ekainaren 26an ordaintzea zuen aurreikusita, adingabea zaintzeko prestazioa jasoz gero zegokiena baino ia hilabete lehenago (aipatutako prestazioa urteko bi unetan ordaintzen da: urtarrilean eta uztailean).

Bestalde, guraso ez haurdunarentzat jaiotza eta zaintza baimena handitzeko aldi baterako prozesua, [6/2019 Errege Lege Dekretuan jasotakoa](#), martxoaren 1ekoa, enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriena, 2019ko txostenean aipatu zena, urtearekin batera bukatu zen eta 2021eko urtarrilaren 1ean lortu da erabat parekatzea ama biologikoaren baimenarekin.

Azkenik, eta bateratzeari eta gizonen eta emakumeek zaintza lanetan duten erantzukidetasunari lotuta, nabarmendu behar da Auzitegi Gorenaren [epaia](#), abendu amaieran jakinarazitakoa; bertan ezarri zenez, seme-alabak edo mendeko pertsonak zaintzeko borondatezko eszedentzia lan denbora gisa hartu behar da funtzionarioen etorkizuneko lan promozioei dagokienez. Hala, epaiak dakarrenez, lanpostuak hornitzeko lehiaketetan, senideak zaintzeko borondatezko eszedentziaren egoera zerbitzu aktiboko egoerarekin parekatu behar da, «*con el fin de evitar que la carrera profesional de las personas que usen un permiso de este tipo se vea afectada negativamente por el ejercicio de dicho derecho*».

Auzitegiak doktrina gisa ezarri du Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko Lege Organikoaren 57. artikuluko aurreikuspenek ondorio zuzenak dituztela, kasuan kasuko deialdiaren oinarrien bitartekaritza gabe, eta senideak zaintzeko borondatezko eszedentziaren egoera administratiboaren balorazioa zerbitzu aktiboaren egoerari ematen zaionaren berdin-berdina da.

2.4.1.b) EAEko erreforma nabarmenenak

Euskal Autonomia Erkidegoan berrikuntzak familia eta lana bateratzeko politiken esparruan eta COVID-19aren pandemiak eragindako salbuespen egoeraren esparruan datoz, lehenago esan dugun moduan. Hain zuzen ere, COVID-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko familientzako laguntzen arloko neurri zehatzak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren [2020ko apirilaren 8ko AGINDUAK](#) familia eta lanbidea bateratzeko arloan lehenagotik existitzen ziren laguntzak denboran luzatzea eta malgutzea ekarri du; laguntza horietarako 15.000.000 euroko kreditu gehigarria bideratu zen. Aginduak adingabeak eta mendeko pertsonak zaintzeko lanaldia murrizteko edo eszedentzia hartzeko laguntzak

arautzen ditu, betiere arreta zentroak eta ikastetxeak ixtearen eraginpean egon badira, baita COVID-19a dela medio isolatutako edo kutsatutako pertsonen senideentzako laguntzak ere. Hortaz:

- Laguntza hauek emateko gutxieneko denbora tartearen betekizuna malgutu egin da; ordura arte 59 egunekoa zen, eta gutxiago ere izan zitekeen, betiere datek bat egin badute ikastetxeak ixteko datekin edo diagnostikatutako pertsonak isolatuta egon behar duen denbora tartearekin.
- Laguntzen zenbatekoak bikoiztu egin dira.
- Adina handitu egin da 14 urteko haurrak barne hartuz eszedentziatarako laguntzetan eta adingabeak zaintzeko lanaldia murrizteko laguntzetan.

Laguntzak malgutzea atzera eraginez planteatzen da, ikastetxeak itxi ziren datatik, hain zuzen ere.

2.4.2. Kexetan pozik ez egoteko azaldu diren arrazoiak

2.4.2.a) Familiei laguntzeko dirulaguntzekin zerikusia duten arazoak

Aurten ere, seme-alabengatik ematen diren laguntzen inguruko eskaerak artxibatu edo ukatu izanak hainbat kexa eragin ditu. Oraingo honetan, arrazoirik ohikoenean lotura izan dute eskaerak aurkezteko epearekin eta zerga betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez izatearekin; laguntza ukatu zitzaizenean bazuten egoera horren berri. Bi gai horien inguruan, hala ere, araudia argia da; izan ere, ezarri zenez, (*martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuko 5. artikulua*) “*Eskaerak aurkezten diren unean bete behar dira jaiotza, adopzio, adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazio zein tutoretzagatik dagokion dirulaguntza emateko baldintzak, eta horretarako ezarritako epeetan egiaztatu; horrez gain, laguntzak eman arte iraun behar dute baldintza horiek*”.

Epeei dagokienez, administrazio epeak eten egin ziren *martxoaren 14tik ekainaren 1era*, pandemiaren ondorioz, eta horrek nahasmendua eragin zien pertsona eskatzaile batzuei. Beste kasu batean, prestazio ekonomikoa eskatu zen, hain zuzen ere, bi iloben guraso-ahala baliatzeak inplizituki ematen dituen funtzio guztiak baliatzeko pertsona kexagilea judizialki gaitu ondoren; ilobak umezurtz geratu ziren ama indarkeria matxistako kasu batean erail ondoren; txosten honetako 2.3.5. atalean sakonago aztertuko da. Egoera hori ez dago berriaz aurreikusita laguntzak arautzeko araudian; hortaz, horrelako kasuetan nolabaiteko malgutasuna edo salbuespen izaera planteatu beharko litzateke; kasu horiek (zorionez) ez dira askotan gertatzen, baina tutoretza bereganatzeko egoera latz, traumatiko eta konplexua eragiten dute.

Badago nabarmendu beharreko azken egoera bat; kasu horretan, prestazioa ukatu egin zitzaion pertsona eskatzaileak ez zuelako kontu korronterik, berak bisitatutako kreditu entitateek ukatu egin ziotelako oinarrizko ordainketa kontu bat irekitzeko

aukera administrazio egoera irregularrean zegoelako, horrelako kontu bat eskaintzera derrigortuta dauden arren. Gai hori sakonago aztertu da txosten orokorraren III.6 atalean, pertsona etorkinei buruzkoa.

2.4.2.b) Lanbidea eta familia bateratzea COVID-19aren garaian

COVID-19aren pandemiak agerian utzi duen elementuen artean pertsonen euskarri material eta afektibo gisa familiek duten betebeharrak garrantzitsuak aipatu behar da, eta, zuzenean horrekin lotuta, baita familiako kideek lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko dituzten zailtasunak ere.

Martxotik ezarritako etxe konfinamenduan soilik ezinbesteko zerbitzuak ematen dituztenek izan zuten baimena lantokietan presentzialki egoteko; hortaz, enpresek, organizazioek eta administrazioek hainbat antolaketa neurri bideratu behar izan dituzte gainerako langileen egoera kudeatzeko eta haien jarduerari eusteko, posible izan zen neurrian: baimen ordaindu berreskuragarriak, pandemiaren ondoriozko berriazko inguruabarrak nahitaezko eginbeharrak tarteko baimenak emateko, eguneko lanaldiak aldatzea edo malgutzeta, telelanerako sistemak ezartzea, etab. Ondoren etorri zen deseskaladan langile gehienak haien lantokietara itzuli ziren, baina hainbat salbuespen aurreikusi ziren egoera zehaztuz, esaterako adingabeak edo mendeko pertsonak zaindu eta horiei arreta emateko egoeretan, edo bereziki sentikorrek diren pertsonen kasuan.

Gai horren inguruan kexa batzuk eta hainbat kontsulta jaso dira. Horietako batzuek lotura dute, aldi berean, enpresek, organizazioek eta administrazioek osasun larrialdiko egoeran baliatu zuten telelaneko modalitatearekin, eta txosten orokorraren II.09 kapituluaren 3.3. atalean azaldu da. Egoera horren aldakorra izateak eragin ditu kontsulta eta kexa asko, bai pandemiaren eragina bera aldakorra izatea, bai, batez ere, pandemiaren ondorengo etapetan hartutako neurriak aldakorra izatea. Hala, adibidez, itxialdiko lehenengo uneetan, pertsona batek Arartekora jo zuen bitartekari gisa jarduteko eskatzeko, izan ere, adingabe bat zaintzeagatik zerbitzuen prestazio ez presentzialaren eskari bat ezetsi zioten, eta ez zen gertatu haurtzaindegiak edo ikastetxeak ixteagatik behar egoerarik; horixe da administrazioak halaberrezko behar gisa jo ahal izateko eskatzen zuen inguruabarra. Egun gutxi igaro ondoren, telelanaren terminoak gehitu zituzten eta arazoa konpondu zen..Antzeko arazoak gertatu ziren neurriak arintzen hasi zirenean eta pixkanaka langileak lantokietara itzultzeko erabakia hartu zenean. Horrez gain, baldintza batzuk ezarri zituzten adingabeak edo ardurapeko pertsonak zaintzeko halaberrezko egoera aitortzeko, eta zalantzan jarri zituzten betekizunen jatorria eta sektore araubideen arteko diferentziak; azkenean, ezin izan zuten ondorioztatu jarduketara irregularra edo arbitrarioa gauzatu zenik Ez da kasu batean ere ez ondorioztatu Administrazioaren jarduna irregularra edo arbitrarioa izan denik.

Labur-labur aipatutako antolaketa neurrien osagarri gisa, Eusko Jaurlaritzak apirila hasieran onartu zuen lana eta familia bateratzeko ordurako existitzen ziren laguntzak denboran

luzatu eta malgutzea; hala, laguntzen zuzkidura 15.000.000 eurotan handitu zuen. Bateratze programa handitzeko xehetasunak txosten 2.4.1.b atalean azaldu dira, baina puntu honetan aipatu behar dugu erakundean jasotako kexetako bat ere ez dela izan laguntza lerro horri buruzkoa.

Aurten lan eta gizarte jardunaren zati handi bat salbuespen egoera izugarrian garatu da, pandemiaren ondorioz eta hori lagungarria izan da, gainera, ikusarazteko bai familia aniztasuna, bai bizitzak garatzeko inguruabar ugari eta anitz daudela; inguruabar horiek aipatutako kexa eta kontsultetan ere jaso dira. Bestalde, agerian utzi du lana eta bizitza bateratzeko familia zabalaren babesa ordainezina dela, bereziki amona eta aitonena; laguntza ekonomiko eta baimenez gain, dena bateratzeko euskarri erreal eta isila osatzen dute gaur egun.

Familia ugariak bateratzeko zailtasun handiagoak dituztela berariaz jakinarazi ziguten (ikus hurrengo atala), baita nahitaz bete beharreko zenbait neurri bete behar izateak haientzat kostu handiagoa duela ere (maskarak erabili beharra, esaterako).

Guraso bakarreko familiek seme-alaba txikiak zaintzeko gainditu behar zituzten arazo handien berri eman eta irtenbideak eskatu zituzten, bereziki funtsezko zerbitzuetatik jotako profesionalen kasuan.

Familia banatuek hainbat zalantza plazaratu zituzten bizikidetzak guneak txandakatzeko aukerari dagokionez, partekatutako zaintza kasuetan edo zaintza ez duen gurasoekin egoteko egonaldietan, edota seme-alabekin komunikazioa eta harremana bermatzeko moduari dagokionez, baimendutako joan-etorri eta joan-etorri horiek egiazatzeko formula edo betekizunei dagokionez, itxitako familiarteko topaguneen bisita alternatibei dagokionez, etab.

2.4.2.c) Familia ugariak

2020an familia ugariak dagozkien jardueren gaineko kezarik jaso ez bada ere, Arartekoko langile batzuek uztailan bilera egin zuten [Hirukide](#) Familia Ugarien Federazioarekin, kezkak partekatu nahi baitziren COVID-19ak sortutako egoeraz eta seme-alabak dituzten familietan dituen eraginez. Era berean, gai horretaz zenbait erakunderekin egin zituzten jardueren berri eman ziguten. Oro har, nabarmendu zuten hartutako erabakietan *familia ikuspegia* ahaztu dela, nahiz eta ulertzen zuten neurri horiek premiaz hartu behar izan zirela (baita lehenetsunak ere). Antzemandako gabeziekin batera, administrazioaren hainbat sail eta atalekin egin zituzten jarduerak zehaztu zituzten; jarraian laburki aipatuko ditugu:

- Merkatu librean alokairuak ordaintzeko laguntzetan Familia Errenta Estandarizatze Sistema aplikatzeko eskaera (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Plangintza eta Etxebizitza Saila), baita eskaintzen diren eta familia errenten mailaren mende dauden udal mailako laguntza guztietan ere.
- Haurrak zaintzeko langile bat kontratatzeko gastuak murrizten lagunduko duten laguntza guztiak artikulatzea, seme-alaba gehiago dituzten familiak bereziki

nabarmenduz, foru aldundiek eta udalek antolatutako udako jarduerak bertan behera geratuz gero (EUDEL eta EAEko udalei, foru aldundietako sail eskudunei eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari zuzenduta).

- Apirilaren 8ko Aginduak ekarritako bateratze neurriak areagotzea, irakaskuntza denbora bukatu eta gero ere (ikastetxeak itxtearen eraginpean egon diren pertsonen inguruabarretan formulatu da), eta udako denbora libre eta aisialdiko jarduerak bertan behera uzteko inguruabarrek irauten duten bitartean (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila).
- Laguntza ekonomikoak edo bonuak kide anitzeko familiei, maskarak erosteko (Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila), edo merkataritza berraktibatze (udalak) edo turismoa berraktibatze (Eusko Jaurlaritzako Turismo Saila) hartutako edozein neurritan.

2.4.2.d) Guraso bakarreko familiak

Guraso bakarreko familiak ahultasun egoeran daude gure gizartean, familia unitatearentzako errenta jaso dezakeen heldu bakar bat dagoelako, eta familia mantendu eta zaintzeko ardura pertsona bakar bati dagokiolako. Abiapuntuko egoera zailago horri gehitu behar zaio, kasuen ehuneko handi batean, guraso bakarreko familia horietan emakumea dela familiaren arduraduna. Guraso bakarreko familiak feminizatuak izateak, tamalez, are larriago bihurtzen du gaur egun gure gizartean dagoen genero-desberdintasunaren arazoa.

Kalteberatasun egoera berezi horrek hauxe azaltzen du: [Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legea](#) rekin lotutako prestazioei buruzko kexak asko ez badira ere, horrek zerikusia duten arazoak beste arlo batzuetan agertzen direla, esaterako, diru-sarrerak bermatzearen arloan, etxebizitza arloan edo udal tasen eta zergen arloan. Hain zuzen ere, horrexegatik egin da [Arartekoaren uztailaren 7ko Ebazpena](#). Horren bidez, Mungiako Udalari gomendatzen zaio berriki ditzan udal kiroldegiko tarifak, guraso bakarreko familien (kide gutxiko familiak barne) sustapenaren ikuspegi integratzailetik.

Arartekoak urte hauetan barrera hainbat aldiz adierazi du guraso bakarra izatea ez dagoela legean definituta. Era berean, ez dago zehaztuta familia-unitateko kideek zer baldintza bete behar dituzten guraso bakarreko familiak direla onartzeko edo halakoak direlako iritziri eusteko. Orobat, [familiei laguntzeko politikei buruzko txosten berezian](#) gomendio bat egin dugu (a.1 gomendia) gai honen gainean: guraso bakarreko familiaren kontzeptu bakarra behar dela, EAE osoan jarduera-irizpide bateratua ziurtatzeko.

2.4.2.e) Deribazio judizialaren bidezko familia-elkarguneak

Deribazio judizialaren bidezko familia-elkarguneak Euskadiko epaitegi eta auzitegiei laguntzeko zerbitzu publikoak

dira, eta haien helburua hauxe da: gurasoak banandu ondoren, seme-alabek guraso biek harremanetan egoteko duten eskubidea betetzeko aukera ematea. Elkarguneetan gainbegiratutako bisitak egiten dira eta adingabeen trukeak –gurasoen artean–, toki neutralak baitira, epailearen aginduz eta kontrolpean. Familia-elkarguneak aldi baterako egoera bati ingurune segurua emateko sortu badira ere, epaileek gero eta kasu gehiago bideratzen dute elkarguneetara, eta ondorioz, egoera horiek kroniko bihurtzen dira; Arartekoaren iritziz, adingabearen interes gorenaren kontra dago hori.

Hori dela eta, *per se* kudeatzeko zailak diren tokiak izan arren, oraindik ere jasotzen dira familia-elkarguneen funtzionamenduari buruzko kexak; estatistikaren aldetik ez dira esanguratsuak, eta gehienak zuzenean ebatzen dira, Eusko Jaurlaritzako sail eskudunaren mekanismoak erabiliz

Aurten, esparru horretako kexak bi gaien ingurukoak izan dira. Batetik, familia elkarguneen metodologiari dagokionez, Arartekoak azaldu du zerbitzu publikoaren prestazioaren entitate esleipendunak bete egin beharko dituela **uztailaren 1eko 124/2008 Dekretuan Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituen dekretuan**, ezarritako helburuak, zerbitzua eta langileak; dekretu hori azaroaren 22ko 239/2011 Dekretuak aldatutakoa; hala ere, zerbitzu horiek emateko eta helburuak lortzeko metodologia zerbitzuaren entitate esleipendunak ebatzi behar du, dagokion jardun autonomiaren barruan.

Bestalde, zerbitzu horietako profesionalek egiten dituzten jarraipen txostenen froga balioaren inguruko kexak ere iritsi dira, kasuan kasuko epaile betearazleentzat. Arartekoak hainbat aldiz azaldu duenez, txosten horiek administrazio instantzia batek eman baditu ere, haiek egiteko agindu duen agintaritzaren judizialari dagokio txostenen sendotasunari eta koherentziari buruzko erabakia hartzea: epaitegiak ezartzen du bisitak familia elkargunean egin behar direla, eta elkarguneak epaitegira bidaltzen ditu bere txostenak, agintaritzaren judizialak balora ditzan, alderdiek aurkeztutako gainerako frogekin alderatuz. Horrenbestez, kexagileei jakinarazi zaienez, ez Arartekoak ez beste edozein erakundek ez dute balorazio horretan esku hartzeko ahalmenik; izan ere, legeak auzitegiei bakarrik esleitzen die egiteko hori, bai lehen auzialdian, bai, desadostasunik sortuz gero, jurisdikzio organo nagusiaren aurrean errekurtsioa jartzeko bidean.

Horrenbestez, adingabeentzat onuragarriena zer den ebazteko baliagarritasuna soilik epaitegietan aurkaratu ahalko litzateke, baita epaitegiak, hala badagokio, hartutako neurriak berrikusteko eskatzea ere, familia elkarguneko langileen txostenetan oinarrituz.

COVID-19aren pandemiaren ondorioz, eta Eusko Jaurlaritzaren zerbitzua denez aginte eta kontrol judizialaren mende, lehenengo olatuan zehar publikoari itxia egon ziren **2020ko martxoaren 15eko Aginduaren bidez, Lan eta Justiziako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren funtsezko**

zerbitzuei buruzkoa; horrek hainbat kexa eragin zituen Arartekoan, zaintza ez zuten gurasoen partetik, haien bisita gainbegiratuak edo adingabeak entregatzea bertan behera geratu baitzen. Arartekoak aholkularitza eskaini zien kexagile horiei, babes judizialik gabe bisita horien inguruko adostasuna lortzeko ezintasunari dagokionez; horretarako, kasuan kasuko demandaren ondoren, epaile betearazle eskudunek funtsezko izapide gisa jo behar zuten.

2.4.2.f) Haurdunaldi subrogatua

2020an herritarrek kontsulta batzuk egin zizkieten Arartekoari gai honen gainean: euskal administrazioek zer jarrera izan behar duten haurdunaldi subrogatua deritzanaren bitartez jaiotako haurrak dituzten familiekin. Horrez gain, euskal administrazioek teknika horren bitartez jaiotako umeenganako duten jokaera ere salatu zuten kexagileek. Erakunde honetan jasotako kexa batzuk adierazten zuten administrazio publikoek guztiz baztertu behar dutela praktika hori, hura erabili duten familiak ikusarazi gabe edo izan ditzaketen eskubideak aitortu gabe, eta alderantziz, beste kexa batzuetan adierazi da familia horiek babestu beharko liratekeela eta seme-alaba horiek estigmatizatu gabe onartu beharko liratekeela, hau da, jatorriak kriminalizatu gabe eta beste umeek dituzten eskubide berdinak aitortuz.

Gure ustez, eskari horiek agerian uzten dute herritarrek geroz eta garrantzi handiagoa ematen diotela gure legerian ebatzi gabe dagoen gai bati, kontrako iritzia daudela eta gizarteko askotariko sektoreak geroz eta kezkatuago daudela.

Arartekoak interesdunei gai horren inguruko egoera faktikoaren eta juridikoaren berri eman die, kontuan hartuz Espainian ez dagoela figura horren araubide juridikorik baina beste herrialde batzuetako legerian jasota dagoela eta legezko eskubidea aitortzen diola ordezkatzeko haurdunaldien edo haurdunaldi subrogatuaren kontratuari. Horrekin, mundu osoan zehar trafiko juridiko bat dago, kontratuaren baldintzak gauzatzen diren herrialdeez besteko herrialdeetan bizi diren pertsonak sinatutako kontratuen bitartez egiten dutena, hain zuzen ere. Espainiako legeriak bakar-bakarrik Espainian egindako haurdunaldi subrogatuetako kontratuak baliogabetzen ditu eta Espainian praktika hori baliogabea denez, jaioberria beti erditu duen emakumearen izenean inskribatu behar da. Gaur egun, ez Euskadin ez Espainian ez dago erregistro fidagarririk atzerriko herrialdeetan bizi diren eta umeak sabelean hazten dituzten emakumeak kontratatzeari buruz; ume horien filiazioa, ondoren, gure lurraldeko bizilagunei lotuko litzateke, baina kalkulatu da bitarteko horren bidezko ugalketak adopzioen kopurua gainditu duela. Bestalde, Erregistroen eta Notario-tzen Zuzendaritza Nagusiak onartzen du filiazioa komitente deritzen gurasoen alde inskribatzea, baina Auzitegi Gorenak debekatutzat jo du praktika hori, hau da, ordena publikoaren aurkakotzat. Hala ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren erabaki batzuk finkatu egiten dituzte jaiotako en interesen defentsan egiten den filiazio inskribatzearen legezkotasuna. Auzitegi horrek, bestalde, gaitzetsi egiten du giza gorputzen merkaturatze oro, Europako Giza

Eskubideen Hitzarmenean aldarrikatutako duintasunaren aurkakotzat jotzen baita.

Arartekoaren ustez, haurdun dauden emakumeen eskubideak eta integritatea defendatzeko legezko berme argirik ez dagoen bitartean horien gogo altruista bermatuz eta beraiek erditutako umeen interes gorenak ziurtatuz, eta emakumeak esplotatzen dituen praktika ororen aurka (bereziiki pobrezia handiagoko lekuetan bizi diren emakumeena) eta umeen giza trafikoen aurka praktika hori babesten ez den bitartean, horrelako kontratuetarako ez da erakundeen babesik emango. Ildo horri jarraikiz, erakunde honek adierazi du beti lehenetsiko duela eraginpeko pertsonen eskubideen defentsa dirua irabazteko edo negoziatioak egiteko interes ororen aurrean. Haatik horrek berekin dakar familiak eratze-ko legezko bideak jarraitu dituzten familien eskubideak eta beren seme-alabenak defendatzea (nahiz eta haurdunaldi subrogatua bermeekin eta giza eskubideak errespetatu onartzen duten herrialdeetako legeria betez egin), izan ere, familia horiek eskubidea dute euskal administrazioetan jatorriak kriminalizatzen dituzten estigmatik gabe errespetatuak eta tratatuak izateko.

Erakunde honek espero du pausoak ematen jarraituko dutela gizarte eztabaidan aurrera egiteko eta hausnarketa lasaia, askotarikoa, irekia eta eraginpeko gizarte sektore eta taldeek partekatutakoa egin ahal izateko, hala, egungo egitatezko eta legezko definizio ezaren egoera bideratzeko eta eraginpeko emakumeen eta umeen giza eskubideak legezkontasunez bermatzeko garapen finkoa ezartzeko.

2.5. Osasunerako eskubidea

24. artikulua

1. Haurraren eskubidea da osasun-mailarik altuena izatea eta gaixotasunak zaintzeko eta osasuna errehabilitatzeko zerbitzuak erabiltzea. Estatu kideek eskubide hori onartzen dute eta haur guztiek eskubide hori izateko eta zerbitzu horiek gozatzeko aukera izan dezaten lan egingo dute.

2.5.1. Arau- eta gizarte-testuingurua

Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua osasun babesaren eskubidea aitortu zuen, eta ezarri zuen botere publikoei dagokiela osasun publikoa antolatu eta babestea, beharrezkoak diren zerbitzu eta prestamenen neurri, alde aurrekoen bitartez. Halaber, 15. artikuluan ere aipatu zen osasunaren babesa, pertsonen oinarritzko eskubideen osagai modura nabarmenduz, esanez *“pertsona guztiek bizitza eta osotasun fisikoa eta moralerako eskubidea dute, eta inoiz ezin dira meneratu torturetara ez eta zigor edo tratu ez gizakor edo itsusietara.”*

Osasunerako eskubidea beste testu batzuetan ere babestu da, testu arruntetan, estatu mailakoak; lau lege nagusi aipatu behar dira: **14/1986 Legea, apirilaren 25ekoa**, Osa-

suneko Lege Orokorra; **16/2003 Legea, maiatzaren 28koa**, Osasun Sistema Nazionalako kohesio eta kalitatearena; **33/2011 Legea, urriaren 4koa**, Osasun Publikoari buruzkoa; eta **41/2002 Legea, azaroaren 14koa**, informazio eta dokumentazio klinikoaren arloan pazientearen autonomia eta eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen oinarritzko legea; aipatutako testuei autonomia erkidegoetako antolaketa eta osasun legeak gehitu behar zaizkie. Esparru arautzaile zabala eta konplexua da eta, oro har, estatuko Administrazioari egokitzen zaio erkidegoetako osasun sistemak koordinatzea, baita erkidegoen eskumen maila gainditzen duten neurriak hartzea ere.

Hala ere, lehenengo alarma egoerak, **martxoaren 14ko 463/2020 Dekretu bidez ezarri zena**, COVID-19k eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu zuena, eta ondorengo luzapenek testuinguru arautzaile arrunta aztoratu dute; hala, herritarren segurtasuna eta osasuna babesteko, gaixotasunaren bilakaera geldiarazteko eta osasun publikoaren sistema indartzeko beharrezko neurriak hartzeko erabakia Osasun Ministerioan bildu zen. Neurri horiek, dekretuaren hitzaurrean azaldu bezala, ezohikoak dira, nahitaezkoak dira egoerari aurre egiteko eta proportzionatuak dira egoerak muturreko larritasuna duela kontuan hartuz; bidenabar, ez dute oinarritzko eskubiderik urratzen.

Dekretua onartuz, estatuko Administrazioak eskubideak mugatzen dituzten zenbait neurrialdi baterako hartu zituen, hain zuzen ere denon osasun eskubidea babestea helburutzat duten neurriak, autonomia erkidego guztietan, hain justu erkidegoak mugatu behar izan direnean kasuan kasuko osasun sistemak kudeatu eta lehenak ezarritako eskubideak mugatzeko neurriak aplikatzera.

Hala ere, lehen alarma egoera indargabetu zenean, erkidego mailako administrazioek jatorritzko eskumenak berreskuratu zituzten; erkidegoetako gobernuek, osasun agintariak eta osasun arloko administrazio eskudunek, kasuan kasuko autonomia estatutu eta legeen arabera, pandemiaren prebentzio eta kontrol arau propioak ezarri dituzte, estatuko Administrazioarekin koordinazioan, lurraldeetako egoera epidemiologikoaren, berriazko ezaugarrien eta beharrian zehatzen arabera.

Denbora tarte horretan gure autonomia erkidegoan onartutako araudi guztitik nabarmendu behar da **Osasun sailburuaren 2020ko abuztuaren 19ko Agindua**, zeinaren bidez laugarren aldiz aldatu baitzen 2020ko ekainaren 18ko Osasuneko sailburuaren aginduaren eranskina, COVID-19k eragindako osasun krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio neurriak buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero. Agindu hori 2020ko uztailaren 28ko eta abuztuaren 7ko aginduen bidez aldatu zen.

Bigarren alarma egoera ezarri ondoren, **urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretu bidez onartu zena**, eta luzatu zena **956/2020 Errege Dekretu bidez**, gure autonomia erkidegoan nabarmendu behar da **lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretua onartu zela**, zeinaren bidez prebentzio neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta egunera-

tu baitziren, alarma egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

Dekretu hori indarrean dago txosten hau idatzi den unean, eta Euskadiko populazioaren osasun publikoa eta pertsonen bizitza babestea du xede, eta, bereziki, kutsatzeko zaurgarriagoak diren pertsonen osasuna. Helburu horrekin murrizketa neurriak onartu ziren ostalaritza eta jatetxeetan, beila eta hiletetan, gurtze lekuetan, ospakizun sozialetan, erlijiosoetan edo zibiletan, bide publikoetan egiten diren azoketan, akademiaren, autoeskola eta irakaskuntza gune ez arautuetan eta prestakuntza zentroetan, jarduerak bertan behera uztea, aire libreko kirol zonetan, eta pertsona kopurua seira mugatu zen esparru publiko zein pribatuetako bileretan. Horrez gain, higiegi eta prebentzioari lotutako neurri orokorrak ere ezarri ziren.

2.5.2. Euskal osasun sistemaren inguruko kexak

Euskadiko udalerriren batean erroldatutako pertsona guztiak osasun-laguntza bermatzeko aurrerapenak egin diren arren —aurreko urteetako txostenetan eman dugu horien berri—, jarraitu dugu atzeritarrek **osasun-arreta jasotzeko** zailtasunei buruzko kexak jasotzen, eta horietako batzuek salatu dute haurdun zeuden emakumeak eta adingabeak ere hasiera batean ez zituztela artatu. Aurrekoetan bezala, gehienetan, osasun-zentroetan osasun-arretaren eskaera kudeatu zuten pertsonen informaziorik ez izateak eragin du arazoa, eta, beraz, horiei guztiei banan-banan eman zaie irtenbidea.

Erabiltzaileen eskubideen alorrean, komeni da adieraztea euskal osasun sistemaren erabiltzaileen eta profesionalen arteko ia harreman guztiak [uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuak](#), Euskadiko osasun-sisteman pertsonen eskubideei eta betebeharreri buruzko adierazpena onartzen duenak, arautzen dituen eskubide eta betebeharren esparrukoak direla. Besteak beste, osasun-politika berezietan lotutako eskubideen artean, bizitzaren fase bakoitzari -sexualitatea, ugalketa, haurtzarora eta nerabezarora- egokitutako osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aipatzen du dekretu horrek.

Esparru horretan, Arartekora jo zuen emakume baten kexa nabarmendu behar da: [Osakidetzan](#) giza ugalketako tekniken itxaron-zerrendan sartzeko eskaera egin ondoren, ukatu egin zioten, eskatu zuen unean 38 urte eta erditik gora zeuzkalako. Osasun sistema nazionalako zerbitzu komunen zorroa eta hura eguneratzeko prozedura [irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuan](#) ezarrita daude. Dekretu horretan aurreikusitako zerbitzu-zorroa arautzean, tratamendua agintzeko unean emakumeak 40 urtetik behera izan behar dituela dio (*Emakumearen adina tratamendua agintzeko unean 40 urtetik beherakoa*), baina ez du aipatzen horretarako itxaron-zerrendan egoterik ez dagoenik. Orduan, hori kontuan hartuta, Arartekoak horren gaineko informazioa eskatu zion Osakidetzari, eta zuzendari nagusiak jakinarazi zion gaia konponduta zegoela.

Hala ere, alor horretan kexa kopuru gehien sortu dituen gaia COVID-19aren ondoriozko osasun krisiarekin lotuta dago. Txosten orokorraren Osasunari buruzko II.11. kapituluko 2.1 apartatua xehetasun gehiagorekin azaltzen dira herritarrek Arartekoan adierazitako gaiak. Gehienbat umeei eragiten dieten arloak aukeratu ondoren, hauek nabarmendu behar ditugu:

- Osasun langileak beraien familiekin batera bizitzearen arriskua; arazo hori nolabait konpondu zen pertsona horiek beraien etxebizitzetara joatea ekiditeko eskuragarri jarri zituzten ostalduekin. Hala ere, ez ziren konpondu etxeetan zeuden seme-alaben hazkuntzarekin eta zaintzarekin lotutako arazoak.
- Gurasoak edo zaintzaile nagusiak kutsatuta edo ospitaleratuta zeudenean umeei eman beharreko arreta. Babesgabetasun egoera hori edonola ere iragankorra zen, eta horri erantzunez, foru gizarte zerbitzuek babesgabetasun egoeran zeuden umeentzako plazak eskuragarri jarri zituzten; hala, adingabeak bertan egon ahal izan ziren beraien zaintzaren ardura zuten pertsonak sendatzen ziren bitartean.
- Ekografiak egitean haurdun zeuden bikotekideei ezin laguntzea eta lehenengo mailako arretan kontsulta ez presentzialak ezartzea. Txosten hau idatzi den unean, Arartekoa Osakidetzak gaur egun espezialitateetako kontsultetarako eta lehenengo mailako arretako kontsulta ez presentzialetarako ezarritako laguntza protokoloen inguruko erantzuna emateko zain dago.
- Zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen eta familien maskarak emateko arazoak (derrigorrezko neurria da), seme-alaba bat baino gehiago dituztenak barne. Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren [Osasun Sailari](#) galdetu zion ea, bere eskumenen esparruan, aztertu ote zen neurriren bat hartzeko aukera, pertsona horiek maskarak aurreikusitakoa baino prezio merkeagoan erosi ahal izan zituzten. Emandako erantzunean, erakunde honi jakinarazi zitzaion Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, COVID-19ari aurre egiteko autonomia erkidegoetako presidenteei gobernuko presidenteari astero izan dituzten bileretan, hainbat aldiz agertu duela kezka maskara kirurgikoen prezioei dagokienez, eta Espainiako gobernuko presidenteari proposatu ziola koordinketa farmazeutikoa baliatzen duten pertsonen kasuan maskara higienikoen BEZa salbuesteko aukera azter zezala.

Lehendakariak proposatutako neurria hartzea Estatuaren eskumena denez, eta sail horrek bere eskumen-eremuan neurriren bat hartu ahal izateaz ezer aipatu ez zenez gero, Arartekoak berriro idatzi dio sail horri, eta galdetu zion ea Jaurlaritzaren eskumen-eremuan gai horren gaineko neurririk hartzeko aukera aztertu den edo aztertzen ari den. Erantzun zuten, ez zen aintzat hartzen ari beste neurri batzuk ezartzeko aukera.

Erakunde honek bideratutako esku hartzeen ondoren, [azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege Dekretuak](#) onartu zen, enpresa kaudimena eta energia sektorea susta-

tzeko neurriak aurreikusteaz gain, zenbait zerga neurri arautzen dituena; dekretu horretan aurreikusitako neurrien ondorioz, besteak beste, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren %4ko tasa aplikatuko da erabilera bakarreko maskara kirurgikoen erkidego barruko erosketa, inportazio eta entregetan, neurria indarrean sartzen denetik eta 2021eko abenduaren 31ra arteko indarraldiaren.

Arartekoak erabilera bakarreko maskara kirurgikoen BEZa %21etik %4ra murrizteko neurri hau aplikatzea positibotzat jo duen arren, batez ere kutsatzeen bigarren olatuaren ondorioz sortutako arazo ekonomiko berrien aurrean zenbait zalantza sortu zaizkigu; zalantza zera da, neurria aski izango ote den erakunde honetara jo duten pertsonen azaldutako arazoa neurri horrekin bakarrik eta bestelako jarduketarik gabe konpontzeko. Horregatik, [Arartekoaren 2020ko abenduaren 10eko Ebazpenaren bidez](#), Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari iradoki ziona baloratu dezala zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen maskarak erabiltzeko betebeharra behar bezala betetzea erraztuko duen neurriren bat hartzeko aukera, aipatutako sailari iradoki zitzaion neurri osagarriren bat hartzeko aukera azter zezan, sail horren ekimenez edo beste sail batzuekin elkarlanean, egoera ekonomiko zailean dauden pertsonen maskara derrigorez erabili beharra zuzen betetzea errazteko.

Testuinguru horretan, eta kexa jakin bat horri buruzkoa ez izan arren, Arartekoak aipatu egin behar ditu **umeen eta nerabeen osasun mentalean** epidemia hedatzea saihesteko ezarritako neurriek eta osasun krisiak sortutako kalteak. Oraindik goiz da konfinamendu zorrotzak umeengan izan dituen ondorioak zehazteko, baina osasun mentaleko aditu eta erakunde asko jada hasi dira jakinarazten horrek guztiak inpaktu negatiboak izango dituela. Norberaren edo familiaren etorkizunari buruzko zalantza orokorrekin sortutako antsietatea edo depresioa, konfinamenduaren aurretik jada existitzen ziren arazoak areagotzea, terapiak gelditzea, tratu txarren biktima izatea edo familian indarkeria sufritzea eta abar; horiek guztiak aipatu diren arazoetako batzuk dira, eta horien benetako irismena nolakoa izango den hurrengo hilabeteetan jakingo dugu.

2.6. Adingabe arau-hausleen eskubideak

40. artikulua

1. *Lege penalak haustea leporatzen zaion haurri edo hauste horren errudun izatea salatzen edo deklaritzen zaionari bere duintasun eta adorea zentzua suspertu behar zaizkio, giza-eskubideak eta besteen oinarriko askatasunak errespetatzen dituzan, eta haurren adina eta birgizarteratzearen garrantzia gogoan izanik, haurrak gizar-tean funtzio konstruktiboa har dezan.*

Arlo honetan, aurten jasotako kexa bat aipatu behar da. Hauxe zen kexagaia: **Ertzaintzak jarduteko zein jarraibide erabiltzen dituen gazteen justizia-sistemako hezkuntza-**

-zentroetan dauden adingabeak lekuz aldatzean. Kexaren bidez desadostasuna agertu zen lekualdaketak egitean agenteek arauzko armak eraman ahal izatearekin. Agenteek jasotzen duten prestakuntza espezializatua eta girgiluen erabilera ere aipatzen dira kexan. Arartekoak, helarazi zioten informazioa ikusita, adierazi zuen ez zeukala oinarririk aipatutako alderdian ezarritako jarduerak zalantzan jartzeko eta horiek betetzen ari ez zirenik ulertzeko. Hala ere, aldi berean, Arartekoak iritzi zion barne-kontrolako formulak ezarri behar zirela lekualdaketen jarraipena egin eta irizpideak betetzen zirela egiaztatu ahal izateko. Horrez gain, Arartekoaren ustez, kontrol hori gauzatu ahal izateko, behar bezala dokumentatu behar dira lekualdaketen inguruko alderdi guztiak, eta irizpide orokorretatik aldentzen diren jarduerak arrazoitu behar dira.

2.7. Jolaserako, atsedenerako eta arte eta kirol jardueretarako eskubidea

31. artikulua

1. *Haurrak atsedean eta denbora-pasako, jolas eta bere adinako aisialdi ekintzetarako eskubidea du, eta honekin batera, bizitza kulturean eta artetan parte hartzeko ere bai. Estatu kideek eskubide hori onartzen dute.*
2. *Estatu kideek errespetatu eta bultzatu egingo dute, haurrak bizitza kulturean eta artistikoan parte hartzeko duen eskubidea, eta horretarako aukera egokiak eskainiko dizkiote berdintasunaren baldintzapean.*

2.7.1. Jolaserako eta aisialdirako eskubidea

Konfinamenduaren urtean eta pertsonen zirkulazio askea mugatua egon den garaian, apartatu honetan jaso ditugu bereziki neurri zorrotzenak ezarri ziren asteetan horiek malgutzeko Arartekoan aurkeztutako eskariak, kontuan hartuz jarduera motorra eta jolaserako eskubidea oso garrantzitsua direla umeen garapenean. Gogorarazi behar dugu, ondoren salbuespen gutxi batzuk ezarri arren (autismoa duten umeak saltokietara joan ahal izatea etxean bakarrik utzi ezin zirenean adibidez), orokorrean umeak ezin zirela etxetik atera inolaz ere.

Horiei guztiei erantzunez eta umeen eta nerabeen eskubideak defendatzeko gainerako erakundeek adierazitakoarekin bat eginez (ikus txosten honetako I. kapitulua), Arartekoa ere konfinamenduak ume eta nerabeengan sortu litzakeen ondorio psikologiko, fisiko eta emozionalengatik kezkatuta zegoen. Era berean, ume horien egokitzapen gaitasuna eta “aldian batean hain baldintzaok diren ondasunei, besteak beste, jolasteari edo aske korrika egiteari, naturaz gozatzeari edo lagunak besarkatzeari uko egitean” egindako esfortzua aitortu zituen. Une horretan egindako [erakundearen deklarazioan](#) ere horixe aipatzen zen.

Hala ere, pertsona horiei guztiei jakinarazi zitzaie ezin zutela neurri zuzenagorik ezarri, jarduketa eremua gaintzen baitzuten horrek. Pertsonen zirkulazio askatasuneko mugatzeak

(umeei ere eragiten zizkietenak) [martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez](#) araututako alarma egoeraren ondorioz ezarri ziren. Dekretu horretan, aipatutako neurri horietaz gain ezarri zen egoera horretan eskumenak zituen agintaritza estatuko gobernua zela, eta Arartekoak ez du horrenganako eskumenik. Bestalde, euskal administrazioetan egin zitzaizkeen kudeaketak alferrikakoak izango lirarteke, izan ere, une horretan euskal administrazioek ere ez zuten proposatutako erabakiak hartzeko eskumenik.

Egiaz, umeen beharrak kontuan hartzeari eta kalera ateratzeko baimena emateari buruzko iritziak gehitzen joan ziren asteek aurrera egin ahala. Gainera, Nazio Batuetako Umeen Eskubideen Batzordeak, Umeen Erakunde Plataformak edo aditu askok eta askok, estatuko Herriaren Defendatzaileak eta autonomia erkidegoetako presidente batzuk (horien artean lehendakariak) berariaz eskatu zioten gobernuko presidenteari gai hori kontuan harrezala. Ondorioz, 14 urtera arteko umeei baimena eman zitzaizkien paseo laburrak ematera kalera ateratzeko neurrien arintze fasea modu ofizialean ezarri baino aste bate lehenago.

2.7.2. Eskola kirola

2020an, eskola kirolaren arloko kexak hiru gai jorratu dituzte. Lehenbizikoa, nahiko zabal azaldu genuen 2019. urteko txostenean: haur adoptatuei tratu berezitua ematen zaiela futboleko aritzeko federatzeko orduan. Arazo hori azaldu den kexan (gomendio bat eragin du aurten), kexagilearen ustez, diskriminaziozko tratua jaso zuen bere semeak, izan ere, adopzio bidez Espainiako nazionalitatea zuen arren, Arabako Futbol Federazioan federatzeko, berariazko agiriak aurkeztu behar zituen, gainontzeko haurrek aurkeztu behar zituztenez gain, atzerrian jaiotako zelako.

Dagoeneko gainditutzat jotzen genuen gai baten gertakariak egiaztatzeko, Arartekoak [Arabako Foru Aldundiaren](#) laguntza eskatu zuen, foru-erakundeari baitagokio bere lurralde historikoko kirol-federazioek federazio-lizentziak izapidetzean esku hartzea eta kontrolatzea.

Arartekoak gogorarazi zion kontua ez dela adopzioan hartutako adingabe nazional bati kirol-lizentzia ematea edo ez ematea (eta, horren ondorioz, lurralde-lehiaketetan jokatzeko aukera izatea), baizik eta Espainian jaiotako adingabe nazionalak behar ez duten dokumentazio osagarria eskatzean sor daitezkeen diskriminaziozko tratua.

Bere esku-hartzea bukatzeko Arartekoak [2020ko urriaren 29ko Ebazpena](#) egin zuen. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiari gomendatzen dio Arabako kirol federazioetan esku hartzeko eta kontrolatzeko neurriak har ditzala, kirol lizentziak izapidetzean hartu diren adingabeen arteko tratu-desberdintasunak saiheste aldera. Ebazpen horretan Arartekoak Aldundiari gogorazi dio [Kode Zibilaren](#) 19.1. artikulua honako hau ezartzen duela: *“Espainiar batek adoptatzen badu hemezortzi urtekoa baino gazteagoa den adingabe atzerri-tarra, atzeritar horrek Espainiako jatorrizko naziootasuna eskuratuko du adopzio-uneetik”*. Hainbestez, jaiotekua edo-

zein delarik ere, atzerrian jaiotako adingabe adoptatu bat Espainian jaiotako bat bezain espainiar nazionala da, eta ezin da tratu desberdinik eman kirol lizentziak ematean, batzuei eta besteei dokumentazio bereizia eskatuz.

Horregatik, Arartekoak Arabako Foru Aldundiari gomendatu zion neurriak hartu zitzaizkion honako hau bermatze aldera: Arabako kirol-federazioek tratu berbera ematea adopzioan hartutako jatorrizko adingabe nazionalen eta adingabe nazionalen, eta kirol-lizentziak izapidetzeko garaian dokumentazio bera eskatzea, tratu-ezberdintasunak ez dagoela kontrolatuz.

Arabako Foru Aldundiak Arartekoari jakinarazi dio emandako gomendioa onartzen duela, eta aipatu du dagoeneko idatzi bat igorri diola [Arabako Futbol Federazioari](#), hau da, Espainian adoptatutako adingabeen kirol-lizentzien izapideak egiteko dokumentazio osagarriaren eskaera zuzendu behar duela.

Bigarren gaia ere behin eta berriz agertzen da: gatazkak sortzen jarraitzen du udal eskoletan kirol-entrenamenduak egiteko ordutegia ikastorduetatik kanpo ezartzeak. Gatazkak arau-desoreka berberak sortzen ditu, ez baitago zehaztuta noiztik aurrera aurkeztu behar diren, ikasturte bakoitzean, instalazio horiek erabiltzeko eskaerak. Gaia Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eraikin eta instalazioak ikastetxe horien urteko programazioan sartuta ez dauden jarduerak egiteko erabiltzea arautzen duen [maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuan](#) dago araututa; izan ere, dekretuaren 4. artikulua horretarako aurkeztu diren eskaerak sailkatzeko lehentasun-irizpideak aipatzen ditu, baldin eta eskaerak elkarren artean bateraezina badira. Horren arabera, bertan jasotako gainerako irizpideak erabilita eskaerak berdin sailkatu direnean, lehenago aurkeztutakoak izango du lehentasuna. Arazoa ez da denboraren arabera lehentasun-irizpidea bera, aipatu dekretu arautzaileak, irizpidea haztapeneko hondar-klausula gisa ezarrita, dagokion eskaera noiz aurkeztu behar den ez aipatzea baizik.

Horrek eragin du kirol-kluben artean udal-espazioak banatzeari lotutako gatazkak ez amaitzea. Gainera, [Bilboko Udalarekin](#) gertatu zen moduan, klubak artean adostasunik ez zegoen kasuren batean, udal horrek erabaki du instalazioak ez lagatzea, 34 udal-ikastetxe kudeatu behar izateagatik adostasunik lortzen ez den bakoitzean banaketa zehazteko gaitasunik ez duelako. Gai horretan, beste udal-instalazio batzuei buruzkoetan bezala (Donostiako izotz-jauregia, adibidez), Arartekoak udal-erakundeei banaketarako irizpide objektibo batzuk eman dizkie, aplikagarriak edo kontuan hartu badaitezke ere instalazio horiek erabiltzeko araudiak prestatzeko orduan.

Irizpide horiek honako era honetan antolatuta daitezke:

- Zuzentasun-irizpide objektibo horien barruan, Arartekoaren iritziz, lehentasuna eman behar zaio adingabeen interes gorenari, hau da, haurrek kirola hezkuntza-irizpideen arabera sustatzeko duten interesari, eskola-kirolaren printzipioei jarraituz lehiakorrak

izan beharrean; halaber, beste zenbait printzipio aintzat hartu behar dira, esaterako: adingabeak beren etxetik gertu egotea, adinarekin eta eskola-ordutegiarekin bateragarriak diren ordutegiak izatea...

- Gure ustez kontuan hartu daitezkeen beste zuzentasun-irizpide objektibo batzuk irizpide sozialak dira, gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatzea adibidez, edo aniztasuna sustatuko duten beste irizpide inklusibo batzuk.

- Azkenik, irizpide objektiboen hirugarren talde bat izan daitezke gutxiengoan kirola sustatzea eta zenbait kiroletan instalazio espezifikoaren beharra kontuan hartzea.

Hori dela eta, legegintzaldi berri honen hasieran, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera jo du berriz, maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretua berritu behar dela azpimarratzeko, helburu bikoitza ezarrita: alde batetik, interesa agertzen duten pertsonak edo erakundeak jakin dezaten noiz hasten den eskaerak aurkezteko epea; bestetik, haien artean egon daitezkeen lehia, aplikatu beharreko gainerako faktoreak erabiltzea ebatzi ez denean, eskaera behar den epean eta moduan aurkeztu dutenen arteko zuzentasun-irizpideekin bat eginez ebatzi dadila; Arartekoak, gainera, erakundearen garatutakoak helarazi dizkio Eusko Jaurlaritzari, dekretu hori aldatzeko interesgarria gertatzen bazaio ere.

Erakunde honi azaldutako kexetan agertu den hirugarren gaiak zerikusitu zuzena du COVID-19aren kontra hartutako neurriekin, zehazki, eskola-kirola bertan behera uztearekin. Kexagileen ustez, erabaki hori oso kaltegarria da lehen itxialdiaren ondorioak neurri handi batean jasan zituzten haur eta nerabeentzat, izan ere, eskola-kirola funtsezko jarduerak da haien garapen fisiko eta psikikorako, baita balioen eskola ere.

Arartekoa egoera horien jarraipena egiten ari bada ere eta haietan guztietan kexagileei aholkularitza ematen, gogora ekarri behar izan dugu alarma-egoeraren araudiak lege-estaldura ematen diela kirolean egindako murrizketei pandemiari aurre egiteko. Zehazki, bigarren alarma-egoeran, [urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak](#), SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzeko duenak, 2.1 artikuluan agintari eskuordetu gisa ezartzen dituen autonomia erkidegoetako lehendakariak, dekretu horren 5. artikulutik 11.era bitartean jasotako neurrien intentsitatea eta egokitasuna modulatu ahal izateko; hori guztia, autonomia erkidegoetan pandemiak duen bilakaeraren arabera.

Beraz, Euskadin lehendakaria da agintari eskuordetua, eta ahalmen hori baliatu du zenbait dekreturen bitartez, esate baterako: [36/2020 DEKRETUA](#), [2020ko urriaren 26koa](#), [lehendakariarena](#), [zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira Alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan](#), [egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko](#). Hortaz, neurri horien ondorioz eskola-kirolean eta kirol federatuen egindako murrizketek helarazi dizkiguten arazoak lege-babesa dute (lehenago adierazi bezala) eta autonomia politikoa dagozkio, kasu honetan, lehendakariari. Ararteko erakundearen berezko neutraltasunak eragotzi egin du

iritziren bat ematea, kasu horietan egindako jarraipen- eta aholkularitza-lana alde batera utzita. Hala ere, horrek ez du galarazten beste ekimen batzuk ezartzea, kirolak haurren osasun fisiko, psikiko eta erlaziozkoan dituen onurak agerian jartzeko.

2.8. Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea

2. artikulua

1. Estatu kideek Hitzarmen honetan aipatutako eskubideak errespetatuko dituzte eta bermatuko dute beren jurisdikziopean dauden haurrei aplikatuko zaizkiela, alde batera utzita haurren, gurasoen edo legezko ordezkarien arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzirik politikoa edo bestelakoa, nazio-, etnia- edo gizarte-jatorria, ezintasun fisikoak, jaiotza edo bestelako edozein ezaugarri.

2.8.1. Atzerritarren seme-alabak

Arartekoaren Umeen eta Nerabeen Bulegoak zuzenean kudeatzen ditu Euskadin ahaiderik ez duten atzerriko gazteei eragiten dieten arazoekin eta beharrekin lotuta dauden eta ohiko moduan babesik ez duten umei zuzendutako foru gizarte zerbitzuek kudeatzen dituzten erreklamazioak. Urtean zehar alor horretan gertatutakoak txosten honetako 2.3 apartatuan azaldu dira. Hala ere, atzerritarren seme-alabak beste eremu batzuei loturiko kexetan azaldutako egoera batzuen protagonista izan dira edo horien eragina jasan dute. Horien berri hemen emango dugu modu laburrean.

Egiaz, esan genezake atzerritar askoren seme-alabek atzerritarren legeriak beraien gurasoen gizartratze prozesuetarako ezartzen dituen oztipoen eta traben ondorioak sufritzen dituztela, eta, zeharkako moduan, seme-alaben askotariko eskubideen garapenean ere eragina dutela. Zailtasun horiek guztiak xehetasun gehiagoz azaldu dira txosten orokorraren immigrantei buruzko III.6 kapituluan.

2020. urtean **udal erroldan inskribatzeko arazoekin** zerikusia duten kexak jasotzen jarraitu dugu; betekizun hori ezinbestekoa da euskal administrazio publikoaren zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko eta eskubideak erabiltzeko. Kasu batzuetan, arazoak sortzen dira zenbait udal atzeratu egiten direlako bizileku eraginkorra egiaztatzeko izapideak egiterakoan. Beste kasu batzuetan, zailtasunak egoten dira enbaxaderek edo kontsulatuak pasaportea ukatu izanagatik indarrean dagoen identifikazio dokumentua aurkezteko ezintasuna dela-eta.

Identifikatzeko dokumentaziorik ez izatearekin lotuta aipatu behar da baita ere zailtasunak egoten direla inskripzio ageririk lortzeko, izan ere, notarioak aurrez aurre egiaztatzea behar du kontsulatuak ez duela pasaportetik eman, eta notarioek diote ez dutela zeregin hori gauzatzen. Horrez gain, akatsak edo faltsutasunak ikusi dira Espainian jaiotzen diren umeen gurasoen identifikazio datuetan umeak Espainiako erregistro

zibilean inskribatzeko egiten diren jaiotza ziurtagirietan, eta horren ondorioz, jatorri herrialdeetako agintariek ez dituzte ume horiek aitortzen.

Administrazio erregularizazioari dagokionez, era berean aipatu behar da atzerapenak egon ohi direla Espainiako nazionalitatearen ebazpenetan eta asilo edo herrigabe eskarrietan. Atzerapenak aipatzen dituzte baita ere bizileku eta lanerako baimenekin lotutako izapidetzeak egiteko aurretiazko hitzorduei buruzko erreklamazioetan.

Aurten kontsulta asko jaso ditugu baita ere identifikatzeko pasaportearen duten, zaurgarritasun egoeran dauden eta atzeritarren diren pertsonen finantza erakunde batean oinarritako ordainketa kontu bat irekitzeko eskariak ezetsi izanari lotuta. Ukatzeko horren ondorioz, ezin da lanik egin edo fakturarik ordaindu eta ezin da prestazio ekonomikoen onuradun izan (prestazio horiek kontuetan ordaintzen baitira, sekula ere ez eskudiruarekin). Horixe izan da adibidez diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo seme-alabak jaiotzeagatik laguntzen onuradun diren familien kasua, ohikoenak aipatzearen.

Kasu horietan, Arartekoak kexagileei adierazi die Oinarritako ordainketa-kontuei, ordainketa kontuen lekualdatzeari eta komisioen konparagarritasunari buruzko [azaroaren 24ko 19/2017 Errege Lege Dekretuan](#) aurreikusten denez, kreditu erakundeek oinarritako ordainketa kontuak eskaini beharko dizkietela EBn legez bizi diren bezero potentzialei, bai eta egoitza finkorik ez duten bezeroei ere, asilo eskatzaileak badaude edo bizileku baimenik ez badute ere, arrazoi juridikoengatik edo izatez horiek kanporatzea ezinezkoa bada. Arrazoi horrengatik, finantza erakundeko bezeroenganako arreta zerbitzuan erreklamazioa jartzeko orientabideak eman dizkiete, eta adierazi diete eskaria jorratzen ez bada, Espainiako Bankuan aurkez dezaketela.

Diru-sarrerak bermatzeko sistemaren prestazio ekonomikoak ukatzeari, eteteari edo azkentzeari buruzko kexa batzuk eskariaren titularren atzeritar izarearekin lotuta daude zuzenean. Ukatu, eten edo azkendu diren eskari askotan oinarritako beharrak estaltzea ahalbidetuko lieketen baliabideak jasotzea ezinezkoa duten umeak daude. Orokorrean, arazoak sortzen dira identitatea edo egoera zibila egiaztatze-ko agiri batzuk aurkeztu behar direlako edo jatorri herrialdean ondasun ekonomikorik ez dutela egiaztatu behar dutelako.

Bigarren gaiaren inguruan, Arartekoak 2020ko maiatzaren 13ko [1/2020 Gomendio Orokorrean](#) bere iritzia eman zuen analisi xehatua eginez eta gomendio batzuk azalduz.

Aurreko urteetako txostenetan jasotako beste arazo bat da baita ere ezkontideak edo bikotekideak batera bizi behar diren betekizuna, eta betekizun hori ezin izaten dute bete, ez baitituzte familia berrelkartzerako legezko baldintzak betetzen.

Apartatu hau bukatzeko pertsonen salerosketari buruzko jarduketara batzuk aipatu behar dira, adibidez zuzenean esplotatuak diren adingabeak barne hartzen arazoak, besteak beste, emakume biktimen seme-alabak.

Lehenengoa 2019ko txostenean gizakien salerosketaren biktima diren edo salerosiak izateko arriskuan dauden emakume biktimen (askotan adingabeak seme-alabak izaten dituztenak beraien kargura) zailtasunei buruz aurkeztutako ofiziozko jarduketaren ondorioa da, izan ere, emakume horiek arazoak izaten dituzte udal erroldan inskribatzeko identifikatzeko pasaportetik edo bestelako baliozko agiririk ez dutenean. Aipatu moduan, Arartekoak Herriaren Defendatzaileari bidali zion arazo hori eta kontuan hartua izateko proposamenak egin zizkion. Herriaren Defendatzaileak erantzun zuen kezkatuta dagoela baita ere emakume horien eta beraien seme-alaben egoera dela-eta, eta [Estatistikako Institutu Nazionalen](#) eta Errolda Kontseiluan egindako kudeaketan berri eman zuen (ikus 2019ko urteko txostena, III.6 kapituluko 4.1.1 apartatua).

Bigarrenik, [sexu ustiapenerako gizakien salerosketari buruzko azterketa](#) argitaratu izanaren berri eman behar dugu, Arartekoak Euskadin giza eskubideak aplikatzeari buruz antolatutako ikerketa bekaren esparruan egindakoa. Ikerlanak honako hauek biltzen ditu: sexu-esplotaziorako salerosketaren egoera EAEn eta politika publikoak eta biktima horien prebentziorako eta biktimak hautemateko eta babesteko erakunde, gizarte eta elkarte programak. Bertan hobetzeko 26 gomendio ematen dira, eta horien arteko batzuk eragin handiagoa dute eraginpeko umeengan.

Hirugarren jarduketa Amnistia Internazionalarekin egindako bilera da, eta bertan [Kate ikusezinak: Espainiako gizakien salerosketako biktimak identifikatzea](#) txostenaren ondorioak eta gomendioak partekatu ziren.

III.

Atala

Entzuna izateko eta bere
iritzia kontuan hartua
izateko eskubidea:
Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua

III. Atala

ENTZUNA IZATEKO ETA BERE IRITZIA KONTUAN HARTUA IZATEKO ESKUBIDEA: ARARTEKOAREN HAUR ETA NERABEEN KONTSEILUA

12. artikulua

1. *Iritzi propioa izateko gai den haurrari Estatu kideek iritzia askatasun osoz azaltzeko aukera bermatuko diote, haurrari berari dagozkion gai guztietan, eta beti bere adin eta heldutasunaren arabera.*

13. artikulua

1. *Haurrak adierazpen askatasuna izango du, muga politikoak kontuan izan gabe; eskubide horren barruan sartuko dira edozein ideia edo informazio bilatu, jaso eta zabaltzea, bai ahoz, idatziz edo inprimakiz, modu artistikoan edo haurrak aukeratzen duen edozein modutan.*

Haurren Eskubideen Hitzarmenak, Nazio Batuek 1989an onarturikoak, 18 urtetik beherako adingabeei informaziorako eta parte-hartzeko eskubidea aitortzen die, bai eta eragiten dieten arlo guztietan beren iritzia emateko eta beren iritzia kontuan hartua izateko eskubidea ere. Geure eginez haurrentzat eta nerabeentzat lan egitea garrantzitsua bada hein berean edo gehiago izango dela haiekin lan egitea, haien ahotsa, iritzia eta ikuspegia entzutea, parte hartzeko, kontsultak egiteko eta aholkuak emateko bideak eskaintzea, 2010ean, Arartekoko Haur eta Nerabeen Kontseilua eratu zen, funtzio nagusi Arartekoari bereziki adingabeei zuzenean eragiten dieten kontu edo ekimenen inguruan aholku ematea zuela.

Haur eta Nerabeen Kontseiluak neska-mutilen begirada gaineratu nahi du Arartekoaren proposamenetan, haiekin ekimenak, material didaktikoak, proiektuak eta bestelakoak kontrastatu, eta haurrentzat edo nerabeentzat interesgarri diren edo haien eskubideen defentsari eragiten dieten alderdiei buruzko iradokizunak bildu. Era-kundea gure haurren eta nerabeen ahotsa entzuteko eta parte hartzeko esperientzia eskaintzeko —behintzat horietako talde bati— apustu argia da.

Adingabeek erakundean modu egonkorrean parte hartzeko eta egoteko bide hori lehenago erabili diren (eta aurrerantzean erabiliko diren) beste bide batzuen osagarri

da; halakoak dira, esate baterako, azterlanak, txostenak, foroak eta bestelakoak, bai eta bizitegi-baliabideetan harrera egin zaien neska-mutilei egindako elkarrizketen esparruan sortutako eztabaida-taldeak ere.

Kontseilua hiru lurralde historikoetako DBHko 24 neska-mutilek osatzen dute. Neska-mutil horiek parte hartzeko barne-dinamiketan esperientzia duten hainbat ikastetxek proposatuta izendatu dira. Parte-hartzaileak hautatzeko eskakizunak hauek dira: gaitasun kritikoa izatea eta hausnartzeko, sortzeko eta berdinen artean eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko prest egotea, eta, batez ere, kontseiluan parte hartzeko eta inplikatzeko gogoia izatea. Nork bere iritzia adierazteko askatasun osoa izatea eta Arartekoak konfidentzialtasuna bermatzea dira kontseiluaren funtzionamenduaren oinarritzko arauak.

Batzordea ohiko moduan 3 edo 4 aldiz biltzen da ikasturtean zehar, hau da, urritik hurrengo urteko ekainera bitartean, eta bilera horietan ikasturte hasieran adostutako gaiak sakontzen dira. Halaxe izan zen baita ere 2019-2020 ikasturte hasieran; 2019ko lehenengo bilera Gasteizen egin zen. Pandemia egoerak berriz ere plan guztiak aldatu zituen eta martxorako eta ekainerako aurreikusitako bilerak uztaileira eta irailera atzeratu ziren, hurrenez hurren.

Aldaketa horiek albo batera utzita, batzordeak gai honi buruzko hausnarketa egitea lortu zuen: **hartutako erabakiek umeen eta nerabeen eskubideetan izandako inaktuaren bilakaera eta agintaritzek politika publikoen legegintzan eta gobernu esparruan gauzatutako ekintzak**. Aurreko bi urtetan bezala, hausnarketa horrekin batera Sareko Umeen Defendatzaile batzuetako taldeen eta batzordeen lana egin zen **ENOC** (ikus aurrerago txostenaren IV.1 atala) **ENYA** proiektuaren esparruan -**European Network of Young Advisors**-.


Metodologia ludiko eta oso parte-hartzaile baten bidez batzordeak ondorio batzuk atera zituen eta ENYAren bileran aurkeztu zituen (kasu horretan *online* egin zen). Horietako batzuk hemen daude jasota:

- Arazo publikoetan parte hartzeko eskubidea eta betebeharra: *“Ziur gaude eragiten diguten legeak eta arauak sortu aurretik informazio egiazkoa jasotzeko eskubidea dugula eta herritar gisa politiken inguruan interesa izateko betebeharra dugula”.*
- Erabakiak hartzeko eta aberasteko gaitasuna: *“Gizarte hobea lortzeko gardentasunaren eta partaidetzaren alde lan egiteko prest gaude. Uste dugu funtsezkoa dela oztopoak gainditzea eta aniztasunean oinarritutako ideiak ezartzea eta iritzi ezberdinak onartzea eta baloratzea. Gure kasuan, gazteak garen heinean, ikuspegi fresko eta berritzailea eman dezakegu. Gazteek ikuspegi irekiagoa eman dezakegu, inklusiboagoa, eta irtenbide sortzaileak proposa ditzakegu”.*
- Jarraipena: *“Elkarrekin harremanetan egoteko eta komunikatzeko modu berri bat eraginkorra izango da bakar-bakarrik alderdi biek feedback eraikitzailea emateko konpromisoa hartzen badugu, hala, konfiantza hobetuz eta indartuz:*

- 1.) Jarraipena egiteko konpromisoa
- 2.) Esker-onak edo aitortzeak izatea
- 3.) Gure ekarpenen egoera adieraztea”

Umeek eta gazteek politika publikoak sortzeko prozesuetan parte hartzeari buruzko gomendioak UNICEFek egindako **Araudi xedapenek umeengan eta nerabeengan duten inpartuari buruzko aurreitazko txostenak egiteko eskuliburu metodologikoan** xedatutako 3 faseen arabera egin ziren:

- Eskubideak, beharrak eta talde kaltetuenak identifikatzea
- Ume eta gazteengan sor daitezkeen inpartu posibleak aztertzea eta ebaluatzea
- Inpartu positiboen eta negatiboen hobekuntza proposatzea



IV.

Atala

Haurren eskubideak sustatzeari:

gizartearekiko harremanak eta
erakundeen lankidetzak

IV. Atala

HAURREN ESKUBIDEAK SUSTATZEA: GIZARTEAREKIKO HARREMANAK ETA ERAKUNDEEN LANKIDETZA

42. artikulua

Estatu kideek hitz ematen dute Hitzarmenaren printzipio eta arauak jakinaraziko dizkietela modu eraginkor eta egokietan bai helduei bai eta haurrei ere.

1. Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarea (ENOC)

Haurrentzako Defentsa-erakundeen Europako Sarea (ENOC) 1997an sortu zen eta, gaur egun, Europako 34 herrialdeetako haur eta nerabeen eskubideak defendatzeko 42 erakunde osatzen dute. Horien artean dago, 2017. urteaz geroztik Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoa. Honatx sare horren helburu nagusiak:

- Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena ahalik eta modu osatuenean ezar dadin sustatzea.
- Taldeko ekintzari sostengua ematea, Europako herrialdeetako politika publikoetan haur eta nerabeen eskubideak kontuan har daitezten.
- Informazioa, ikuspuntuak eta estrategiak partekatzea.
- Haur eta nerabeentzat eraginkorrak diren bulego burujabeak gara daitezten bultzatzea.

Haurrek eta nerabeek parte hartzeko organoa ere sortu da, ENOC sareari atxikitakoa: **ENYA** –European Network of Young Advisors– ekimena, ENOCen jardueran haur eta nerabeen partaidetza bultzatzeko. Horrela, haur eta nerabeek aukera ematen zaie entzunak izateko eta beren iritzia eta proposamenak beren herrialdeetatik haratago ezagutarazteko.

Sareak urtean behin batzar nagusian biltzen da, kideek proposatutako eta adostutako gaiak eta edukiak lantzeko. Urteko biltzarra aprobetxatuz, herriaren defendatzaileek topaketa luzatu egiten dute, eduki horiei buruzko informazioa

partekatzeko, elkarrizketan aritzeko, esperientziak eta go-goetak trukatzeko.

2019ko batzar nagusian, haurren defentsa-bulego guztiek gai hau adostu zuten 2020an lantzeko: agintari publikoek legegintza esparruan eta politika publikoak gobernatzeko esparruan hartu dituzten erabakiek eta burutu dituzten ekintzek haur eta nerabeen eskubideetan zer eragin izan duten ebaluatzea. Jarduteko esparru komuna (haur eta nerabeen eskubideetan izandako eragina ebaluatzeko **gida** baten bidez gauzatu da) eta **baterako adierazpena ENOCen urteko 24. konferentzian eta batzar nagusian** onetsi ziren (Edinburgo egin ziren, azaroan, telematikoki). Agiri horiek egiteko, oinarritzat hartu zen galde-sortak nahiz lan-dokumentuak trukatzeko partekatu zen informazioa, baita ere eztabaida presatzeko asmoz, irailean *online* egin zen bilkura. Arartekoak agiri horiek ezagutarazteko asmoa du gaia dagokien administrazio publikoen artean.

Arartekoak ENOCen “helduen” arloan egindako lan handiaren baliokidea da Haurren eta Nerabeen Kontseiluak ENYA proiektuan izandako parte-hartzea (aurreko kapituluan eman ditugu horren xehetasun gehiago). Horren harira, urteko konferentzian **nerabeen ekarpenak** eta helduen bulegoen lanaren ekarpenak uztartu izanak asko lagundu zuen diagnostikoaren eta amaitzeko aitorpenaren kalitatea hobetzen.

Sarearen helburuetan aipatu bezala, han parte hartzeak informazioa, estrategiak eta metodologiak partekatzeko aukera ematen du, eta horixe da, hain zuzen ere, bere helburua. Horrekin batera, askotariko gaiei buruzko informazioa eskatu ohi da; informazioa eskatzen duen erakundeak datu gehiago eskuratu nahi izaten ditu har ditzakeen erabakiak edo eman ditzakeen irizpenak baloratzeko. 2020an, gai hauek landu dira: Sexu Delitugileen Erregistroa, kalean dauden adingabe atzerritarrak, defentsa-erakundeek egindako gomendioak zenbateraino onartzen eta ezartzen diren, COVID-19ak zer eragin izan duen hezkuntzarako eskubidean. Era berean, COVID-19ak haur eta nerabeen eskubideetan izan duen eragina hizpide hartuta, sareak **baterako adierazpen bat** egin zuen apirilaren lehen egunetan; bertan, gobernuei, Europako Batzordeari eta Europako Kontseiluari eskatu zitzaizkien beharrezko jarduerak abiaraz zitzatela, eskubide horiek osasun-krisialdian beteko zirela bermatzeko. Munduko herrialde askotako mugak erabat itxita zeuden egoera horrexetan,

ENOCeko kideek sinaturiko [gutun irekia](#) argitaratu zen, Grezia eta Turkiaren arteko mugako eta Greziako uharteetako kanpamenduetan adingabe batzuk larrialdi-egoeran harapatuta zeudela ohartarazteko, eta haiek denak berehala toki duin eta seguruetara eraman zitzaten eskatzeko.

Sarearen bitartez, askotariko gaiak jorrazteko lankidetzak-eskaerak ere iristen dira Europako eta nazioarteko erakundeetatik. Horietan parte hartzea erabakitzen du Arartekoak. Horrela, 2020an honako hauetan hartu du parte:

- ENOCek eta [UNICEFek](#) elkarrekin antolatutako mintegi batean; COVID-19a dela-eta hartutako neurrien garaian haurren defentsa-erakundeek egindako jarduketari buruzko mintegia izan zen. Arartekoak bere esperientzien berri eman zuen, eta haiek guztiak ondoren egin zen [txosten](#) batean jaso ziren. Txosten horiek UNICEFek eta ENOCek hainbat foro publikotan aurkeztu zituzten.
- Europako Batzordeak bere [Haurren Bermea](#) proiektua dela-eta abiarazitako kontsulta irekian ekarpenak egin zituen. Nazioarteko bulegoari esker, Arartekoa proiektu horren bideragarritasuna aztertzeke aurkezpenean egon zen. Bruselan egin zen, 2020ko otsailaren 17an.
- Halaber, telematikoki, [Haurren eskubideei buruzko Europako Batzordeko Foroan](#) parte hartu zuen, irailaren 29tik urriaren 1era. Arartekoak Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren urteko txostena aurkeztu zuen eta Haur eta Nerabeen Kontseiluak foroaren harira sortu zen [erakusketa-areto birtualaren](#) aurreko urteetan egindako bideak.

2. Herriaren Defendatzailen Nazioarteko Erakundearen baitan (International Ombudsman Institute) lankidetzan aritzea

2020an, Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoak, Haur eta Nerabeentzako Bulegoarekin eta Arartekoko Atzerritarren Arloarekin elkarlanean, bakarrik dauden atzerritar adingabeak hartzeko zerbitzuei buruzko txostena bukatu zuen. Txosten horri amaiera eman zitzaion. Hura, 2019ko urteko txostenean adierazi zen moduan, [Ombudsmanen Nazioarteko Erakundearen](#) Europako ataleko batzordeak Arartekoari emandako aginduaren ondorioa da, eta Herbehereetako eta Greziako herri-defendatzailak egindako azterlanekin osatzen da. Txostena Europako ataleko batzordeak onartu zuen 2020ko urrian, eta, gaur egun, euskarara eta gaztelaniara itzultzeko lanean ari dira, edukiak eta ondorioak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainian behar bezala zabaldu ahal izateko.

3. Gizarte-eragileekiko lankidetzak

Arartekoak eta, dagozkion kontuetan, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak, bere ekintza-ildoan artean argi eusten dio haurren eta nerabeen esparruan lanean diharduten gizarte-eragileekin elkarlanean aritzeko aukerari, bai haur eta nerabeen eskubideak dibulgatuz edo defendatuz, eta bai, askotan, batez ere egoera ahulean dauden adingabeen sektoreentzat diren baliabide jakin batzuk kudeatuz.

Lankidetzak-harreman horri dagokionez, urtero zehazten da, eta hainbat formatutan egiten da: bilerak, bisitak, kolaborazioak dokumentu edo proposamenetan eta abar. 2020. urtearen zatirik handienean nagusitu den osasun-krisialdiak, ordea, izugarri baldintzatu du la bilerak eta bisitak egitea edo eztabaida-foroetan parte hartzea, eta horien baitan topaketa interesgarriak gertatu ohi dira. Hala ere, harremanetan egon gara erakunde hauekin:

- Haur eta nerabeen eskubideak babesteko erakundeekin: [Euskadiko Save the Children](#), [UNICEF](#)-Euskal Herriko Batzordea, [Haurren Erakundearen Plataforma](#), Haur eta Nerabeen Soziologia Taldea -[GSIA](#)- eta [Eurochild](#).
- [Hirukide](#) Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkartearkin, familien elkartearen esparruan.
- [AVIFES](#) eta [FEDEFES](#)ekin, buruko gaitza duten pertsonekin lotutako erakundeak baitira.
- [Kale dor kayiko](#) ijito herriaren elkartearekin.
- [EAPN](#) Euskadirekin, Pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin.
- [Amnistia Internazionalarekin](#).
- [Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialarekin](#).
- [EDE Fundazioarekin](#) eta [SII](#)ekin (Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa - Fundación Eguía Careaga Fundazioa), zenbait txosten, diagnostiko edo azterlan prestatzeko lankidetzak-esparruan.

4. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetzaz


Halaber, anitzak dira erakunde instituzional eta/edo baliabide publikoetako ordezkari politiko eta teknikoekin lankidetzaz aritzeko espazioak eta uneak, nahiz eta 2020an urriagoak izan diren, gizarte-erakundeekin bezalaxe. Solaskideetako batzuk honako hauek izan dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren jarduneko lehendakaria.
- Euskadiko Fiskaltza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua.
- Eusko Jaurlaritzaren Osasuneko sailburua.
- Eusko Jaurlaritzaren Segurtaguneko sailburua (XI. Legealdia).
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzako diputatua.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako diputatua.
- Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako diputatua.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Familia Politika eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.
- Hiru foru aldundien Gizarte Ekintza / Gizarte Politika / Gizarte Politiketako sailtako haurren zerbitzuetako arduradunak.
- Emakunde. Erakundeen arteko talde teknikoa.
- EUEDEL. Elkarteburua eta zuzendaria.
- Bilbo, Donostia, Irun eta Gasteizko udalak. Gizarte Zerbitzuetako arloak.
- **Euskal Herriko Unibertsitatea**, Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntza” izeneko graduondoko titulu propioan parte hartuz, eta **Deustuko Unibertsitatea**. Bi unibertsitate horietatik etortzen dira ikasleak praktikak egitera (Zuzenbide Fakultatekoak eta Psikologia eta Hezkuntza Fakultatekoak, hurrenez hurren).
- Bartzelonako Unibertsitat Autónoma. Informatzaile gisa lankidetzaz aritzea, honako proiektu honetan: *“Promover y dar apoyo a la vida independiente como práctica alternativa del cuidado de menores no acompañados”*. Proiektu hori Europako Batzordearen Asilo, Migrazio eta Gizarteratze Funtsez finantzatzen du.
- Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia, bere X. Jardunaldietan: *“Aniztasuna eta Diskriminazio anizkoi-tza: hurbilketa interseksionala”*

5. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren onarpena ospatzea

Nazio Batuen Batzorde Orokorrek **Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmena** onartu zueneko 31. urteurrena zela-eta, Arartekoak azaroan UEHren edukia hedatzeko ekimena gauzatu zuen. Jardueraren izena hauxe izan zen: **“Eskubideak banan-banan: Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmena Arartekoko Batzordeko umeen ikuspegitik”** eta bertan, azaroaren 1etik 20ra arte egunero sare sozialen bidez Umeen eta Nerabeen Batzordeko neska-mutikoez grabatutako bideo labur bat helarazten zen, non hitzarmenaren artikulua jakin bat aurkezten zuten.







V.
Atala

Haur eta nerabeen

eskubideen egoera baloratzea

V. Atala

HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEEN EGOERA BALORATZEA

Hurrengo paragrafoetan txosten honetako informazioaren zati bat aurkeztu dugu, irakurketa errazteko. 2020. urteko gertakizun nagusia COVID-19a izan da, eta, beraz, oraingoan, Arartekoak aztertutako arazoez eta egindako ekimenez gain, batzuetan, COVID-19ak sortutako krisiak umeen eta nerabeen eskubideengan sortu duen edo sortu dezakeen inpaktuari buruzko hausnarketa batzuk gehitu dira.

2020an, 502 **kexa-espeditetan** aipatu da argi eta garbi haurren eta nerabeen presentzia edo inplikazioa, alegia, Ararteko erakundeari egindako kexa guztietatik ia %19,8tan. Zenbaketa horretan sartuta daude, batetik, alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espeditenteak (498): norbanakoek edo elkarteek azaldu dituzte, horretarako ezarritako bideren bat erabiliz (bulegoak, weba, posta elektronikoa); eta bestetik, erakundeak bere kabuz hasi dituen ofiziozko espeditenteak (4), haur eta nerabeen talde batzuk ahultasun egoeran daudela edo beraien premiei behar bezala erantzuten ez zaiela susmatzen denean, egoera horiek aztertzeke eta horien bilakaera ikusteko.

Erreklamazioa aurkezten duenari dagokionez, jasotako kexetako bat ere ez du aurkeztu adingabe batek. Aipatzen diren guztiak pertsona helduek aurkeztu dituzte, eragindako haurrak dauden egoerak aipatuz. Kexa horietatik 10 gizarte-erakundeek egin dituzte (norbanakoen egoerak azaldu dituzte) eta beste 13 kexa elkarteek egin dituzte, baina pertsona-talde baten ordezkari gisa; horregatik, adingabe gehiagori eragiten diete.

Gaiei dagokienez, umeen bizitzako baldintza materialekin (%38,6) eta hezkuntza sistemarekin (%33,5) lotutako gaiak erreklamazioen ia hiru laurden osatzen dute. Gainerako %28aren barnean familiei laguntzeko politikak (%5,6), babesgabe dauden umeentzako gizarte zerbitzuak eta osasun sistema (biak %4,6rekin), jokia eta eskola kirola (%4,8), justizia administrazioaren zerbitzuen jarduketak (%3,0), gazteen lokaletan edo umeek jolasteko eremuetan sortzen diren zarrata arazoak (%2) eta bestelako gaiak azaltzen dira.

Umeen eta nerabeen eskubideen inguruan dauden arazoak eta emandako erantzunak aztertuta, honako gaiak nabarmendu behar dira:

1. Entzuna izateko eskubidea. Informazioa izateko eskubidea

Entzuna izateko eskubideak eta umeen interes gorenak eratzten dute 1989an onetsitako Umeen Eskubideen Hitzarmentaren paradigmaren aldaketa handia, hau da, umeak kontuan hartzea, eskubideak dituzten subjektuak baitira. Onetsi zenetik 20 urte baino gehiago igaro arren, oso nabaria da umei eragiten dieten gaien inguruko erabakiak hartzerakoan umeen iritzia kontuan hartzeko defizit asko daudela. Azken urteetan erakunde honek gogo onez hartu ditu umeen eta nerabeen partaidetzaren alorrean gauzatutako aurrerakuntzak, baina hala ere, COVID-19aren pandemiak argi utzi du gure gizarteetan nagusi den ikuspegiak helduak dituela erdigune, zeintzuek jasotzaileekin inolako kontrastatze azterketarik egin gabe (kasu honetan adingabeekin), horiek babesteko neurriak hartzen dituzten, adingabeek inolako kritikarik egiteko aukerarik gabe hartutako erabaki horiek bete behar dituztelarik. Horri dagokionez onartu behar da ziurrenik **umeentzako** neurri egokienak ezartzeko helburuarekin jokatzen dela (beraien eskubideak bermatzeko, hezkuntzarako, osasunerako, babeserako eta abarrerako eskubidea), baina berriz ere, **umeen parte-hartzerik gabe**.

Horixe azaldu zuen Umeen Eskubideen Batzordeak pandemiaren hasieran. Bertan, estatuei honakoak eskatu zizkien (eta Euskadiko Autonomia Erkidegoak ere horren inguruko konpromisoa du 1990. urtean Espainiako estatuak hitzarmena berretsi zuelako): “Aukerak ematea umeen iritzia kontuan hartuak izateko pandemiari buruzko erabakiak hartzen direnean. Umeek gertatzen ari dena ulertu behar dute eta pandemiari aurre egiteko erabakietan parte hartzen dutela sentitu behar dute”.

Batzordeak beste eskubide bat aipatzen du (“*umeek gertatzen ari dena ulertu behar dute*”), eta entzuna izateko eskubideari buruzko 12. gomendio orokorrean azaldu moduan, ezinbestekoa da hori egikaritzeko beharrezko informazio guztia izateko eskubidea, gai jakinari buruzko iritzia izateko. Bada, osasun krisiaren lehenengo asteetan herrita-

rei ezarritako neurrien berri ematean ez ziren umeak aipatu, nahiz eta kaltetuenetakoak izan. Etxetik atera ezinik egon ziren, ezin ziren eskolara joan, ezin zuten inolako jarduerarik egin espazio publikoetan, instalakuntzetan edo partekatutako espazioetan, ezin ziren lagunekin batu eta jolastu... Eta ondoren, sekula egiaztatu ez zen mezu bat bidali zen, hau da, umeak superkutsatzaileak zirela. Hala ere, ez zen umei zuzendutako mezurik eman, hizkuntza ulergarriari eta beraien ikuspegia kontuan hartuz. Horregatik guztiagatik, oraindik ere beharrezkoa da Umeen Eskubideen Batzordeak estatuei egindako eskari hau: *“COVID-19ari buruzko informazio xehea ematea eta kutsatzeak ekiditeko informazioa ematea ume guztientzako ulergarriak eta lagunkoiak diren formatuetan eta hizkuntzetan, desgaitasuna duten umeak, ume immigranteak eta Internetarako sarbide urria duten umeak barne”*.

2. Bizi maila egokia izateko eskubidea

Nazioarteko erakundeek eta estatu eta autonomia erkidego mailetako umeen eta nerabeen gizarte erakundeek adierazi dute COVID-19aren krisiak ume eta nerabeengan sortutako kalteen artean daudela pobrezia egoerak, prekaritate egoerak gehitu izana eta umeen pobrezia arriskuak edo baliabide ekonomikoaren falta (oinarriko beharrak estaltzean eragina sortuz), eta horiek bakarrik askotariko txosten eta gomendioetan dauden alderdi batzuk dira. Orain dela gutxi inpaktu horren irismena zenbatzeko eta zehazteko datuak ematen hasi den [azterketetako](#) batean dago jasota hau: *“hain zuzen ere umeak dituzten etxeetan sufritu dituzte pandemiaren ondorio larrienak (...). BAI inkestak adierazten du baita ere 2019ko azken hiruhilekoaren eta 2020ko bigarren hiruhilekoaren artean diru-sarrerarik gabeko etxeen ehuneko %20 gehitu zen heinean, adingabeak dituzten etxeetan ia bikoitza gehitu zela”*.

Euskadin, eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Lan Sailak emandako informazioaren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten bizikidetzaren unitateen %30,26k (diru-sarrerak bermatzeko sistemaren prestazio ekonomiko nagusia) 2020ko abenduaren 31n adingabeak zituen kargura. Bizikidetzaren unitate horietan dauden ume eta nerabeak 28.180 dira, hau da, Euskadin erroldatuta dauden 19 urte baino gutxiagoko 400.000 biztanleetatik %7. Egiazkotzat jotzen badugu benetako pobrezia egoeran dauden familien heren bat inguruk arrazoi ezberdinak medio diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren prestaziorik jasotzen ez duela, kalkula dezakegu Euskadiko ume eta nerabeen (ia 38.000 dira) %9,33 prekaritate ekonomiko eta materialeko egoeran bizi dela eta garatu ahal izateko bizi maila egokirako duten eskubidea benetan arriskuan dagoela.

2019ra arte beherakoa zen diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zuten bizikidetzaren unitateen kopurua, baina 2020an joera hori aldatu zen datuek gora egin baitzuten; bertan nabarmentzekoa da bereziki gehitu direla kargura adingabeak dituzten bizikidetzaren unitateak. Hala ere, badi-

rudi onuradunen kopuruaren gehikuntza ez datorrela bat krisi ekonomiko eta sozial larriarekin. Horren arrazoietako bat izan daiteke nahiz eta euskal administrazio publikoek lan handia egin alarma egoera deklaratzaren ondoriozko jardura ekonomiko eta etetearen ondoren sortutako kalteak arintzeko (besteak beste, laguntza askoren hornidura ekonomiko gehituz eta izapideetako formula malguak ezarriz), Lanbide bere ohiko jardunarekin jarraitu duela, hau da, prestazioen emakida askotariko dokumentuak aurkeztearen menpe jartzen jarraitu duela. Beste arrazoi bat izan daiteke zenbait pertsonen 2020ko ekainean onetsitako bizi-itzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa eskatu izana.

Arartekoak, bere urteko txostenetan agerian jartzen du baliabide ekonomiko nahikoak egiaztatetik eratorri ez den diru-sarrerak bermatzeko prestazioen baldintzen multzoak dilema etikoak eta gizarte kohesioak sortzen dituela. Gizarte eta egoitza bazterketa egoeran dauden pertsonen aurten gutxieneko bizi-itzeko diru-sarrerak bermatzen dituzten prestazio ekonomikoak jasotzeko sufritu dituzten zailtasunek argi utzi dute oso garrantzitsua dela zenbait betekizun berrikustea, bereziki prestazio ekonomikoaren ukatzeak, eteteak edo azkentzeak umei eta nerabeei eragiten dienean, izan ere, horrek oztopatu egiten du belaunaldien arteko gizarte mugikortasuna eta gizarte ezberdintasunaren oinarrietako bat da. Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi duenez, legezko baldintzak eta betebeharrak betetzen direla zaintzea eta nahitaezko kontrola beharrezkoak badira ere, kolektibo zaurgarriak ezin dira denbora tarte luze bizi-itzeko gutxieneko diru-sarrerak jaso gabe egon.

Arartekoak, hainbat jardueratan azpimarratu du garrantzitsua dela garatzeke dagoen araudian Lanbideri bidali dizkion gomendioak jasotzea eta egungo arautegia berrikustea, izan ere, arautegiko betekizunekin, interpretazioekin eta legezko hutsunearekin, herritarren gizarte eskubideak eraginkortasunez erabiltzeko baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko nahikorik ez duten pertsonen eskubide hori erabili ahal izatea mugatzen da (18/2008 Legearen 1. artikulua). Beharrezkoa da baita ere administrazio prozedurak hobetzea espedienteak berrikusten direneko bermeei, epeei eta izapideei dagokienez eta zehapen prozeduren eteteari, azkentzeari edo garapenari dagokienez, eta, horrenbestez, hobetu egin behar dira oker jasotako prestazioak erreklamatzeko prozedura eta zorraren zatikatzearena, izan ere, gabezia asko dituzte oinarriko printzipioei dagokienez, besteak beste, proportzionaltasunarena, segurtasun juridikoarena eta bizi-itzeko gutxienekoa bermatzearena. Berrito nabarmendu dugu koordinazioa hobetu behar dela udalaren gizarte-zerbitzuen eta Lanbideren artean, eta aurten batez ere gai honetan jarri behar dela arreta: batek eta besteak ematen dituzten prestazioak bateraezintzat jotzeak babesik eza eta kalteberatasuna sortzen dituela.

Etxebizitza duin eta egokia eskuratzeari dagokienez, oraindik ere kexak egiten dira aurreko urteetan aipatutako hiru gaien gainean.

Alde batetik, babes publikoko etxebizitzaren errentarietaz ez dute asebate etxebizitza duin, egoki eta ekonomikoki irisgarria izateko duten eskubide subjektiboa, higiezinak ez

duelako ratioa gainditzeko, hau da, 15m² familia-unitateko kide bakoitzeko. Bigarrenik, badira hainbat familia alokairu-araubideko babes publikoko etxebizitza bat premiaz behar dutela diotenak. Hirugarren arazoa da ez dagoela guraso bakarreko egoeraren legezko definiziorik, eta ez dagoela zehaztuta zer baldintza bete behar dituzten familia-unitatea osatzen duten pertsonen guraso bakarreko familiatzat hartzeko edo aitortzen horri eusteko.

Hitz batez, erakunde honek, beste urte batez, eskatu nahi die euskal administrazio publikoei alokairu-erregimenean eskura daitezkeen babes publikoko etxebizitzaren parkea zabaltzeko, Etxebizitzaren Legean ezarritako erroinei behar bezala aurre egite aldera, eta, aldi berean, denbora pasa ahala, esleitutakoa baino etxebizitza handiago bat (edo konfigurazio desberdina duena) alokairuan hartu behar duten errentari publikoen eskaerei erantzute aldera.

3. Hezkuntzarako eskubidea

Baiezta dezakegu hezkuntzaren arloa COVID-19aren pandemiaren urtean kalte gehien sufritu dutenen artean dagoela, izan ere, hezkuntza jardueraren, familien, ikasleen, irakasleen eta irakasleak ez diren langileen, zuzendaritza taldeen eta ikastetxe guztien egunerokotasunean askotariko ondorioak sortu dira. Horri dagokionez, 2020. pandemiaren urtean, COVID-19a izan da bi ikasturte akademikoen protagonista eta hala izaten jarraitzen du: 2019-2020 ikasturtearen bukaerakoa eta 2020-2021 ikasturtearen hasierakoa, hain zuzen ere.

Hezkuntzaren arloan egon diren gatazka nagusiak, paradoxikoa izan arren, hezkuntza administrazioek (EAEkoak barne) ezarritako bi kontrako neurrien ingurukoak izan dira: lehenengoa, 2019-2020 ikasturte amaieran ikasgeletako aurrez aurreko jarduera etetearen erabakia da eta bigarrena, 2019-2020 ikasturte hasieran ohiko hezkuntza jarduera berreskuratzearen erabakiarena, ikasleak orokorrean ikastetxeetan ikasiz, hain zuzen ere. Bi inguruabar horiek mugatutako espazio zabalean garatu behar izan da administrazio kudeaketa. Abiapuntu horrek agerian uzten du eta azaldu egiten du administrazioek krisiari aurre egiteko emandako erantzunen bestelakotasuna, eta aniztasun hori kexagileek aurkeztutako askotariko idazkietan agertu da baita ere.

Testuinguru horren oinarrietako bat presentzialtasuna/ez presentzialtasuna da, eta esparru teorikoaren abiapuntutzat hartu behar da, izan ere, jakina den moduan, praktikan (eta bereziki ikasgelei buruzko neurrietan) ezarritako administrazio erabakiak malguak izan behar ziren egoera aldakorretara egokitu ahal izateko, osasun larrialdiaren bilakaera eta ikastetxe bakoitzeko ezaugarrien arabera horrek izandako bilakaera kontuan hartuz: hezkuntza mailak, eskuragarri zeuden espazioak, emandako zerbitzu osagarriak (garraioa eta jantokia) eta giza baliabideak eta baliabide materialak. Ziurtasun gutxiko eta zalantzaragritasun askoko aldia da.

Onartu eta balioetsi behar da, arazoak arazo, administrazioaren ohiko jarduera aldatu zen lehenengo hilabete haietan, zenbait kasutan ezarritako baliabide informalei esker, erakunde honetako eskariak jorratu eta bete direla, besteak beste, jantokietako bekei buruzkoa. Hezkuntza arduradunek bereziki lankidetzan aritzeko prestatutasuna izan zuten gai horretan eta ez zuten zalantzarik izan neurriak ezartzeko. Neurri horien artean dago ikastetxeetara bidalitako instrukzioa, berehala beken familia onuradunei jantokiko gastuen laguntzak ordain diezazkieketen.

Era berean, ohiko moduan izapidetu dira aurrez aurreko irakaskuntza martxan jarri ondoren egindako kexa batzuk; kexa horiek, ardura pertsonalak eta lanekoak bateratzeko ezinbestekoa bihurtzen ari den zerbitzu osagarri batekin lotutakoak izan dira, hau da, eskola jantokiaren zerbitzua-ekin.

Ildo berari jarraitu dio hezkuntza arloan oso ohikoak diren kexak izapidetzean (ikasleak onartzea, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntzak), baita ere erakunde honek aurretiaz jorrotutako gaietan (adibidez, anai-arreba bikiak ikasgela berean edo ikasgela desberdinetan eskolatzea).

Beharbada hezkuntza arduradunek izan duten karga eta presio handia direla-eta ez zaie behar besteko arretarik jarri Arartekoak azken urteetan aipatu dituen gainerako gaiei. Hori artean garrantzitsutzat jotzen dugu eskola segregazioari aurre egiteko erronka aipatzea. Ez dugu ahaztu behar hezkuntzaren alorrean aurretik zeuden ezberdintasunak gehitu izana mundu osoan zehar COVID-19ari aurre egiteko ezarritako neurrien ondorio nagusitzat jo dela. Umeen Eskubideen Batzordeak, Idazkaritza Nagusiak eta hezkuntza eskubidearen aldeko kontalari nagusiak, estatu mailako Umeen Erakundearen Plataformak edo Euskadiko Autonomia Erkidegoko hirugarren sektorearen euskal behatokiak adierazi dute arrisku handia dagoela hezkuntza ekitateari dagokionez.

Gaur egunera arte Arartekoak horri buruz egindako gomendioak eta sektoreko beste eragile batzuk egindakoak, besteak beste orain dela gutxi sortutako *Euskal Eskola Publikoaz Harro* plataformak, elkarrizketan, konpromisoan eta erantzukizunean oinarritutako estrategian kontuan hartu beharko lirakeke, hala, hezkuntza hitzarmen berria sortzeko; hori lortzea oso desiragarria litzateke, eta Hezkuntza sailburu berriak Eusko Legebiltzarrean adierazi moduan, are gehiago une honetan, non pandemiak argi utzi duen euskal hezkuntza eredia hobetu behar dela testuinguru sozioekonomiko eta sozial berriari aurre egiteko.

4. Indarkeria eta tratu txar mota guztietatik babestua izateko eskubidea

Pandemiari aurre egiteko ezarritako neurriek umeei edozein motako indarkeria sufritzeko arriskua gehitzeko aukera (konfinamenduaren testuinguruan guztiz ikusezina izan dena, non ikastetxeak itxi diren eta mugimendu askatasuna mugatu den), umeen pobrezia gehitzearekin eta hezkuntza ezberdintasunak areagotzearekin batera, umeen eskubideak defendatzen dituzten erakundeek ohartarazitako gai garrantzitsuenetakoak izan dira. Arriskua albo batera utzi gabe (horregatik erakunde honek *Zeuk Esan* umeei eta nerabeei laguntzeko telefono zerbitzuaren eskuragarritasunari eta jarduerari buruz galdetu zuen konfinamenduko garai zailenetan eta proposatu zuen umeei eta nerabeek ahalik eta informazio gehien izateko mezuek eta bideak gehitzeko), egia dena da 2020an Arartekoan aurkeztutako erreklamazioek ez dutela adierazten adingabeen aurkako indarkeria gehitu denik. Bada, kexa kopurua eta kexen gaiak ez dira asko aldatu aurreko urteekin alderatuz.

Kexen arrazoi nagusietako bat da, oraindik ere, **desadostasuna beren seme-alaben babesgabetasuna aitortzearekin**, guraso-ahala etetearekin eta foru erakundeak tutoretza onartzearekin. Kasu horietan guztietan, kexagileek neurriaren kontra egiteko lege egoitzara jo edo horren asmoa ageri zuten, beraz, Arartekoaren jarduera saihesten zen eske nagusiari zegokionez. Bestalde, erakunde honek ez du iritzirik ematen gai teknikoari buruz, hala nola, guraso aginpidea edo adingabearen babesgabetasun maila handiagoa edo txikiagoa. Horiek Arartekoak berezkoak dituen ezagutza eremuetatik, hau da, zuzenbidearekin bat al datozen zehaztetik at egiten dira.

Aurten kexa batzuk jaso dira ere bi urtetik gorako familia banaketako babes neurriak dituzten adingabeen familiek egindakoak, seme-alabak jatorrizko familiara itzultzea nahi dutenena. Kasu batzuetan adierazi dute, gainera, ez daudela seme-alabek jasotako esku hartzearekin eta arretarekin, dela egoitza harreraren dela familiakoan, baina azpian dagoena eta gailentzen dena beti da ez daudela ados babes neurriarekin berarekin, eta seme-alabekin bizi nahi dutela berriz.

Aurtengo kexen beste arrazoi bat da udaletako eta foru aldundietako **gizarte zerbitzuak atzeratu egin direla esku hartzeko edo hasitako balorazioak amaitzeko orduan**. Atzerapen hori azaltzeko, kasu batzuetan azaldu dute urtean barrena gertakari bereziak jazo direla eta arazoak izan dituztela joan-etorrietarako edo beste profesional batzuen agiriak eta txostenak eskuratzeko.

Hain justu, azken urteotan hazi egin dira babeseko gizarte zerbitzuen alorreko kontsultak eta kexak, atzean gurasoen banaketa gatazkatsua dutenak. Tarteka, gurasoetako batek Arartekora jotzen du adierazteko gizarte zerbitzuak, foru

aldundikoak edo udalekoak, ez direla esku hartzen ari beren seme-alaben kaltea saihesteko, edo haiek eskuragarri dituzten tresnak (familiako esku hartzeen programak, laguntza terapeutikoa eta abar) ez direla nahikoa gurasoek duten gatazkatik babesteko.

Aurten ez da jaso **familiako harrerari** buruzko kexarik, eta ia ez da jaso **egoitza harrerari** buruzkorik. Familia batek adierazi zuen ez zegoela ados beren alaba nerabeak, jokabide arazoak dituenak, egoitza harreraren jasotako arretarekin, ezta emandako zerbitzuagatik familiak ordaindu behar izan zuen prezio publikoarekin -jagoletza Administrazioari lagatzeko eskaera bat baitzen, eta ez tutoretza hartzekoa- eta eman zitzaizen informazioarekin ere.

Adoptatutako haurrei eta nerabeei dagokienez, kexetan berriro aipatzen dira adopzio ondoko jarraipenak. Beste zenbaitetan azaldu dugunez, Arartekoak familiei jakinarazi zien haurren jatorrizko herrialdeak ezartzen duela jarraipenak egiteko maiztasuna, horien kopurua eta haurren adina, eta foru-aldundien gizarte-zerbitzuen esku dagoela jarraipen-txosten horiek egitearen eta bidaltzearen kudeaketa, horrela, haur horien beharrei eta eskubideei beharrezko arreta ematen zaiela bermatzea.

Bakarrik dauden adingabe atzeritarrei emandako arretari dagokionez, ez da herritarren erreklamaziorik jaso eta erakunde honek ikuskaritza bisiten eta umeen gizarte erakundeekin eta zerbitzuekin egindako bileren bidez egiten duen jarraipen lana oso baldintzatua egon da COVID-19aren pandemia dela-eta. Testuinguru horretan hala ere bi azterlan bukatu dira: lehenengoa, familiaren laguntzarik ez duten gazte immigranteen emantzipaziorako laguntzei buruzkoa da, eta, bestea, Europako harrerako praktika onei buruzkoa; azterketa horiek 2021eko lehenengo lauhilekoan aurkeztea aurreikusita dago.

Iaz indarkeria matxistagatik amak erailak izan dituzten **umezurtzei** laguntzeko neurrien inguruan hasitako esku-hartzeak 2020an jarraitu egin du besteak beste zerga alorrean eta familiei ematen zaien laguntzetan, zeintzuek ez duten ezta ez-ohiko moduan ere hain bereziak diren inguruabar horiek jasotzen. Horregatik, Arartekoaren ustez ez da eztabaidatu behar hainbeste araudiaren interpretazioa edo ez da hainbeste eskatu behar ez-ohiko egoera kontuan hartzeko, alderantziz, errealitate hori beharrezko segurtasun juridikoaren jorratzeko araudiak proposatu behar dira. Helburu hori lortzeko baliagarria izan beharko litzateke Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen aurreikusitako aldaketa, gutxienez proiektuaren testuan jasota baitago genero indarkeria egoerak bizi dituzten umeei biktima zuzenak direla eta neurri publiko batzuen hartzaile gisa jasota daude.

Bukatzeko, eta Euskadiko abusu eta sexu ustiapeneko kasuetarako jarduketarako protokolo bat sortzearen inguruan egindako lanari buruz aipatu behar da aurreikusita dagoela jendaurrean proposamen teknikoak azaltzea Arartekoaren gomendio gisa 2021eko lehenengo hilabeteetan.

5. Familia izateko eskubidea

COVID-19aren pandemiak agerian utzi duen elementuen artean pertsonen euskarri material eta afektibo gisa familiek duten betebeharrak garrantzitsuak aipatu behar da, eta, zuzenean horrekin lotuta, baita familiako kideek lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko dituzten zailtasunak ere.

Gai horren inguruan kexa batzuk eta hainbat kontsulta jaso dira. Horietako batzuek lotura dute, aldi berean, enpresek, organizazioek eta administrazioek osasun larrialdiko egoeran baliatu zuten telelaneko modalitatearekin. Egoera horren aldakorra izateak eragin ditu kontsulta eta kexa asko, bai pandemiaren eragina bera aldakorra izatea, bai, batez ere, pandemiaren ondorengo etapetan hartutako neurriak aldakorrak izatea.

Puntu honetan hauxe esan daiteke: nahiz eta Eusko Jaurlaritzak, apirilaren hasieran, lana eta familia bateragarri egiteko lehendik zeuden laguntzak malgutzea eta denboran luzatzea onartu, baita laguntzen hornidura handitzea ere, erakundeetan jasotako kexa bakar batean ere ez da aipatu laguntzen lerro hori.

Aurten lan eta gizarte jardunaren zati handi bat salbuespen egoera izugarrian garatu da, pandemiaren ondorioz eta hori lagungarria izan da, hala ere, ikusarazteko bai familia aniztasuna, bai bizitzak garatzeko inguruabar ugari eta anitz daudela; inguruabar horiek aipatutako kexa eta kontsultetan ere jaso dira. Bestalde, agerian utzi du lana eta bizitza bateratzeko familia zabalaren babesa ordainezina dela, bereziki amona eta aitonena; laguntza ekonomiko eta baimenez gain, dena bateratzeko euskarri erreal eta isila osatzen dute gaur egun.

Familia ugariak bateratzeko zailtasun handiagoak dituztela berariaz jakinarazi ziguten, baita nahitaez bete beharreko zenbait neurri bete behar izateak haien artean kostu handiagoa duela ere (maskarak erabili beharra, esaterako).

Guraso bakarrek familiek seme-alaba txikiak zaintzeko gaitasunak behar zituzten arazo handien berri eman eta irtenbideak eskatu zituzten, bereziki funtsezko zerbitzuetatik jotako profesionalen kasuan.

Familia banatuek hainbat zalantza plazaratu zituzten bizikidetzaren guneak txandakatzeko aukerari dagokionez, partekatutako zaintza kasuetan edo zaintza ez duen gurasoekin egoteko egonaldietan, edota seme-alabekin komunikazioa eta harremana bermatzeko moduari dagokionez, baimendutako joan-etorri eta joan-etorri horiek egiaztatzearen formula edo betekizunei dagokionez, itxita familiarteko topaguneen bisita alternatibei dagokionez, etab.

Nolanahi ere, kexa horiek guztiek garrantzi handiagoa ematen diete familiei laguntzeko politiketako gai batzuei, hurrengan duten eraginagatik, Arartekoa etengabe adierazten ari baita horiek hobetu daitezkeela. Beste behin ere, honako gaiok mintzo gara:

- Seme-alabak dituzten familietan egindako inbertsio ekonomikoa handitzen jarraitzea, batez ere neurri fiskalak ezarriz.
- Guraso bakarrek familiei estatutu berezia aitortzea, haien premia berezietan erantzun egokia emateko, eremu guztietan.
- Banandutako gurasoak dituzten familien edo bereratatutako familien kasuan familia ugariaren tituluak kudeatzeko irizpideak hobetzea, edo, hala badagokio, gai horri buruzko erregulazio autonomiko propioa egitea.
- Seme-alabengatik dirulaguntzen eta kontziliaziarako laguntzen izapidetze administratiboa argitzea, arintzea eta sinplifikatzea, irisgarriagoa izan dadin herritarrentzat eta laguntza horien izapidetzea ahalik eta automatizatuen egon dadin.
- Adinekoak, seme-alabak, edo gaixorik, ezinduta edo mendetasun-egoeran dauden kideak dituzten familiei laguntzeko zerbitzu publikoak eta baliabideak areagotzea eta hobetzea.
- Familia eta lana bateragarri egiten eta familia-erantzukizunak betetzean emakumeen eta gizonen erantzunkidetasuna sustatzen lagunduko duten neurriak bultzatzen jarraitzea, laguntza ekonomikoen bidez ez ezik, era guztietako estimuluen bidez ere sustatuz balio-aldaketa eta egitura ekonomikoen eta enplegu-egituren egokitzapena, bat etor dadin pertsonen zaintza-beharrekin.

6. Osasunerako eskubidea

Euskadiko udalerriren batean erroldatutako pertsona guztien osasun-laguntza bermatzeko aurrerapenak egin diren arren, jarraitu dugu atzeritarrek **osasun-arreta jasotzeko** zailtasunei buruzko kexak jasotzen, eta horietako batzuek salatu dute haurdun zeuden emakumeak eta adingabeak ere hasiera batean ez zituztela artatu. Aurrekoetan bezala, gehienetan, osasun-zentroetan osasun-arretaren eskaera kudeatu zuten pertsonak informaziorik ez izateak eragin du arazoa, eta, beraz, horiei guztiei banan-banan eman zaie irtenbidea.

Hala ere, alor horretan kexa gehien eragin dituen gaia COVID-19ak sortutako osasun-krisia da. Horien artean, haurrei berezikiago eragiten dieten gaiak nabarmenduko ditugu:

- Osasun langileak beraien familiekin batera bizitzaren arriskua; arazo hori nolabait konpondu zen pertsona horiek beraien etxebizitzetara joatea ekiditeko eskuragarri jarri zituzten ostaluetekin. Hala ere, ez ziren konpondu etxeetan zeuden seme-alaben hazkuntzarekin eta zaintzarekin lotutako arazoak.
- Gurasoak edo zaintzaile nagusiak kutsatuta edo ospitaleratuta zeudenean umeei eman beharreko arreta. Babesgabetasun egoera hori edonola ere iragankorra

zen, eta horri erantzunez, foru gizarte zerbitzuek babesgabatasun egoeran zeuden umeentzako plazak eskuragarri jarri zituzten; hala, adingabeak bertan egon ahal izan ziren beraien zaintzaren ardura zuten pertsonak sendatzen ziren bitartean.

- Ekografiak egitean haurdun zeuden bikotekideei ezin laguntzea eta lehenengo mailako arretan kontsulta ez presentzialak ezartzea. Txosten hau idatzi den unean, Arartekoa Osakidetzak gaur egun espezialitateetako kontsultetarako eta lehenengo mailako arretako kontsulta ez presentzialetarako ezarritako laguntza protokoloen inguruko erantzuna emateko zain dago.
- Arazo ekonomikoak dituzten pertsonen eta familien, baita seme-alabak dituztenek ere, arazoak dituzte maskarak eskuratzeko (derrigorrezko neurria da). Hortaz, Arartekoak ebazpen bat bidali dio Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari, eta iradoki dio azter dezala neurri osagarriren bat hartzeko aukera, sail horren ekimenez eta beste batzuekin koordinatuta, arazo ekonomikoak dituztenek maskarak erabiltzeko betebeharra egoki betetzen laguntzeko.

7. Jolasteko, aisialdirako eta kirolerako eskubidea

Konfinamenduko lehenengo asteetan hainbat erreklamazio aurkeztu ziren Arartekoan neurriak malgutzeko eskatuz, izan ere, umeen garapenean oso garrantzitsutzat jotzen dira jardura motorra eta **jolasa**. Guztiei emandako erantzunetan eta une horretan egindako erakunde deklarazioan, Arartekoak esan zuen kezkatuta zegoela konfinamenduak ume eta nerabeen osasun fisikoan, psikikoan eta emozionalean izan zitezkeen ondorioak zirela-eta, eta, horrez gain, horiek egiten ari ziren esfortzua eta egoera zailletara egokitzeke ezartzen ari ziren eredua baloratu zuen. Hala ere, Arartekoak ez zuen eskumenik gai horren inguruan jarduteko, izan ere, pertsonen zirkulazio askea mugatzeko neurriak alarma egoera deklaratzaren ondorioz ezarri ziren, eta gai horretan eskuduna estatuko gobernuak da.

Eskola kirolari dagokionez (2020an ia desagertu egin zena pandemia zela-eta), askotan errepikatzen diren bi gai buruzko jarduketak bukatu dira: alde batetik, atzerrian jaiotako adingabeek futboleko federazio lizentziak eskuratzeko dituzten zailtasunak (kasu honetan adoptatutako umei buruzkoak izan ziren, eta beraz, Espainian jaiotako en nazionalitate eskubide berdina-berdinak dituzte), eta, bestetik, eskola orduetatik kanpo kirol entrenamenduak egiteko udal eskoletan egiten duten ordutegi banaketagatik sortzen diren arazoak. Horren ondorioz, Arartekoak berriz ere Hezkuntza Sailera jo zuen legegintzaldi berriaren hasieran, berretsiz behar larria dagoela erabilera horiek arautzen dituen dekretua aldatzeko, alde batetik, ekipamenduen eskaera epeak argitzeke eta bestetik, gertakari horien aurrean jarduteko irizpide argiak ezartzeko.

8. Adingabe arau-hausleen eskubideak

Azkenik, **gazteen justizia-sistemako hezkuntza-zentroetan dauden adingabeen lekualdaketa Ertzaintzak jarraitzen dituen jarduketa-jarraitzei** buruzko kexa bat aipatu behar dugu. Kexaren bidez desadostasuna agertzen da lekualdaketa egiterakoan agenteek arazko armak eraman ahal izatearekin. Agenteek jasotzen duten prestakuntza espezializatua eta girgiluen erabilera ere aipatzen dira kexan. Arartekoak, helarazi zioten informazioa ikusita, adierazi zuen ez zeukala oinarririk aipatutako alderdietan ezarritako jarduketak zalantzan jartzeko eta horiek betetzen ari ez zirenik ulertzeko. Hala ere, era berean, Arartekoak ulertu zuen barne-kontrolko formulak ezarri behar zirela lekualdaketen jarraipena egin eta irizpideak betetzen zirela egiaztatu ahal izateko. Horrez gain, Arartekoaren ustez kontrol hori gauzatu ahal izateko, lekualdaketen inguruko alderdi guztiak nahikoa dokumentatu behar dira, bai eta irizpide orokorretatik aldentzen diren jarduketak arrazoitu ere.

